TXINPARTAK

49. zkia
Memoria

BURDINOLAko berriak. Legazpiko Burdin Museoko Lagunen Elkartea

Realización del Peine del Viento

"Homenaje a Chillida" © Gorka Salmerón Murgiondo.

Eta gainera:

- **2022ko jardueren memoria**
- **“Onomastika eta burdina” jardunaldiko aktak**
- **Bestelako kolaborazioak**

Índice ~ Aurkibidea:

03 **2022ko jardueren memoria**
Memoria de actividades de 2022

- **Historia.** Txanboliñenea etxearen azterketa dendrokronologikoa 4
  Estudio dendrocronológico de la casa Txanboliñenea.
- **Historia.** Plazaola baserriko artxiboa sailkatzea eta digitalizatzea 6
  Clasificación y digitalización del archivo del caserío Plazaola.
- **Historia.** Legazpi-barrutiko zepadien ikerketa 7
  Estudio de los escoriales de distrito de Legazpi.
- **Ondarea.** Ignacio Agirre Montegiren beste argazki sorta bat 8
  Más fotografías de la colección de Ignacio Agirre Montegi.
- Jendaurreko jarduerak 9
  Actividades de cara al público.

13 **“Onomastika eta Burdina” jardunaldiko aktak**
Actas de la jornada “Onomastika eta Burdina”

- Euskal burdingintza historikoa Europako kontestuan. Jose Antonio Azpiazu. 14
- Hitzen historiaz: burdina eta beste. Ander Ros. 17
- Leku-izenak mendiko burdinolen inguruetan. Jose Luis Ugarte. 30
- Nafarroako burdingintza eta toki-izenak. Malen Lizarraga. 36

49 **Kolaborazioak**
Colaboraciones

- Kimu Berri: inork agindu gabeko auzolan ederra. Felix Ibargutxi. 50
- La igualdad de la mujer en el montañismo vasco. Antxon Iturriza. 57
- Eguraldiari begira. Aitor Gurrutxaga. 59
- La realización del Peine del Viento. Ignacio Arbide. 62

Parte hartzaileak:
Aitor Gurrutxaga, Aitor Ibañez de Garatxana, Ander Ros, Antxon Iturriza, Felix Ibargutxi, Gorka Urzelai, Felix Ibargutxi, Ignacio Arbide, Jose Antonio Azpiazu, Jose Luis Ugarte, Malen Lizarraga, Manolo Salmerón, Pedro Vega

Diseinua eta maketazioa:
Gertu eta Burdinola

Inprimategia:
Gertu, Oñati

Legegordailua:
SS-1077/01

Urtea:
2023

2022ko jardueren memoria
Memoria de actividades de 2022

TXANBOLIÑENEA ETXEAREN AZTERKETA DENDROKRONOLOGIKOA

"Bar Patxi" zegoen etxea eraisterakoan agerian geratu zen aldea. 2020ko abendua (JLU).

Kale zaharreko Txanboliñenea etxea

(Nafarroa kalea 9) eraitsi eta etxe berriak egiteko asmoa dagoenez, Burdinola elkarteak azterketa dendrokronologikoa egiteko eskaera luzatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari 2021eko urrian. Azterketa horrekin etxearen zurajea noizkoa den jakin nahi zen. Eskaera onartu eta 2022ko apirilean jaso genuen txostena. Bertatik bi pasarte aukeratu ditugu. Sarrerako hau:

"El estudio dendrocronológico se planteó como indicador de la cronología del edificio, con el fin de obtener dicha información antes del diseño del proyecto de rehabilitación a realizar en el mismo. El muestreo se focalizó en aquellas piezas que en principio pudieran pertenecer a la fase original del edificio. La toma de muestras se realizó mediante el empleo de una broca hueca especialmente diseñada para estos estudios de forma que, acoplada a un taladro de altas prestaciones, permite la obtención de muestras dendrocronológicas de las piezas in situ.

Se obtuvieron un total de 20 muestras, procedentes de otras tantas piezas. Cinco de las muestras tuvieron que ser descartadas por el escaso número de anillos y el alto grado de fragmentación de la misma.

Todas las muestras recogidas eran de roble (Quercus sp)."

Emaitzei dagokionez hauxe dio txostenak:

"La comparación de las muestras entre sí permitió el establecimiento de una serie promedio a partir de 6 de las muestras, de 108 años de longitud. Mediante la posterior comparación con las referencias disponibles se obtuvo su datación absoluta para las fechas 1620-1727, con unos índices estadísticos realmente elevados. Teniendo en cuenta que dos de las muestras incluidas en esta serie media presentan la albura completa, se establece la fecha de tala de los árboles utilizados en la construcción de esta estructura para el año 1727."

Hortaz, Txanboliñenea etxearen zurajea egiteko zuhaitzak 1727. urtean bota ziren. Esan behar da,

Legazpiko Artxibo Historikoan etxe horri buruz topatu dugun aipamen aspaldikoena 1787. urtekoa dela. Garai hartan *Sanchonea Mayor* izenez ezagutzen zen etxea.

1609. urtean *Sanchoechea* izenez ezagutzen den etxea beste bat da, azken aldera *Gaxparrenea* izenez ezagutu den etxea. Gerora, *Sanchonea menor* izenez ere ezagutu izan da.

● 300 urteko historia

Nafarroa kaleko 9. zenbakia dagoen etxean jende asko bizi izan da 300 urteko historia luzean. Miatutako erroldetan konprobatu izan dugunez, bi familia ere bizi izan dira aldi berean urte desberdinetan.

1832. urteko agiri batean ikusten denez, Legazpin jaiotako Josef Andres Olaberria Aizkibel bizi zen bertan. Jabea, garai hartan, Guriditegiko Guriditarrak ziren. Urte horretako agirian *Sanchonea mayor* izenez azaltzen da etxea.

1843. urteko erroldan, bi familia azaltzen dira bertan bizi izaten: Etxeberriatarrak eta Zendoiatarrak.

1910. urtean ere bi familia: Legazpin jaiotako Bittor Etxeberria Oruezabal, “Bittor zapatarie”, eta bere familia, batetik, eta Ormaiztegin jaiotako Roke Azpeitia Mendizabal, “Roke Txanbolin”, eta bere familia bizi ziren bertan. Hortik, *Txanoliñenea*, etxearen izena.

1940. urtean Mendiarasgoikoa baserrian jaiotako Patxi Osinalde Muruak erosi zuen etxe osoa eta beheko solairuan burdindegia jarri zuen emazte Anparorekin batera.

Anparo Larrañaga, Arantxa Osinalde eta Patxi Alberdi (familiak emana).

“Roke Txanbolin” XX. mendearen hasieran Oiarbidenea tabernaren aurrean beste hainbat lagunekin (Apatsoko artxiboa).

1956an, Azkoitiko Felipe Alberdi Antiak Patxi eta Amparoren negozioa hartu zuen. Negozioa zabaldu eta elektrogailuak saltzen ere hasi zen. 1970eko hamarkadan, guztiz aldatu zen negozioaren norabidea, soilik arropa eta jantziak saltzen hasi ziren.

Maritxu Jauregi eta Felipe Alberdi, 2005. urtean (familiak emana).

PLAZAOLA BASERRIKO ARTXIBOA SAILKATZEA ETA DIGITALIZATZEA

Legazpiko Plazaola baserri historikoan agiri zaharrez betetako hiru kaxa handi zeuzkaten gordeta jabeek etxeko armairu batean. Orain dela sei-zazpi bat urte baserria goitik behera berriztatu zuten eta kaxa haietan gorde zituzten han-hemenka barreiatuta zeuden agiriak. 2022. urtearen hasieran Burdinola elkartearekin harremanetan jarri ziren haren berri emateko.

Materiala aztertzera hurbildu ginen eta konturatu ginen Legazpiko historia hurbilarekin lotutako informazio baliotsua zegoela bertan. Horren aurrean, ikertzaile espezialistekin harremanetan jarri eta gero, plan bat diseinatzea erabaki genuen eta, laburbilduta hauxe zen: artxiboetako irizpide estandarrak erabiliz Plazaolako artxiboa antolatzea, sailkatzea, agirien deskribapenak egitea eta zati bat digitalizatzea. Jabeen baimena lortuta, horretan jarri ginen.

Ondartez enpresa kontratatu genuen lan horiek egiteko eta, hilabete batzuen ondoren, hasieran hiru kaxa handi zienak tamaina txikiagoko 6 kaxa bilakatu ziren, era honetan antolatuta:

1. kaxa: 24 karpetatxo (argitalpenak; argazkiak, 36ko gerratea)
2. kaxa: 59 karpetatxo (euskara; banketxeak, irakaskuntza; osasuna; korrespondentzia; aisia)
3. kaxa: 44 karpetatxo (administrazioarekiko harremanak; obrak, bideak, soroak)
4. kaxa: 17 karpetatxo (urak eta zentral hidroelektrikoa; industriak)
5. kaxa: 26 karpetatxo (dokumentazio pertsonala)
6. kaxa: 14 karpetatxo (planoak)

Lan horren ondotik, iruditu zitzaigun artxiboaren zati bat digitalizatu behar zela herritarren artean zabaltzeko helburuz, interes orokorreko material ugari zegoelako. Hala, familiaren oniritzia jasota, digitalizatu beharreko 739 orrialde aukeratu genituen eta Gureak enpresarekin jarri ginen harremanetan. Enpresa horrek Eusko Jaurlaritzaren Dokuklik plataformak eskatzen duen eran digitalizatuko ditu dokumentuak, gero bertan eskegi ahal izateko.

Era horretan, interneten, alde batetik, baserriko artxiboan dauden agiri guztien fitxak eskainiko ditugu, deskribapen zehatzarekin; eta, beste alde batetik, hainbat kasutan, digitalizatutako irudiak ere eskainiko ditugu.■

Plazaola baserria, 2022ko uztailean (JLU).

Plazaola baserriko familia: Gregorio Santa Águeda, Cayetano Elorza, Julian Elorza, Maxima Elorza, Benita Urzelai, Luxio Elorza, Leontxi Elorza (Berasategi artxiboa)

LEGAZPI-BARRUTIKO ZEPADIAK

Legazpi-barrutiko zepadiak (Burdinola)

Aizaleku 5 zepadia,
2022ko abuztuaren 26an (JLU).

Zabarain 10 zepadia,
2022ko abuztuaren 26an (JLU).

Burdinola elkarteak 130 zepadi (burdinolen jardueraren ondorioz sortutako eskoria-pilak edo hondakindegiak) topatu ditu dagoeneko Legazpiko meatze-barrutian. Esan beharra dago kopuru horretan ez direla kontuan hartu azken mendeetan erreka ertzeetan kokatutako burdinola hidraulikoei dagozkienak eta, bestetik, Legazpiko barrutia deiturikoan Legazpiko eremuak ez ezik, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Segura eta Zegamako eremuak ere sartzen direla.

Arkeolan Fundazioarekin batera 2014. argitaratutako liburuan (Erdi Aroko burdin-arkeologia. Legazpi barrutiko zepadiak) 124 zepadi deskribatu genituen. Gainerako sei zepadiak geroztik topatu ditugu.

Aztertutako zepadietako eskoriak (bi izan ezik) antzeko ezaugarriak dituzte. Kanpoko aldea iluna, distiratsua eta kordoiez eratutakoa izan ohi dute; barrura begirakoa, berriz, zimurtsua. Burdinola hidraulikoetako zepak, aldiz, porotsuak, harroak eta arinagoak izan ohi dira.

Bada, 1993. urtetik 2022 urtera bitartean 130 zepadi horietatik 71tan ikatz-laginak hartu eta datatu egin dira. 61 datazio 2016. urtetik aurrera egin dira.

• 2022ko kanpaina

2022. urteko kanpainan 10 zepaditako ikatz-laginak hartu eta datatu ditugu. Hauexek: Aizaleku 4, Aizaleku 5, Biurrain 1, Eztanda 3, Eztanda 4, Urzabal 1, Urzabal 2, Zabarain 8, Zabarain 10 eta Zubitzain 4.

Lehenengo irteera ekainaren 24an egin genuen Zegamako Maskulain ingurura prospekzio-lanak egitera. Ez genuen, dena dela, pila nabarmenik ikusi eta laginak bertan hartzea deskartatu genuen.

Bigarren irteera uztailaren 9an egin genuen Legazpiko Urzabal eta Gabiriko Eztanda inguruetara. Lau zepaditako laginak hartu genituen.

Hirugarren irteera abuztuaren 1ean egin genuen Lezandiaga ingurura prospekzio-lanak egitera. Ez genuen nahiko genukeen pilarik ikusi.

Laugarren irteera, abuztuaren 2an, Zeraingo Zubitzain eta Aizpee inguruetara egin genuen. Goiz osoan lanean ibili arren, lagin bat besterik ez genuen lortu.

Bosgarren irteera abuztuaren 25ean egin genuen, Zegamako Altzibar ingurura. Oria ibaiaren ondoan, “Mojan kanposantue” izeneko lekuan zepak ikusi genituen, baina hor ere ez zegoen laginak hartzeko moduko pilarik.

Seigarren eta azken irteera abuztuaren 26an egin genuen Biurrain, Zabarain eta Aizaleku inguruetara. Bost ikatz-lagin lortu genituen.

Datazioen emaitzek erakutsi dute goian aipatutako lekuetan burdina egin zela X. eta XII. mende bitartean.■

IGNACIO AGIRRE MONTEGIren BESTE ARGAZKI-SORTA BAT

2021. urtean Burdinola elkarteak Ignacio Agirre Montegiren 31 argazki eskuratu zituen, lehenaz gain. Horietatik 28 argazki, Legazpi inguruan ateratakoak. Era horretan, Ignacio Agirre Montegiren Legazpiko argazkien funtsa 51 argazkikoa izatetik 79koa izatera pasa zen, eta gehienak 1910. urtea baino lehenagokoak.

Zuzendaritza batzordeak erabaki zuen argazkietako lagunak eta lekuak identifikatzen saiatzea eta, ondoren, Legazpiko argazkiekin katalogo digital bat egitea eta interneten eskegitzea.

Horretan ibili gara geroztik, baina oso gutxi aurreratu dugu, argazkiak hain zaharrak izanik, bertako jendea ezagutzen duen bizilagunik ez dugulako topatzen, edo ez dugulako behar den lekura jotzen.

Aspaldi desagertutako lekuak, bizilagunak, jazkerak eta ohiturak aurkitu daitezke argazki eder horietan. Horietako bat ekarriko dugu orrialde honetara, IA.9x12.41 kodea duena, hain zuzen ere.

Bertan 18 laguneko taldea ikus liteke etxe baten aurrean. Beste sei lagun leihoetan. Taldearen aurrean dultzina-jole bat (badakigu Plazaola baserrian bazirela) eta atabalaria. Aurreko aldean dagoen gizon batek tolestatutako paper bat dauka eskuan. Jaietako erropa dutela garbi ikusten da: gizonezko gehienek txalekoa jantzita; eta emakumezkoak, ator dotoreekin eta ilea ondo bilduta. Ez du hotzik egiten. Santikutz egunean, akaso. Etxea ere ez dugu ezagutzen. Pentsatzen dugu Agerreplaza izan litekeela, kaletik oso gertu zegoen baserria. Arazoa da Agerreplaza ikusten den argazkirik zaharrenetan bestelako itxura daukala, zurituta eta berriztuta dagoelako beharbada.■

1

2

3

1 Agirreplaza izan daitekeen etxearen aurrean giza-taldea (Burdinola, IA.9x12.41).

2 Agerreplaza etxearen urrutiko ikuspegia (Burdinola, IA.9x12.03).

3 Agerreplaza etxea eta aurrean hiru neska: Pilar Zabalo, Ines Zubia eta Elena Zaldua.

BURDINOLA ELKARTEAREN JENDAURREKO JARDUERAK 2022AN

ACTIVIDADES DE CARA AL PÚBLICO REALIZADAS POR BURDINOLA EN 2022

Erakusketaren kartela (Mendian Gora).

Antxon Iturriza aurkezpenaren egunean (Gotzon Aranburu).

Mendian gora

- Euskal mendizaletasunaren historiaren erakusketa
  Exposición sobre la historia del montañismo vaso.
- Otsailaren 24tik martxoaren 11ra
  Del 24 de febrero al 11 de marzo.
- Legazpiko Kultur Etxea
  Casa de cultura de Legazpi.
- Aurkezpena ≈ Presentación: Antxon Iturriza.

Smithyren blogeko irudi bat.

Alpinismoa Goierriko bihotzean

- Xabi Mujika Smithy-ren hitzaldia
  Charla de Xabi Mujika Smithy.
- Martxoaren 3an
  3 de marzo.
- Legazpiko Kultur Etxea
  Casa de cultura de Legazpi.

Korrikako logoak historian zehar (Korrika.eus)

Korrika

- Korrikaren historiaren erakusketa
  Exposición sobre la historia de la Korrika
- Martxoaren 25etik apirilaren 8ra
  Del 25 de marzo al 8 de abril
- Aurkezpena ≈ Presentación: Beñat Ibañez, AEK Urola Garaia; Gorka Urzelai, Burdinola

Jardunaldia iragartzeko kartela (Burdinola).

Onomastika eta Burdina

- Jardunaldi akademikoa ≈ Jornada académica
- Legazpiko Kultur Etxea ≈ Casa de cultura de Legazpi.
- Apirilaren 9an ≈ 9 de abril.
- Hizlariak ≈ Ponentes: José Antonio Azpiazu, Ander Ros, Jose Luis Ugarte, Malen Lizarraga, Carlos Glaria
- Ponentzia guztiak youtube-n ikusgai daude
  Todas las ponencias cuelgan de youtube:

https://www.youtube.com/channel/UC43eYCvG8DOBTWagkcTY7Fg

Liburuaren azala

Liburuaren egileak:

Julen Legorburu,
Aitor Azpiazu,
Jose Luis Ugarte,
Ángel Martínez,
Joseba Alonso,
Iñigo Aranburu,
José Rodríguez,
Elena Aseginolaza.

Urbia eta Altzania

- Arkeolan eta Burdinolaren artean editatutako liburu-aurkezpena
  Presentación del libro editado entre Arkeolan y Burdinola.
- Izenburua: *Urbia eta Altzaniako mortuak. Arkeologia, historia, mugarriak eta toponimia.*
  Título: *Montes altos de Urbia y Altzania. Arqueología, historia, mojones y toponimia.*
- Legazpiko Kultur Etxea ≈ Casa de cultura de Legazpi.
- Apirilaren 25ean ≈ 25 de abril.
- Hizlariak ≈ Ponentes: José Rodriguez, Ángel Martínez, Jose Luis Ugarte
- Aurkezpena ikusgai dago Urola Telebistaren webgunean
  La presentación se puede visualizar en la página web de Urola Telebista

https://www.urolatelebista.com/component/content/article/91-especiales/1155-semifinales-del-campeonato-de-juegos-de-mesa-y-movimiento-en-buztintegi-mahai-eta-mugimendu-jokoen-txapelketako-finalerdiak-buztintegin?Itemid=561

» » Burdinolako kideak Urbina-Basabe dorretxearen parean (Burdinola).

Kuartango

- Kuartangora kultur-ibilaldia
  Excursión cultural a Kuartango
- Maiatzaren 21ean
  21 de mayo

- Ibilbidea ≈ Ruta: Legutio (gerrako frontea ~ frente de guerra), Iruña Veleia, Kuartango (bazkaria/comida), Urbina Basabe (dorretxea ~ casa-torre).
- Gidak ≈ Guías: Xabi Herrero Acosta, Ángel Martínez Montecelo, Garbiñe Dilla Rabilero.
- Ibilaldian zehar ikusitako lekuen gainean sarean dagoen informazioa
  Información disponible en la red de los lugares visitados:

https://revistes.ub.edu/index.php/ebre38/article/view/22001 (Legutio, Zigoitia)
https://www.zigoitia.eus/es/turismo/itinerarios-de-zigoitia/rincones-de-zigoitia (Legutio, Zigoitia)
https://web.araba.eus/es/patrimonio-arqueologico/memoria-iruna-veleia#articulos (Iruña-Veleia)
https://www.ananaturismo.com/lugares/casa-torre-urbina-basabe/ (Kuartango)
https://www.araba.eus/publicar/PatrimonioHistorico/VOL7_KUARTANGO_URKABUSTAIZ_ZIGOITIA.pdf (Kuartango)
https://web.araba.eus/documents/105044/5666206/7.+Inventario+de+patrimonio+geotermal+de+ %C3%81lava.pdf/113051e2-bb57-7030-ea2f-f415cd10760f?t=1606390044957 (Kuartango)

Musika saioaren aurkezpena (Burdinola).

San Migel

- San Migel ermitako kontzertua
  Concierto en la ermita de San Miguel
- Ekainaren 18an ≈ 18 de junio.
- Soinujoleen orkestra eta Haize taldea
  Orquesta de acordeones y grupo de Viento
- Doinua Musika Eskolaren kolaborazioarekin
  Con la colaboración de Doinua Musika Eskola.

2022ko alardearen irudi bat (Goierriko Hitza).

Alardea

- San Juango armen alardea
  Alarde de armas de San Juan
- Ekainaren 23an ≈ 23 de junio
- Alarde Batzordea, Legazpiko Udala eta Lenbur Fundazioaren kolaborazioarekin
  Con la colaboración de Alarde Batzordea, Ayuntamiento de Legazpi y Fundación Lenbur.

2022ko edizioaren irudi bat (Goierriko Hitza).

Aizkorrin Barrena

- Mendi-martxa Brinkolatik abiatuta
  Marcha montañera desde Brinkola
- Irailaren 25ean
  25 de setiembre
- Arriurdin eta Izadi Zaleak elkarteen kolaborazioarekin
  Con la colaboración de las asociaciones Arriurdin e Izadi Zaleak
- Burdinola elkartearen lanak: ibilbide motzaren diseinua, lehiaketa kulturala eta toponimoak idatzita dauden lonetak jartzea
  Cometidos de Burdinola: diseño del recorrido corto, concurso cultural y colocación de lonetas con topónimos.

Aurkezpenaren berri ematen duen kartela (Asparrenakoak elkartea).

Partzoneria

- Partzoneriako liburuaren aurkezpena Araian
  Presentación en Araia del libro de la Parzonería
- Azaroaren 5ean
  5 de noviembre
- Hizlariak ≈ Ponentes:
  José Rodríguez, Ángel Martínez, Jose Luis Ugarte

Burdinolako kideak
Mutiloan
(Burdinola elkartea).

Mutiloa

- Mutiloako meatze-gunea eta Errotatxo etxea bisitatzeko ibilaldia
  Excursión para visitar el conjunto minero de Mutiloa y el edificio Errotatxo
- Azaroaren 19an
  19 de noviembre
- Gidariak ≈ Guías:
  Iñaki Ugalde, Mutiloako alkatea;
  Beatriz Herreras, arkeologoa



“Onomastika eta Burdina” jardunaldiko aktak

Actas de la jornada “Onomastika eta Burdina”

EUSKAL BURDINGINTZA HISTORIKOA EUROPAKO KONTESTUAN

Jose Antonio Azpiazu



XVI. mendean euskaldunen presentzia garrantzitsua zen Europan.

Euskaldunen izaeraren inguruan okerreko usteak izan dira nagusi: gizarte itxia dela, iluna, ezjakina, inguruari begiratu gabe bizi izan dela etab.

Ikuspegi ezkor hori finkatzerakoan euskarak ere, hain hizkuntza ezohizkoa izanik, zerbait lagunduko zuen.

Inguruko herrietan sortutako ikerkuntza eta aurrerapenetik kanpo bizi izatea ere egotzi izan diote, esparru ilun eta itxian bizi zirelako, haitzulo isolatuetan.

Burdinari lotuta bizi izan den herriaren bizimoduak ere horretara bultzatu du. Ola kobazulo bat bezala irudikatzen zen, eta bertan olagizonen egin behar bakarra hau zen: mea erre eta agoa kolpatu, burdin gordina moldatu… eta hor bukatzen zen haien zeregina.

Ola eta olagizonen inguruko bizimodua ikertu ondoren, irudikapen ezkor hori erabat desagertzen da. Nahikoa da ola bat eraiki, lanean jarri, eta horretan mantentzeko beharrezkoak diren baldintzak aztertzea. Ola bakoitza mundu bat zen, teknikari apartak behar zituen mantendu eta konponketak egiteko. Ola baten inguruan dirua, adituak, hauspogileak, uraren indarra nola bideratu behar zen, mea atera eta olara ekarri, eta… burdina egin ondoren, zer?

Hor agertzen zaigu egoera ireki bat, asmatzailea, kanpora begira, bezeroen beharrak asetzeko egin behar zituzten moldaketa eta aldaketak, eta abar.

Oletan lanean zebiltzanak kanporako lanean ari ziren, eskatutakoa eskaintzen, merkatua bilatzen. Hori, ola bakar bat kontuan hartuta.

1567ko agiri batean agertzen denez, Gipuzkoan 200 ola zeuden, urtero 240.000 kintal ekoizten ziren eta irabaziak 300.000 dukatekoak, dirutza izugarria garai hartan.

Baina ez al genuen uste, bestalde, gure herriaren bizimodua nekazaritza eta basoari lotuta zegoela? Halere, hemengo lurra ez da inoiz izan oso emankorra, eta Erdi Aroko hazkuntza demografikoari so eginez, beharrezkoa zen zerbait eskaintzea, trukean garia eta ardoa lortzeko.

XVI mendeko agiri ofizialek aitortzen dutenez “Gipuzkoako bizimodua, batez ere, oletan eta Ternuan oinarrituta dago”.

Orduan: olak ala baserriak? Legazpin, olagizon eta baserritarren artean izan zen auzi batean, gehienek hau defendatzen zuten: olak sortu zirela hemen baserriak baino lehenago. Iritzi horrek zerbait esan nahi du. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Arabako lur sail aberatsak bertan zeudela. Arabarrek lurra lantzeko ola eta sutegietako tresneria behar zuten, eta legazpiarrek, hango garia eta ardoa.

Ez zen herri bakarra, gainera, olen inguruan bizimodua ateratzen zuena. Hainbat baserritar oletara

Olagizona lanean
Mirandaola burdinolan (Burdinola)

joaten ziren lanera, edo bertarako lana egiten zuten: mea atera, oletara ekarri, ikatza egin, burdina egin ondoren garraio lanetan aritu, bai itsaso aldera bai lautada aldera.

Olagizonek, uste orokorraren kontra, zorrotz zaintzen zuten merkatal esparrua eta hari erantzuten zioten. Badakigu, hala, 1294 urtean Orioko kaitik 2.517 burdin kintal atera zirela kanpoan saldu ahal izateko. Oso goiz, beraz, kanpora begira, harremanetarako prest.

Bedua zen abiapuntu Urola bailaratik itsaso aldera generoa ateratzeko. Bertako biltegian burdin eta burdinazko tresneria ugari pilatzen zen, kanpora eramateko.

Araba eta Gaztelako lotura, berriz, Leintz-Gatzaga, Biozkorna eta San Adrian kobazulotik egiten zen. Urolatik Gasteiz aldera abiatzen ziren, eta bertatik Burgos, Medina del Campo eta beste hainbat hirietara.

Bide hori, batzuetan, euskaldun mandazainak egiten zuten. Beste batzuetan, Gaztelako merkatari aberatsak arduratzen ziren burdin bila Gasteizera etorriz. Honen adibide esanguratsua da 1574 urtean gertatu zena. Merkatari horien aginduz, 70 gurdi bidali zituzten Gasteizera, han Seguratik mandabidez ekarritako tresneria jasotzeko. Haientzat denborak urrea balio zuen, eta mandoak berandu xamar zetozela ikusita, hau agindu zuten: 70 gurdi haiek Zalduondora bideratzeko, mandoak iritsi ahala gurdiak bete eta Gaztela aldera abiatzeko. Hau, noski, adibide bat besterik ez da, nolako burdin kopuruak mugitzen ziren jakiteko.

Oletan ikatz asko erretzen zen, baina basoak ezin zezakeen behar adina eskaini. Burubide bat aurkitu behar zen ikatz gabeziari aurre egiteko. XVI mendeko laugarren hamarkadan arazo horri aurre egiteko aurkikuntza baten berri izan zuten olagizonek eta, noski, merkatariek. Ba omen zen “Ginovesa” izena hartu zuen berrikuntza bat, Italiatik Auñamendiko mendi inguruetara iritsi zena. Esaten da euskaldunak ez zeudela aldaketak onartzeko prest, baina kasu honek ere erabat zapuzten du esames hori. Aldaketa ez zen merkea, baina lanerako ohi baino ikatz gutxiago behar zenez, “Ginovesa” sistema hori urte gutxi barru ia ola guztietan sartu zen. Zertan zegoen aldaketa? Asmakizun horren bidez, haizea era eraginkorrean bideratzen zen burdina egiten zen zulora, kobrez egindako, eta ez burdinez, tobera edo haizebide berri batez. Berehalaxe ohartu ziren askoz ere ikatz gutxiago behar zela, eta hurrengo urteetan hauspogileek kobrezko tobera hori jartzen hasi zitzaizkion hauspoari.

Harrigarria da ikustea zein aberatsa eta anitza zen kanpora bidaltzen zen tresneria. Gainera, tresna bakoitzak ezberdintasunak agertzen ditu. Iltzeak, adibidez, neurri asko eta mota desberdinekoak ziren, bakoitzak aparteko zeregina zuen neurrian.

Zer esanik ez, ia herri bakoitzak bere ekoizpen berezitua zuen. Seguran, adibidez, oso ezagunak ziren “fierro carretil” izeneko llantak, gurdien gurpilei kanpotik jartzen zitzaizkienak; Arrasatera, berriz, Europa guztitik etortzen ziren bere altzairua erostera, eta erregeek eskatzen zuten suzko armen giltzak derrigorrez “del acero de Mondragón” izan behar zutela; Azpeitin oso ezagunak ziren Portugalera bidaltzen zituzten hainbat neurritako goldeak; Gerrikaitzen guduetan gorputza babesteko erabiltzen zi-



Turtukoi hidraulikoak Villarreal de Berrizen arabera (1730, Bigarren liburua).

ren petoak eta “espalderak” egiten ziren; Oñatiko sartagiak oso estimatuak ziren Gaztelan; zer esanik ez, armagintza mailan, Deba arroako Elgoibar, Eibar, Soraluze eta beste batzuetan egiten ziren suzko armak.

Honekin lotuta, duela gutxi ikertu dugun *Juan Sebastian Elkano: Ingurua, ibilbidea, epika* liburuan suzko arma erraldoiak (kainoiak) zein tokitan eta nolakoak egiten ziren deskribatu ditugu. Ez ziren bakarrik ekoizten barrualdeko toki ezagunetan, baita itsasertzeko herrietan ere. Horrela, itsasontziak babesteko bonbardak Orion, Deban eta Zarautzen egiten ziren, esaterako. Horrek sekulako ospea ematen zion euskal untziteriari. Eibarren, berriz, bonbardagileen “monokultiboa” bezalako zerbait zegoen, hartzen zituen eskaerei erantzun ahal izateko. Ez da ahaztu behar, harrigarria bada ere, Ingalaterrako erregeak bonbardak enkargatu zituela epe labur batean.

Hori baldin bada “herri itxi eta iluna” izatea, edota aurrerakuntzekin ezkor jokatzea... ikuspegi hori ez dagokio Euskal Herriari, garbi ikusten denez. Idazle batek esaten duenez, garai hartako euskaldunak alde guzietan agertzen ziren, eta hitz hauekin bataiatu zituen: “buhoneros del mar”. Beren hizkuntza ofiziala, batez ere idazteko, gaztelania zen, baina beren arteko harremanetarako, euskara.

Kanpora begira bizi zirela? Hori bai dela euskaldunei zegokien argazki aproposa. Bestela, horra hor Europan, edota Ameriketan, euskaldunen presentzia zein garbia eta garrantzitsua izan zen. Hona adibide batzuk:

- Arrasateko merkatariek Nantesen zeukaten bere etxea, eta altzairuarekin ateratako dirua hain preziatuak ziren arropak erosten edo trukatzen zituzten
- Azpeitiak harreman estua zeukan Portugaleko merkatari ospetsuekin eta, adibidez, merkatari horiek Azpeitian agertzen ziren golde desberdinen neurriak paperean marraztuta, gero burdinezkoak egiteko.
- Miguel de Veroiz, donostiako merkatariak, Huescako Bielsa herriko ola batera bidaltzen du teknikari gipuzkoar bat burdingintzan laguntzeko.
- XIV eta XV mendeetan Brujas, La Rochelle, Londres, Bristol eta Gaztelako hainbat herrietan nabaritzen da euskaldun merkatarien presentzia.
- Hemengo merkatariak itsasoko neurri eta legeak markatzen zuen araudietan erabat sartuta zeuden: konpañia, itsas-mailegu edo “préstamo marítimo”-etan, adibidez. Benetan merkatari profesionalak ziren.
- Ipar Europan eta Mediterraneoan “fundaco” edo euskaldun merkatari taldeak agertzen dira. Hiri horietan auzune berezietan bizi ziren, elkarri lagundu, indar handia erakutsi eta beste herritarren errespetua irabaziz.
- Euskaldun merkatari ospetsuen sendiek bere semeek kanpora bidaltzen zituzten, merkataritza eta hizkuntzak ikastera. Horrela, baziren lau edo bost hizkuntza zekitenak, eta Europan erabat eroso sentitzen ziren.
- Harritzekoa bada ere, Nantesko merkatari batzuk Euskal Herrira bidaltzen zituzten beren semeak. Zertarako? Bilbon, Gasteizen edo Arrasate bertan ez bakarrik merkatari ikasketak, baizik eta euskara eta gaztelania ere ikas zezaten.
- Atzerrian euskaldunen presentzia kontuan hartzeko hona hemen beste bi adibide: Juan de Idiakez Genobako enbaxadorea zen eta Olazabal Veneziakoa.
- Sevillan, “Casa de la Contratación” etxeko burua Juan Martínez de Recalde zen. Berari esker, neurri batean, Elkanok Molucaseko bidaian parte hartu zuen. ■

HITZEN HISTORIAZ: BURDINA ETA BESTE

Ander Ros

0. BURDINA, FILOLOGIA ETA LEGAZPIA

Mende laurden bat zaharrago itzuli naiz Legazpira. Orduan, Jose Luis Ugarte lagun ezagutu berriaren eskutik egin nuen, Gerard Bähren heriotzaren 50. urteurrenaren karietara buruturiko ekitaldien barruan. Orain, 27 urtegarrenean, berriro ere luxuzko anfitrioi beraren esku, gure adiskidantza sendotuta. Ohore handia izan zen ordukoa eta ez txikiagoa oraingoa. Mila esker bihotzez, Jose Luisi, Aitor Aspiazuri eta Burdinola Elkarteari oro har, burdingintzaren habietariko bat den honetara itzultzeko gonbitearengatik.

Dozena bat urte atzerago, ia 40 urte dela, Díez de Salazarrek Gipuzkoako burdinolen gaineko bere biografia mamitsuan, erronka bota zigun filologooi, ea gure diziplinatik burdingintza tradizionalaren jatorri ilunari argi pixka bat ematen lagundu ote genezakeen. Ia inork ez zion orduan gaiari heldu, harik eta Legazpin bertan Jose Luisek berak lehen hondar alea 2014an jarri zuen arte. Bitarte luze horretan, Agudek 1981an idatzi zuen saioa irakurri eta berrirakurri eta burdinolen inguruko lexikoa biltzen jarraitu besterik ez da egin.

Ez da abiapuntu kaxkarra, asko da egina dagoena nahiz eta Van Eysek *burdina* hitzaz idatzi zuen *ce mot est obscur* hura oraindik egia gordina den, ez hitz horretaz bakarrik, ezpada burdingintzaren inguruko lexikoaz oro har. *Burdina* hitzaren jatorriaz orain artean saiakera asko egin diren arren, oraindik argitzea lortu ez den gai baten aurrean gaude. Ez, alabaina, horregatik eta derrigorrean argigaitza, ez eta korapilotsuegia ere.

Zergatik ez da, baina, orain arte *burdina* hitzaren jatorriaz argirik piztu? Laster itzuliko gara erantzunak ematen saiatzera baina lehenago etimologiaren diziplinaz argitzapen batzuk egin beharrean gaude. Izan ere, emaitza edo arrakasta falta gaiaren zailtasunari berari baino gehiago metodoaren okerrari eta tabuen indarrari egotzi behar zaiela uste dugu.

"Biscaeyens plaetse" Bruggen 1562an, Marcus Gerards der Ältere-ren karta baten detailean

1. HIZKUNTZALARITZA HISTORIKOAREN ORDUA

Hizkuntzalaritza historikoa, euskararena bereziki, loraldia izateko abagune ezin hobean dago. Digitalizazioaren, big daten eta inteligentzia artifizialaren aroak, hitzen historia eta nondik norakoak modu osatuagoan trazatzeko orain arte pentsaezinak ziren baliabide gehiago eta hobeak eskaintzen dizkigu. Hizkuntzalaritza historikoak ere findua du bere metodoa azken hamarkadotan. Euskarari gagozkionez, aldi berean korpusak, bai lexikoak bai onomastikoak, etengabean ari dira hazten eta berauen irisgarritasuna handitzen. Haatik, etimologia, neurri handi batez lexikoaren (proto)historia dena, Lakarrak eta bere taldeak egiten dutenera mugatzen da.

Aurrera baino lehen, ondo adierazita utzi nahi dut *burdina* hitzaz arituko naizela bereziki, eta azalpenaren harira tartekatuko zaizkidan beste hitz batzuez. Burdingintza tradizionaleko lexiko oparoak, lehendik Larramendi eta Mogeli esker bereziki eta azken boladan Mertxe Urteaga, Iñaki Azkune eta Antton Mari Mitxelenaren lanei esker hobekixeago ezagutzen dugunak, aparteko lana eta metodologia eskatzen du, bilketa exhaustibotik hasi eta Europako beste herrialde batzuetakoarekin jarraitzeko. Horretan hasita gaude baina hurrengo urteotarako langintza izango da hori bukatzea.

Sar gaitezen, bada, gaurko gaian. Momentuz, aurre-lanetan.

1.1. ETIMOLOGIAREN LAU AROAK

Lau aro ezberdin bereiz daitezke hitzen jatorria aurkitzea xede duen eta etimologia deritzon diziplina honetan. Honek ez du esan nahi, haatik, etapa batean garrantzitsutzat hartuko diren elementu batzuk aurrekoetan banaka erabiltzen ez zirenik.

1.1.1. Etimologia filosofikoa

Etymon hitzak grekeraz 'benetako zentzua' esan nahi du. Hizkuntzak ahaideturik egon zitezkeela konturatu gabe zeuden orduan eta egin zitekeen gau-

za bakarra hitzen esanahiez hausnartzea zen. Mitoa zen benetako esanahi primigenio eta pristino hori eraikitzeko biderik behinena. Etimologia filosofikoa ere deitu izan zaio. Larramendi eta Astarloa ditugu, beren segizio guztiarekin, aro honetako eredu argiak.

1.1.2. Lehen konparatibismoko etimologia

Etimologiaren aro mitologikoak luzaz iraun zuen, harik eta konparatibismoak hizkuntza ezberdinetako hitzek jatorri komuna izan zezaketela frogatzea lortu zuen arte. Hitzen forma berreraiki zitekeen orduan. Gutxi ziren, ordea, esanahi bereko hitz ahaidetuak, mendeen poderioz formak ez ezik, esanahiak ere erruz aldatuak zirelako. Hitzak ez baina hitz erroak konparatzeak joko zabalagoa ematen zuen, konparazioa etereoagoa egiten bazuen ere. Aro honetan kokatu behar ditugu gure *burdina* azaltzeko egin diren saio guztiak. Funtsean, Agudek, Tovarrek bildutako materialak baliatuta, idatzia du hauen historia eta ebaluatu saioen ekarpena. Artikulua 1981ean argitaratua da eta harrezkerozko beste saio batzuk, baita oharkabean pasatu zitzaion bat edo beste ere, gaineratuta, hutsetik abiatu beharrean gaudela jakiteko balio du. Ez kaukasikoan (Fita, Unamuno, Bouda), ez bereberean (Gabelentz), ez sumerio-akadio-kamitiko-semitikoan (Schuchardt, Wölfel, Trombetti, Giacomino, Hubschmid, Bouda), ez zeltikoan (Fita), ez germanikoan (Fita), ez latinean (Schuchardt, Van Eys, Castro Guisasola, Corominas, Sealhom), ez indoeuropeoan (Bähr), ez euskara-iberikoan (Trombetti, Gorostiaga, Bouda), ez euskaran (Campion, Bouda, Gorostiaga, Holmer, Vennemann) bilatu dutenek ez digute zorroztasunez defenda daitekeen ezer aurkeztu. Aguden hitzek seinalatzen dizkigute arrazoizko eszenatokia eta lanari berrekiteko abiapuntua: “A pesar de todo lo expuesto nada medianamente probable puede deducirse. Ahora hien, la técnica del hierro, según sugerimos al principio parece importada y resulta problemático admitir una palabra autóctona para este metal si no se conocía el beneficiado del mineral”.

1.1.3. Semantika gehitu zeneko etimologia

XX. mendearen atetan, Saussureren *Cours* kaleratu baino lehenago, hizkuntzaren kontzepzio globalagoa gailentzen ari zen. Gabelentz, esaterako, zeinu linguistikoaren biartikulazioaz -*avant la lettre*- sinistuta zegoen eta etimologian zentzuari formari besteko garrantzia aitortzen zion edo handiagoa (1901: 218, 226). Orduan ez zen nahikoa hitz baten protoforma berreraikitzea, honen esanahia ere funtsezkoa baitzen. Aurrerapenak aurrerapen, neurri batean, aro honetako hasmentako inertziak kutsaturik daukagu oraindik euskal etimologiagintza. Esanahia eta kanpo historia lagungarriak dira baina ez dira beharrezkoak eta formarenaren mendean daude beti ere.

Lakarrak etimologia tradizionalaren atomismoa gogor kritikatzen du pre-proto-historiako monosilabismotik abiatuta CVC silaba kanonikoak bidea estu eta seguru markatzen digulako. Ezin uka daiteke bide horrek emaitza oparoak eman dituela baina hori bezain segurua da orokortze ia dogmatiko horrek ziurtasuna sakrifikatuta lan egiten duela maila semantikoa askotan inoratuz. Orokortzapen teorikoak baitezpadakoak dira baina hauek ezin litezke detaileko estudiorik gabe eraiki. Zientziari hainbeste emaitza funtsezko eman eta ematen dizkioten kasu estudioak gaitzestea da atomismo horri eginiko kritika. Elkarren beharrean daude biak, bide osagarriak dira nahitaez.

Gabi hitzaren adibidea argigarri gerta dakiguke. Hauxe da OEHak eskaintzen dion sarreraren hasiera:

> 1 **gabi**.
> *Etim*. Podría tratarse de un representante del lat. *cavea* .
> ***1.*** (V, G, AN; Lar, Añ, H), ***kabi*** (H). Ref.: A; Garm *LexEV* 268. Martinete (en las ferrerías). “Gavia, llamamos en bascuence a la viga grande del mazo en la herrería” Lar. “Sobre el yunque la *gabia,* que es una viga gruesa sellada con fuertes aros de hierro, en cuya punta está aquel martillón de cuatro o seis u ocho quintales” Lar *Cor* 67 (v. tbn. 65). “Mazo mayor de fierro, que en lengua vascongada se llama *kabi andia*“ (1791) *GoiBur* 253 (tbn. aparece la var. *gabi*).

Hauexek dira, berriz, Lewis & Short-en latin hiztegi zaharrak ematen dizkigun adiera soilduak:

> **căvĕa,** ae, *f. an excavated place, a hollow, cavity.*
> **I.** In gen. Hence, **II.** Esp. **A.** *An enclosure for animals* (cf. caulae), *a stall, cage, den, coop, beehive, bird-cage,* and the like, … Of *a birdcage,* … Of *a beehive*. Hence, **B.** *An enclosure about a young tree, in order to protect it from injury*; *a hedge before the windows of a cage*. **C.** In the human body. **1.** *The roof of the mouth*. **2.** *The sockets of the eyes*. **D.** *The part of the theatre in which spectators sat, spectators' seats* or *benches*; on account of the ascending rows of benches, ima or prima, *the seat of the nobility,* media and summa or ultima, *the seat of the lower classes*. **Meton. a.** (Pars pro toto.) *The theatre* in gen. **b.** *The spectators*.

Espainolezko *cava*, *cavidad*, *caverna, gabia, gaveta* (eusk. *Ganbela, kabia, habia*)… lexemek erakusten duten ‘barrunbe’ esanahi orokorraren ingurukoak eta hortik eratorriak dira denak ere. Ez dugu ezertxo ere kausitzen mailu tzarrarena egiten zuen egurrezko haga handi baten ideiara gerturatzen gaituenik. Hala ere, euskarazko *gabia* eta gaztelaniazko *ga-*

bia ahaideturik baleude bezala, latinezko *căvĕa*rekiko antz formal hutsak ekuazioa planteatzera darama OEHa.

1.1.4. Etimologia totala

Azkenik, etnolinguistika, soziolinguistika, linguistika kognitibo, arkeologia linguistiko eta beste diziplina batzuen etorrerak hitzen barne historiari kanpo historia gehitzea ekarri zuen. Herri hiztunen historia politiko-demografikoa batetik baina baita, eta bereziki, historia kulturala ere. Dena ezkondu beharra dago. Etimologia gogobetekorik izango bada, hitzaren historia holistikoa behar da, historiografiatik epigrafea eta zentzu zabalean kontzeptua ere maileguan hartuta: historia totala.

Hirugarren hanka bezala aurkeztu dugun zientzia etimologikoaren azken urrats hau bikoitza da gutxienez. Ez zien William Labov-ek aldaketa linguistikoari bere trilogian (*Principles of Linguistic Change*) liburu bakarra (1994) alferrik eskaini barne faktoreei, kanpokoei bi eskaini zien bitartean, faktore sozialei bata (2001) eta faktore kognitibo eta kulturalei bestea (2010).

1.2. BIDEKO BEHAZTOPARRIAK

Hauxe da lexikologia historikoaren marko teorikoaren gaingiroko begirada bat. Metodo etimologikoa horren barruan eraikitzen da. Testu zaharren faltan historia sozio-linguistiko-kognitibo mugatu eta urria da gurea, zertzelada soilez egin daitekeena. Zenbait tabuk eta sakon erroturiko aurreiritzik ere behar eta nahi baino malkarragoa egiten dute bidea.

Burdinari lotu aurretik, bi hitzekin ilustratu nahi dugu aipatu egoera harritsua: *zirar*[1] eta *zirar*[2], azkena burdinarekin zuzenean lotua.

Zirar[1]. Hona hemen *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*k ematen diguna laburturik:

► Mailegua dela proposatu izan da, mendebalde zabaleko zenbait hizkuntza indoeuroparretan aurki daitezkeen formekin konparatuz: cf. got. *silubr*, ing. zah. *siolfor*, eslav. zah. *sĩrebro*, lituan. *sidãbras*, etab. (*FHV* 316, 8. oh). Hurbilago, Botorritako brontzeetan dagoen zeltiberierazko ŚILABUR hitzarekin lotu izan da, eta 'zilar' esanahia zukeen.

Erabat bestelako aukera da euskararen barrenean azaltzea hitza, *zur*-en familia zabaleko hitza dela proposatuta. Formaren aldetik, haren *zir-* zein *zil-* alomorfoetatik abia gaitezke (ik. behean *zir*-en alde). Esanahiari dagozkion xehetasunak bigarren osagaiaz uste dugunaren menpe daude, baina aukera bat da, *zil-har* zatituta, bigarren partean *zunhar*-en ikusitako **har* erroa izatea; erro hori *arre*, *hartz* eta *harri* hitzen oinarrian dagokeela esan dugu. Horrela, 'zur arre, edo harriaren koloreko' batean pentsa genezake edo, hobeki, onarturik izenondo funtzioa *zur-* osagaiak betetzen zuela (cf. haren eratorri *zuri* 'zuri') eta 'harri' esanahia zukeen *-har* zela sintagmaren burua, 'harri zuri' moduko adiera batera irits gaitezke. Buckek dakarrenez, 'zuri' esanahia duten hitzetatik eratorri izan da 'zilar' hizk. indoeuropar zenbaitetan (s.v. *silver*). Nolanahi ere, hainbat eragozpen gainditu behar dituzte halako aukerek.

Bazterreko zenbait euskalkitan *-r-* izateak pentsarazten du berau zela jatorrizko hotsa (*FHV* 315-316); **zirhar*-etik, disimilazioz azalduko genituzke bai *zilhar* bai *zidar* (*FHV* 228). Azalpen hau hobesten du Mitxelenak, nahiz eta ziurtzat jotzen duen beste hizkuntzetakoekin lotu behar dela euskal hitza (*FHV* 316, 8. oh.), eta horietan *-l-* dagoen, Europa mendebaldekoetan bederen.

Denboran eta espazioan urruneko indoeuropearra (eslabiera zaharra, lituaniera…) aipatzen da oraingoan, baita zeltiberikoa ere, nahiz eta ŚILABUR forma behin baino testatua izan ez eta esanahia ustezkoa baino ez duen. Tartean, "gainditu beharreko eragozpenak" dituen baina guztiz baztertzen ez den **zurhar* 'zuri-harri' forma berreraikia postulatzen da. Hizkuntza indoeuropearren forma eslaboak eta baltikoak jartzen dira mahai gainean, besteak beste, ez menturaz jatorri hautuenekoak. Fonetikoki eta historikoki hurbilagokoak diren formak ez dira aipatzen eta kontraesanean fonetismo bat jartzen da: balizko etimoaren *-l-* albokaria batetik eta barne berreraiketak onetsiko lukeen *-rh-* dardarkari hasperendua bestetik. Benetan oztopo gaindiezina dena elementuen alderantzizko ordena lukeen eta bigarren elementu bezala forma osoaren ordez forma konposatua lukeen **zur-har* dugu. Euskarak emango zukeena **hartzuri* edo genuke, metatesi inedito batez forma postulatua eman zezakeena. Oraindik ere, testuinguru eta modu orokor horretan ineditoa litzatekeen *-u- > -i-* aldaketa beharko genuke. Zergatik ez, orain mende eta laurden bat Unamunok, Fitak edo Schuchartek egin bezala, fonetikoki hurbilagoak diren eskoz. *siller-*, ing. *silver*, al. *silber edo silbar*… formak proposatzea konparagai? Egia da hitzaren balizko bidaia justifikatu beharra dagoela. Betiere, gotoen lurraldeetatik egin beharrekoa baino errazago gerta daiteke Erdi Arorako jadanik indarrean zegoen Europa Iparraldeko itsas merkataritzari esker, kasurako.

JAN DE VRIES
ALTNORDISCHES ETYMOLOGISCHES WÖRTERBUCH
byrðr f. 'bürde, last', nnorw. byrd, bør; vgl. nisl. fǽr, byrði, nschw. börda, sdä. byrde. — > cekn. byrþi 'schiffslast', sbetl. birdek 'bürde'. — got. baurþei, afr. berde, mnd. borde, ahd. bürdī 'bürde, last'; daneben mit suff. erweitert ac. byrden 'last', as. burðinnia 'bündel', mnd. börde(ne) 'last'. — vgl. bera 3 und burðr.

"Byrðr" sarrera Jan de Vriesen hiztegian

Zirar[2]. Badugu aurrekoarekin nekez lot daitekeen beste *zirar* bat, Larramendik *zidar* formapean ematen duena. 'Burdin zepa, eskoria' esanahia duelarik, gure benetako hizpidera hurbiltzen gaitu. Honek ez du kentzen batak bestean eragina ez izana eta formen konbertsioa lagundu ez izana. Berdin pentsa liteke gr. *sideros* 'burdina' formaz, *zirar* biekin baitu erlazio semantikoa.

EHHEan bigarren adiera edo hitz honi aipamenik egiten ez zaion arren, zalantzarik gabe honekin lotu behar dira behintzat hiztegi honek dakartzan testigantza onimiko hauek: *Çirarrmendieta* (ArchDurII 1489), *Çirarrmendi* (ArchDurIII d.g.), Fortuno de *Çirarruysta* (AGVizc 1476). Nolanahi dela, **zilar** lema nagusiaren 2. adiera bezala azaltzen da gure **zidar** OEHan. Ugartek (2023) agerian utzi duen bezala, elementu lexiko hau ugaria da burdinolen inguruetako toponimian. Industria tradizional honi dagokion dokumentazioan ere, behin eta berriro ikusten ditugu *zidarzulo* (*-r-*) eta *zidartegi* (*-r-*) hitzak. Goian aipatu *Çirarruysta*, Dimako *Ziarrusta* auzoaren izen zaharra da zalantzarik gabe. Ola garrantzitsuak ziren auzoaren ardazgunea eta 600 metro gorago, Santuru auzo txikian *Zepazubi* dugu, Zirarruistako olak mugitzen zituen Indusi erreka zeharkatzen duen zubi ingurua.

Bada, *zidar* 'burdin zepa' *sinder*, *sindar*, *cinder sinter*, *sintar* … dugu hizkuntza germanikoetan, *-nd-* multzoa deseginda *sinner* ere bai, eta urrunago baino aurrekoekin lotuak *sędra* 'likido gatzatu', *sedra* 'kare hondar' eslaboak. Forma germaniko eta eslabo hauek momentu eta lekuren batean fr. *cendre* 'hauts' (< lat. *cinerem*) hitzaren kutsadura jasan zezaketen baina nekez esplika lezake erromantzezko hitzak Germania osoan barrena 'zepa' esanahi finkoarekin hedaturik dagoen hitza. Jatorria hori balitz ere, errazago argituko luke gurea, formaz eta zentzuz, jatorri erromantzegermanikoko fr. *cendre* > *sindar* > **sidar* batek, zuzeneko fr. *cendre* batek baino.

Bestaldetik, ez dago dudarik, gure (*tx)in(d)ar*, *xindar*, *txintar*… '1. txingar | 2. txinparta' ezin daitezkeela germ. *sindar*, *sintar*-etik bereiztu. Formaren aldagarritasunean eragina izan lezakete hots-sinbolismoak batetik eta *(tx)ilar*, *inar* hitzarekiko kutsadurak, bestetik. Gogora bedi *ilar* izena partzuer duten zuhaixka ezberdinak erregai tradizionalak izan direla, txinpart eta txindar iturri.

2. BURDINA ETA ONOMASTIKA

Adibide hauek hizpidera ekarrita, *burdina* hitzaren etimologian sartzeko atetan gaude baina onimiari gainberatu bat egin behar zaio lehenik, hitzaren aztarna zaharrik topatzerik bageneuka ere. Néstor de Goikoetxeak burdina (eta aldakiak) elementua osagai duten toponimoen bilduma bat prestatu zuen baina gaur egun erraz handitu eta zehaztu liteke.

Onimian, jakina denez, izenek ez dute esanahirik eta berraiketa formala baino ezin egin daiteke, zentzuaren makulua gabe (Mitxelena 1955). Onenean ere, erreferente estralinguistikoek edota esanahi preonimikoek eman liezagukete laguntzaren bat. Euskarri tinkorik gabe gabiltza, bada, J. Gárateren ustekizunari helduta, etimo lagungarririk izan gabe, *Urnieta* eta *Urnitza* nukleonimoetarako **Burnieta* eta **Burnitza* formak berreraikitzen. Knörrek (2000: 93, 41. oh.) eta Reguerok (2012: 112) interpretatzen dutenaren kontra, Mitxelenak (1955: §586), begi onez hartu zuen proposamena. Errenteriarrak aitortu bezala, arazoa ez da fonetikoa, hitz hasierako herskari ahostunen galera testaturik dagoelako hainbat kasutan. Mitxelenak aztertzen dituenez gain (*(b)uztarina*, *(b)uztarri*, *(b)otu*,…), holakoa izan daiteke Aiako *Urniola* domonimoaren kasua (*Hurniola* 1552), burdinola izan bide baitzen. Antzeko kasua dirudi Goizuetako *Urdinola*renak, hau XIV. menderako dokumentatua. Oiartzungo *Urdinola* 1499az geroztik erregistratzen da baina ez ola moduan nahiz eta erreka ondoan egonik, lehenago ola egon zitekeen. Berriatuko *Urdinoleta* baserriak ere ez; ez goikoak ez bekoak errekarik ez dute ondoan, eta izen horretako olarik izan bazen inoiz bertan, beste kokapen batean behar zuen. Beste kasu zahar batzuk, Berastegiko *Urdinarayn* (1450), *Urdinarrayn* (1535) eta Leaburuko *Hurdindegui* (1554) izan litezke. Gipuzkoa-Nafarroa mugaldean biltzen da izenik gehien.

Arazoa da herskariaren galera hori ez zela orokorra izan, orokorra izan balitz ez genukeelako *burdin(a)*, *burni(a)* eta *burnin* besterik lexikoan, aipatu leku horietakoan barne. Harrigarria litzateke testigantza zahar guztiak herskari galdutakoak izanik, edo etimologikoki hasierako herskaririk gabekoak, ondorengo ia denak herskaria berreskuratutakoak edo herskari protetiko bat bereganatuak izatea. Badirudi, gainera, herskariaren galera kasu batzuk modernoak izan daitezkeela, galera "historikoa" baino askozaz geroago-

koak izan ere. Zornotzan, *Burdintxueta* toponimoa *Urdinchueta* moduan dago jasota 1733eko dokumentu batean. Ez dugu Orozkoko *Urdinzubi* parajea ezagutzen (*Urdinsubi* 1814) baina mendi ingurua da eta bertako zubitxoa nekez imajina dezakegu garai zaharretan burdinaz eginik. Pentsatzekoa da *Burdinzubi* genuela Orozkokoa, Luzaidekoaren eta besteren baten izenkidea. Nolanahi ere, dokumentazio gehiago beharko genuke kasu hauek ebaluatu ahal izateko. Gauzak horrela, pentsatu behar dugu kasu batzuk herskaria galdutakoak direla, beste batzuk herskari protetikoa bereganatutakoak eta beste batzuk etimologikoak beren horretan.

Hala, *B*-dun forma zaharren bat testatu beharko litzateke berreraiketak egiantza izan lezan. Bestela, zaharrak diren lekukotza guztien kontra ari gara horrela jokatuz. Are gehiago, XVI. mendera arte dokumentatzen ez den ustezko mailegu baten aurrean gaudenean. Maileguaren forma zaharra, gainera, hurbilago bide dago *burdina*tik edo **burnina*tik *burnia*tik baino. Ba ote dugu erregistraturik, bestalde, arrastorik utzi gabe hitz hasierako herskari ezpainkaria galdu duen hitzik edo izenik? Berreraiketa horien justifikazio eta froga (zirkular) bakarra, bererraiketa bera da. Izan ere, baitezpadakoa zaigun froga bat eta bakarra dago: *B*-dun formaren bat testatzea.

N. Sánchez de Herrerok (1985: 363) *burdina* ikusi nahi izan zuen López de Guereñuk Doroñon bilduriko *Buurdiniga*, *Buurduniga* agronimoan baina bokal luzaketa nekez azal liteke. Izena, bestalde, XVII. mendearen bukaerarako dago testatua. Errazago ikusi behar dugu hor kontsonante baten galeraren ondoriozko bokal enkontru bat. Nahi gabe ere, *bururdin* '1. ileurdin | 2. burko' datorkigu berehala burura, baina zentzuz ez dirudi *-aga* agronimo baterako, hori baldin badugu, egokiena denik.

Europara begira jarrita, *Burdigala* dugu *burdina*ren aztarna ikusi nahi izan zaion nukleonimo zahar ezaguna (Gorostiaga 1951: 86, Lafon 1952). Galoaren bidez esplikatu ohi da baina ez da inondik ere jatorri argikoa. Lehen begi kolpean aurrekoarekin zerikusia izan lezakeen *Burdinal* erreka badugu Belgika frankofonoan baina Vincentek (1928: 27) izen txikigarria daramaten potatonimoen sail aberatsean kokatzen du. Izena *Burdinne* nukleonimotik hartzen du. **Burdinius* antroponimo ustez galo-erromaniko batetik Firenzako *Bordignano* (Polloni 1966) eta Loira departamentuko *Burdiniaco* (1061), egun *Burdignes*, atera bide dira. Antroponimoa, ordea, *Burdos* izen galoaren eratorritzat hartu izan da (Dauzat). Uzta urri eta antzu honi Humboldtek (1879) Vescitaniako *Burtina*, *Bortinae* batetik eta Lusitaniako *Burdua* bestetik gehitzen dizkio, hauek ere *burdina*tik etor zitezkeelakoan. Vidalek (2012: 147) azken hauen jatorri euskalduna gaitzetsita, Betikako *Burdoga* eta Traziako *Burticum* sartzen ditu zaku berean, *Burdigala*ri Liguriako *Bordaguera* modernoa parekatzen dion bitartean. Hau, alabaina, XIII. menderako *Burdigheta* genuen, oinarrian *bordigo* 'kanal edo zingira batean arrantza egiteko ihi-itxitura' dukeena (Gasca et al. 1990). Zerrenda gehiago luza genezake baina zein oinarri arinekin idazten den ilustratzeko aski da. Burdinaren benetako beste izenen batez osaturiko izenetan Frantziako *Izernore* dugu ororen gainetik ezagunena, Genevatik oso gertu. VIII. menderako *Isarnodori* izenaz azaltzen zaigu, latinez *ferrae ostii* glosatua (Dauzat & Rostaing 1979).


burden[1] 'a load' ME. *birthen* OE. *byrden* = OSAX. *burthinnia* 'burden'; cp. the equival. OHG. *burdî* G. *bürde*, ON. *byrdr*, GOTH. *baurþei*; all deriv. of the TEUT. √ *bḗr* in *bear*; cp. SKR. *bhṛti* = OIR. *brith* 'the carrying' and see *birth*.

ENGLISH ETYMOLOGY.

F. KLUGE AND F. LUTZ

STRASSBURG
KARL J. TRÜBNER
1898.

1898. urtean Friedrich Kluge eta Frederick Lutzek argitaratu zuten *English etymology* hiztegitik ateratako "burden" sarrera.

3. 'BURDINA' BESTE HIZKUNTZETAN

Nukleonimoaren aipatu testigantza zahar glosatua garrantzitsua da burdinaren galierazko baliokidea ezagutzeko giltza delako. *Isarno-* hau hizkuntza germanikoek mailegatua bide da: pzel. **isarnon* > *pgerm. *isarn* edo, protomundu abstraktoetan sartuta, funts komun zabaleko beste ale bat, nahiago bada: **isarn(o)*-. Hitz hau gehi latinezko *ferrum* eta grekozko *sideros* dira gure ingurura hurbildu direnak. Corominas euskarazko forma latinezkotik azaltzen saiatu zen baina ez zuen mailegua bideragarri ikusi, lehenago Uhlenbeckek ikusi ez zuen bezala. Seaholmek (1975: 447), aldiz, hauei entzungor eginez, euskaldunak Amerikatik gatozela frogatzeko baliatu nahi izan zuen *ferrum* > *burdin* "egokitzapena", Castro Guisasolak (1944) euskara hizkuntza indoeuropeartzat hartzeko baliatua zuen bezala. Hizkuntza eslabo guztiek, bes-

talde, **ghelezo* protoformatik ia aldentzen ez diren formak dituzte, iberikorako ordezkorik identifikatu ez den bitartean. Latinezko forma *ferra* hitzean dugu eta grekozkoa, latinaren bitartez, *siderurgia*, *siderita*, *sideral* eta holako izen teknikoetan. Aipatu azken adjektiboaren esanahi berezia, burdinaren jatorri meteoritikoaren sineskizunetik dator. Oraindik gai eztabaidatua den arren, nikel kontzentrazio nabariak dituen burdina meteoritikoa izan daitekeela dirudi, telurikoa izan daitekeen bezalaxe. Hizpidera ekarri dugu muturreko kontu hau Vennemannek burdinaren izena bide honetatik euskaratik Europa erdialdera zabaldu zela suposatu zuelako. Euskarazko *izar*-ek **isam(o)* etimo germano-zelta azalduko zuen, metalaren izarretatiko jatorria izenean markatuz.

Vennemannek ikusi uste izan zuen euskarak bete zezakeela azken glaziaziotik eta indouropearrak Europatik zabaldu biartean azken hauek desagertaraziko zituzten hizkuntzen lekukotza biziaren papera. Burdinaren eta zilarraren izenetarako berak planteiaturiko eszenatokia paradigmatikoa zen: Europa erdialdeko hizkuntza familietako izenek ez zuten gainerako beste familietakoekin loturarik; ez ziren, beraz, izen indoeuropearrak eta zirkulua modu perfektuan ixten zen izen hauen jatorria bizirik iraun duen hizkuntza aurre-indouropear bakarrean aurkituta. Pentsatzen zuen Vennemannek maileguen norantza egokia ulertzean zegoela gakoa baina aldi berean jakitun zen putzu sakonegian sartzen zela eta indulgentzia eta ulerkortasuna eskatzen zituen aldez aurretik. Bazekien proposatzen zituen etimologiek oinarri ahulak izan zitzaketela. Ahalegina, dedikazioa eta ausardia eskertu behar zaizkio hain karrera prolifiko eta arrakastatsuaren jabe izanda bide malkartsu eta ibilgaitz batetik abiatu zelako. Zorigaitzez, ez zuen asmatu eta euskarak hizkuntza txiki hartzailearen papera betetzen jarraitzen du ezinbestean, zilar eta burdinen izenen kasuan ere bai. Metal hauetarako hitz panindoeuropear komunik ez egotea metal hauen zabalkundearen kronologiak berak azaltzen du bestelako *ad hoc* alternatibetara jo gabe.

Baditu antzekotasunak Gabelentz herkidearen kasuak. Honek euskararen jatorri afroasiatikoa (kamitikoa edo hamitiko deitua orduan) eriden uste izan zuen, hizkuntza berebereena bereziki. Hortara, *burdina wezzal*, *uzel*, *wezzil* berebereekin alderatu zuen eusk. *b*- :: berb. *w*- soinu kidetasuna iradokiz. Ohartuki hartu zuen arriskua bere bizkar, metodo estandarra ordezkatuko zuen berri bat apailatu behar zela eta euskararen eta kamitikoaren historia linguistikoan sakondu eta aurreratu behar zela adierazita. Idatzia zuen lehenago ikergaiaren izaerak baldintzatzen zuela metodoa (1901: 181), baita ere, guztiz okertzeko arriskua eta guzti, ausardia beharrezkoa, eta hortaz eskertzekoa, dela zientzian (1901: 176). Indulgentzia eta ulerkortasuna, kasu honetan, iloba argitaratzaileak eskatu zituen (1894: iii), hil ondoko argitalpena izan baitzen turingiarrarena. Berriro ere, ustekizun handiak ustel gertatu ziren.

Ezertxo ere ez, beraz, gure *burdina*rekin edota *burnia*rekin aldera daitekeenik.

4. ETIMOAREN FORMAREN ETA ZENTZUAREN BILA

Arestian esan dugu hurbilpen formala lehenagokoa izan dela lexikologia historikoan. Hurbilpen semantikoa teorian formalaren maila berean jarri bada ere, oraindik ez dago benetako parekotasunik. Hurbilpen onomasiologikoa da behin eta berriro gailentzen zaiguna: halako kontzeptu edo adierazi bat, 'burdina' kasu honetan, hizkuntza ezberdinetan zein adierazlek ordezkatzen duten hartzen dugu beti abiapuntu. Horrek formak konparatzeko bidea ematen digu soilik. Inertziaz egiten den hautua da, nahikoa baita hiztegi elebidunak baliatzea edota hauek baliatuz aspalditik prestatu diren zerrendak zuzenean probestea. Horrela, zentzua aldatu duten hitz ahaidetuak fototik ateratzen zaizkigu, nahiz eta formaz identifikagarriak liratekeen. Ez zaigu burutik pasatzen aztergai dugun formak mailegu iturri potentzialak izan litezkeen hizkuntzetan lekukotzarik ote duen miatzea. Zailagoa da prozedura hau, jakina. Forma aldatua egon daiteke eta ondorioz bilaketa alfabetikoa, horrela baitaude ordenaturik hiztegiak, asko katramilatu.

4.1. FORMA ASMATU BEHARREAN

4.1.1. Mailegua edo hitz konposatua

Burdina eta *burnia* forma bakar batetik datozela eta forma hori patrimonialetakoa ez den uste komuna dagoela esan dugu gaingiroki, nahiz eta ikerlariek ez duten argiegi adierazten mailegua edo konposatua izan daitekeen (Lakarra 1998: 98, 114. oh., 2003: 300, 2006: 263; Trask 1997: 173, 249; 2008). Laburki esan daiteke hitz trisilabikoak maileguak edo hitz konposatu edo eratorriak direla euskaran, funts zaharreko hitz patrimonialak luzeenez ere bisilabikoak ditugula, alegia. Monosilaboak lehenagoko estadio batean, Lakarraren ustez. Ez dugu ezagutzen gure atzoko nahiz gaurko (Etchamendy) apologistek asmaturiko etimologia aurrezientifikoez landara, *burdina* konposatu edo eratorritzat azaltzeko saio seriorik. Mailegutzarena saihesteko alternatiba, *burdin* bisilabikoa primariotzat hartzea litzateke, *urdin*, *berdin*, *gordin*… hitzen pare jarrita. Trasken iradokizuna (2008: 20) hau dela dirudi: "Trisyllabic items are like disyllabic ones with an extra vowel added at the end", eta OEHak zailtasuna adierazten du: "resulta díficil establecer su evo-

lución”. Alternantzia hori duten hitz asko (*giltz(a)*, *buztin(a)*, *ginarr(a)*…) egonik ere, *burdina*ren eta *burnia*ren kasuan testigantza zahar guztiek *-a* erakusten digute. Askoz zailagoa izango zatekeen, gainera, bokalez bukatutako hitz batek, *burni* kasurako, *-a* bokal silabikoa *a posteriori* hartzea. *Burdina* edo **burnina*tik beharko zukeen *-a* hori, eta aldi berean, *burnia* aldaera zaharra baita, hauek ordurako bokal paragogikoa bereganatuta eta finkatuta. *Burdina* / *burnia* alternantzia bera ere aukera horren aurka mintzo da, ez baitute aipatu *-din* hitzek **urni*, **berni*, **gorni*… formetara hurbiltzen den aldaerarik bat ere.

Asimilazio kontsonantikoa zein bokalikoa jasotako formek modernoak dirudite eta arazorik gabe azaltzen dira. Ekialdeko euskalkien asimilazio bokalikoa ezaugarri dialektala da eta zaharragotzat eta orokorragotzat hartu behar dugu Bizkaian batez ere han hemenka ematen den *burrin(a*) > *burrun(a)* baino. Zeberio-Arrigorriaga-Zollon *Burriñebaso* zein *Burruñebaso* aldaera onimikoak daude bizirik, sarritan testatu baina zentzua oraindik asmatu ez diogun *burdinbaso* | *monte de hierro* apelatibo baten lekuko. Bestalde, *-rd-* > *-rr-* asimilazioa zabalduagoa dago Nafarroako hizkeretan baina ez bide da zaharra han ere. Bizkaiko Dimako *Burrinsolo* oikonimo modernorako *Burdinsolo* agronimoa dugu jasoa 1846eko dokumentu batean.

4.1.2. Forma ezberdinetarako protoforma komun bakarra

Protoforma eskura bageneuka errazagoa litzateke iturria bilatzea. Horrenbestez, etimo bat bilatu nahi badugu, hiru aldaera nagusiak azaltzen dituen forma komun bat bilatzea edo berreraikitzea da lehen erronka. Ataza ez da erraza aukerak asko baitira. Funtsean, bi alternatiba aztertu izan dira literatura linguistikoan, *burdina* eta *burnia* aldaerak primariotzat hartuta.

*Burdina*tik abiatuta ez da erraza *burnia* aldaeraren *-ni.a* sekuentzia azaltzea. **Burnina* forma asimilatu bat postulatu beharko genuke, ondoren bigarren sudurkaria galduko lukeena: *burdina* > **burnina* > *burnia*. **Burdinia* kuatrisilabo batetik abiatuta, berriz, *-di-* silabaren galera litzateke azaldu beharrekoa. Mendebaldeko *gazta(i)* eta *ard(a)o gazna* eta *arno* dira ekialdean, batzuk eta besteak **ardano* eta **gaztana* protoformetatik azalduak. Fenomeno bera genuke *burnia* hitzean baina bi kasu horietan ez bezala, ez genuke banaketa dialektal argi hori izango.

Barren | *barne* posposizioak, silaba galerarik ez baina metatesi soila erakusten digu, antzeko banaketa dialektalarekin. *Burrin*, *burdin*-en forma asimilatua dirudiena, eta *burni* hola esplika litzeke baina nekezago *-a* bukaera galdu gabe: *burrina* > *burnia* ? Izan ere, kontuan hartu behar da apokopeak silabazioa aldatzen duela guztiz: *bur-di-na* > *bur-din*. **Bur-ni-na* > *burni-a* bilakaeran, ordea, ez dago silabazio aldaketarik. *Burdĩa* ere badugu testu zaharretan eta nasalizazio marka galduta edo, baita *burdia* ere. Ezin gaitezke seguru egon, alabaina, bokal sudurreztatu bat dugun ala kontsonante sudurkaria gehi bokala adierazteko digrafo bat, bietatik izaten baita. Sudurkaria sekundarioa izan liteke baina Bizkaian bereziki baliatzen da sudurkaria elementu antihiatiko gisa: *txakolia* > *txakoliña*, *premia* > *premiña*, txikia > txikiña, *Orobio* > *Oromiño*, *San Antonio* > *San Antoñino*.

Burnia primariotzat hartuz gero, orokortu beharko genuke bigarren sudurkariaren garapena: *burnia* > **burnina* > *burdina*. Berez zaila dirudien orokortze hori, *buztina* hitzaren analogiaz erraz zitekeen. Ez da ahaztu behar *burdina* eta *buztina* hitzek, egitura silabikoz paraleloak izateaz gain, hitz bikote gisa edo hiztunaren gogoan hurbilekotzat funtziona zezaketela pentsatzeko arrazoiak badaudela. Buztina burdin mearen ohiko lagungarria da, baita honen fundentea eta burdina urtzeko labeen oinarrizko gaia ere. Maila kulturalean, zibilizazioaren endekapenaren mito grekoan, Bibliaren bidez gureganatua, burdina eta buztina ziren endekapenaren azken bi estadioak: Urrezko buruak zibilizazioaren urrezko aroa sinbolizatzen zuen bitartean burdinazko hankek eta buztinazko oinek aro lardatsena. Ezaguna da hitz bikoteen eragina maila fonetikoan eta are ortografikoan ere. Horrek esplikatzen du *noarrek*, *deakarrat* adizkien sorrera, *natorrek* eta *de(r)amat* bikotekiden analogiaz edo gure gazteen *heman* grafia zabaldua *hartu* hitzaren grafiaren irudira moldatua. Aukerak aukera, ez dirudi hau bide logikoena denik.

*Burrina*tik abiatzea ere posiblea litzateke, *-rr-* > *-rd-* fenomenoa gertatuta, baina berriro ere gurdia idien aurretik jartzen arituko ginateke, kontrako bilakaera bita ohikoa: *Fernando* > *Ferrando*. Goian adierazi bezala, *burrin(a)*, *burrun(a)* aldaeren zabalkunde dialektala eta testigantzen kronologia ere aukera honen kontra mintzo zaizkigu.

4.1.3. Erdibidean ote argia?

Bidegurutze honetatik ateratzeko badago beste bide bat ere, erdibidea hain juxtu ere. **Burnina* proposatu izan da *burdina* eta *burnia* aldaeren arteko zubia, norantza batean zein bestean (Mitxelena, Lafon). Ez da, alabaina, inoiz kontuan hartu **burnina* primario eta horrenbestez bi aldaera historikoen iturria izatea. Azken urteotan, 2015ean Azkunek Zestoako oletako lexiko aberatsa argitaratu zuenez geroztik bereziki, *burnin* formak konstrukto asteriskoduna izateari utzi dio. Forma ondo testatua da, testigantza zaharrenetarikoak dituen forma izan ere. *A burnin erdira* ‘burdina erdibana’ esapidea 6 doku-

mentutan jaso zigun (1538-1544), eta beste batean *vurninguela* eta *burninguela* (1544). XVIII. Mendekoak dira Mitxelenak Goizuetan bildu berri dituenak baina Zestoako *burningela* berresteaz gainera, *burninpara* eta *burninziri* berriak ematen dizkigu. Cándido izaguirrek *burnindai* 'pala de hierro para meter el pan en el horno' jaso zuen Altsasun. *A burnin erdira* esapidearena alde batera utzita, konposatuak dira beste lekukotasunak. Ez dakigu, beraz, *-a* tematikoa ezkuta dezaketen. Bermeoko ez aberastasun gutxiagoko monografia toponimikoan *Burnincurciaga* (1731) bildu zuten Uriartek eta Allikak, ahoz usuenik *Burdi-* moduan ezagutzen dena. Sudurkaria galdutako *Burdikotzá*, *Burdikotzeko lánda* formak lekuko banari jaso bazioten ere, sudurkaria mantendurikoak gehiago izan ziren, bere lekuan edo metatesiz hurrengo silabara transferituta: *Burdingotzá*, *Gurdinkotzá* baina *Burdikuntzá*, *Burdikontzá*, *Gurdikontzá*. Kasu honetan ere, konposizioan ageri zaigu *burnin*. Goizuetara itzulita, *Burniñe* domonimo eta *Burninpe* toponimo erreferentziala eta ondoko Aranon, paraleloki, *Burnin* eta *Burninburu*.

Argitaraturiko hitz eta toponimo zerrendak miatu beharko dira arreta handiz eta dokumentazio berriak zer eskaintzen digunari begira egon ere. Euskal Herri osoan barrena ezin konta ahalakoak dira munoei bereziki izena eman dieten -baina oro har berri xamarrak diren- burdin gurutzeak eta bestela ere *burdin-*, *burnin-, burni-*, *burrin-* elementua erakusten duten bestelako onimoak. Guztien artetik testigantza zahar argigarririk atera daiteke, aterako ahal da!

4.1.4. Protoforma hautuak

Ondorioz, esan daiteke errazena **burdinia* edo **burnin(a)* formetatik abiatzea litzatekeela baina hizkuntzen historian, are gutxiago lexikoarenean, aukera aurreikusiak ez dira beti gertatzen direnak. Bilaketak eta bilatuak bakarrik, hondarrean bilaturik balego, argi lezakete kontua. Aurrez berrerikitako protoforma horrek balio heuristiko hutsa dauka, bilaketan laguntzekoa alegia.

4.2. ETIMOAREN JATORRIZKO ZENTZUAZ

Zentzuaren aldetik, ez daukagu gauza handirik. Hizkuntza europearren protoformen etimologiek ez dute informazio aberatsegirik ematen. Metal eta brontze kontzeptuak direkteke hurbilenak baina hauek ere hipotesi mailan baino ez dira eman. Euskarazko haitz lat. aes, -ris 'kobre, brontze' edo skt. 'ayas 'burdin, metal' hitzekin parekatu izan da baina arrazoia dute Holmerrek (1950: 405) eta Traskek (1997: 370) hurrenez hurren diotenean "demasiado atrevido" eta "It is therefore difficult to see why this comparison has attracted so much attention".

Kolorea ere izaten da metalek izena bereganatzeko motibazio errekurrente bat baina arlo honetan ere ez daude kontuak argiegi. Burdinaren kolorea beltza dela esan izan da, ingelesezko *blacksmith* 'errementari' gogoan, baina burdinaz baino gehiago ikatzez belzten ziren errementariak. Ez dugu urre beltzik, ez denbora historikoetan bederen, urre zuria edo urre gorria ditugun bezala. Gorriarekikoak aztarna ugariago utzi du toponimian, burdin meak batez ere, *Iturrigorri(eta)* ugariak lekuko; lexikoan odolaren metafora lagun, *hematita* edo *hematites* mineralaren izenean, kasurako. Kolore diztiratsua ere postulatu izan da *burdina*rako (Uhlenbeck, Bähr) baina ezin esan daiteke burdinak beste metalek baino diztira handiagoa duenik. Urdinarekin ere identifikarazi nahi izan da (Gorostiaga 1951: 86) baina *ad hoc* eginiko azalpen hutsa izan da urdin kolorearen izenaren antzarengatik. Burdinaren eta batez ere honen klase bat baino ez den altzairuaren ezaugarririk behinena gogortasuna izan da historikoki, aro kultural bereko brontze lehiakidearekiko nabarmenago. Ez dugu ezagutzen, aitzitik, motibazio semantiko honek inongo izenetan utzitako arrasto argirik.

Metonimiaz metal honetako objektuei metalaren izenaz izendatzea ohikoa da kultura guztietan. Armak generikoan, ezpata, pistola, plantxa, ferra, *toccare ferro* 'tocar madera, knock on wood' italierazko esapidean. Urteren gramatikan *suburdignac* 'chenets' dira, tximinian egurrak jartzeko tresna parea, alegia (Lakarra 1994). Berdin, materialaren ezaugarrietatik abiatuta, pisu, garrantzi, espainolezko *quitar hierro a un asunto* esapidean, edo Gerra Hotzeko *eiserner Vorhang* , *iron curtain* alemanez eta ingelesez espainolez *telón de acero* izan zena. Erabilera erretorikoak dira hauek, ikusi bezala esapideetan eta lexia edo kolokazioetan finkatuak. Lexikoaren diakronian ere badu metonimiak bere bidea eta garrantzia.

4.2.1. Esanahi ordezkapena: Metonimia

Esanahiaren lerradura dugu hitzen esanahia aldatzeko beste prozedura arrunt bat. Metonimian kontiguitate edo ondokotasuna izaten da faktore garrantzitsu bat. Lockeren eta Humeren asoziazionismoak ere hauxe aurreikusten zuen, ideiek hauekin nolabaiteko antza edo kontiguitatea erakusten duten beste ideia batzuen agerpena errazten dutela alegia (Elvira 1998: 36, 2015: 31-32). Berdin gertatzen da trans-semantizazioan. Esanahi kontestualak, ondokoak baina sekundarioak alegia, gailentzen direnean gertatzen da aldaketa. Esanahi lerradura hauek ez dira nolanahikoak eta hizkuntza askotan errepikatu ohi dira. Lege fonetikoak ez bezala, ez dira prediktagarriak baina bai erraz antzematekoak. Trans-semantizazio hauetan motibo izendagarrien berrinterpretazioa ere jazo daiteke. Hori gerta zitekeen *Etzegarate* famatuan eta holako

"Hansako Ligako hiri nagusien mapa"

hainbatetan. Nik neuk, Bilbaoko *Seberetxe* auzoan dut etxea, lehenago *Zeberitxa* zen baserri auzoan. *Etze*-edo (-*itxa* >) -*itxe etxe* dela pentsatuta, esanahi galdutako edo ilundutako sekuentzia aldarazten da, bereziki inguru horretan etxerik baldin badago.

4.2.2. Berrinterpretazioa

Azkenik, berrinterpretazio formala nahi dugu aipatu. Jatorri-hizkuntzako hitz batek edo hitz zati batek xede-hizkuntzaren iragazkitik pasatzean azken honek dituen osagaien arabera berrinterpreta daiteke. Onimietan ehunka adibide ditugu. *El-*, *La-* hasiera duten euskarazko izenen sekuentzia hori gaztelaniazko artikulutzat interpretatzeko joera handia da. Adibide soil bat jartzearren, Barakaldoko dokumentazioan jaso genuen *El Cano* antroponimoa gogora dezakegu. Ez zen, jakina, ilezuridun baten izengoitia, *Elkano* deiturako gizona baizik. Euskarazko, -*a* artikulua femenino markatzat hartu izan da sarri gaztelaniaz eta maileguak femeninotzat hartu eta espezializatu: *gangarra*, *mutxurdina*… Antzera arabierazko artikuluarekin eta abar. Hitzen arteko antzekotasunaek ere kutsadura edo gurutzamenduak eragiten dituzte, forman elkarri eraginez.

Hitz osoa ere izan daiteke hizkuntza ezberdinetako hiztunen arteko komunikazio zailtasunaren fruitua. 6.3. puntuan metonimiatzat aurkeztuko duguna honelako berrinterpretazio batetik sortu zitekeen.

Hizkuntzaren barneko eta hizkuntzen arteko dinamika arruntak dira hauek guztiak. Gero eta argiago ikusten da hizkuntzalaritza historikoan aldaketa linguistikoa neurri handi batean mezuen kodifikazio eta dekodifikazko prozeduran gertatzen den desdoitze batetik sortzen dela (Elvira 2015: 15). Lagungarriak egingo zaizkigu etimoak diskriminatzeko orduan.

5. ESPAZIOA ETA DENBORA

Etimoak bilatzeko formaren eta zentzuaren esparrua definitu dugu luze-labur eta luze-zabal. Orain, bilaketa eremuez zerbait esan beharra daukagu, berau denboran eta espazioan akotatze aldera.

Burdina, zalantzarik gabe, lehen mailako objektu kulturala izan da mundu osoan barrena azken bizpahiru mila urteko historian barrena. Fluxu kulturalek bidea erakusten digute hizkuntzaren historia berreraikitzen saiatzen garen hizkuntzalarioi baina ezin dira absolutuak izan. Behin eta berriro errepikatu izan da ez dagoela hizkuntza indoeuropearreko familia ezberdinetarako burdinaren izen komunik, hizkuntza familiak burdina ediren baino lehenago banatu zirelako. Burdina Europan zeltiarrei esker edo zeltiarrez geroztik zabaldu zela ere askotan errepikatu da baina honek ez du esan nahi hitz zeltiarra metalarekin batera zabaldu zenik, eta gutxi asko zabaldu bazen, teknikak hobetu zituzten herriak etorri ziren gero eta horiek izenak ordezka zitzaketen, erromatarrak izan, germanoak izan edo beste batzuk izan. Non eta zein begiz miatu behar dugun aukeratzen laguntzen digu historia kulturalak. Corominasek idatzia du arrasto erromatarrak bilatu nahi izanez gero, Tiberren egokiagoa dela Gangesen egitea baino. Honi gaineratu beharko litzaioke arrasto horiek bilatzeko mesozoikoan edo paleolitikoan ez, baina erromatar inperioa zabaltzen hasi zenez geroztiko eszenatokietan egin behar dugula, eta ez hain urruti segurki. Hau begien bistako egia inozoa den arren, lexikologia historikoan gehiegitan saihesten dugu.

Horrexegatik, *post quem* xede bat finkatzeak, gutxi gorabeherakoa bada ere, asko lagunduko digu bilaketan. *Ante quem* xedea argia da, gure kasuan aztergai dugun *burdina*, *burnin(a)*, *burdia* hitza lehe-

nengoz testatzen den momentua. Esanik geratu den bezala, hitz honen agerpena berantiarra da, ez dugu horren arrastorik Erdi Aroan. *Ex silentio* argudioaren pisua erlatibizaturik ere, adierazgarria da hain kontzeptu oinarrizkoa XVI. mendera arte euskal izen batez testatu ez izana. Horrek adieraz lezake mailegu berantiar baten aurrean gaudela. Bilaketari ekiteko, Behe Erdi Aroan burdingintzan eman zen berrikuntzan eta hazkundean pentsa genezake, atzerago joan beharrik gabe. Zeltak aspaldi desagertuak ziren eszenatoki horretatik, bazter batean zokoratuta. Frankoak eta bisigotoak aspaldi erromatartuak. Arabiarrak penintsulatik antzina erauziak eta iberikoak ahanzturatik ere ezabatuak. Garai historikoak, auzokideez gain, espazio geografikoa ere akotatzen laguntzen du. Behe Erdi Arokoak erdialdeko eta iparreko Europara begira jartzen gaitu beste inora baino areago, penintsulako erreinu ezberdinak ahaztu gabe. Monarkien eta elizen Europa zen hura. Begirada kontua zela genioen. Begirada pausatuagoa behar da, zoliagoa eta hurbilagokoa, burdinaren kasuan protohistoriara jo gabe.

6. BI ETIMO ETA ERDI MAHAI GAINEAN

Honetara iritsita, bi etimo posible eta ibilbide laburreko beste bat aurkeztu behar ditugu, ondoren bakoitzaren arazo eta onurak xehetzeko: *burnia* ‘burnizko koraza’ eta *burdinia* ‘zama, kargamentu.

Biek lukete testuinguru historiko, geografiko eta linguistiko bertsua: *Mare Britannicum* eta *Mare Germanicum* itsasoak eta *Hansa Teutonica* merkatal elkarte boteretsua. Hizkuntza germaniko ezberdinak egiten ziren eremu zabal hartan. Badakigu batzuek egoera hegemonikoa zutela, beste batzuk egoera diglosikoan zeuden bitartean. Hizkuntza franko ezberdinak irudikatu behar ditugu, baita pidginak ere, euskara-islandiera lekuko. Gure maileguek batzuetan saxoi zaharreko edo ingeles ertaineko hitzak dituzte antz handieneko edo hurbil ustekoenak baina ez du horrek esan nahi zehazki jatorri hori zutenik. Hizkuntza franko horietako hitzak izan zitezkeen. Izan ere, daukagun informazio eskasarekin ez da erraza zehaztapen handiak egitea. *Hanseatikoa* deituko diogu beraz hizkuntza germaniko iturri zehaztugabe edo neurri handiz ezezagun horri.

6.1. HANS. *BRUNNIA* ‘BURNIZKO KORAZA’ > EUSK. *BURNIA*

Armaduren oinarrizko atala dugu bularraldea estaltzen duena, *koraza* (Lazarraga), edo jatorri okzitanoa zuzenago islatzen duen *kuirasa* (Landuccio) maileguaz ezaguna gure artean, edo *bularre(ta)ko* neologismoa dirudienaz. Izen bi hauek beren laburrean nahikoa erakusten digute: eginda dauden materiala edo estaltzen duten gorputz aldea hartzen dute izengai. Larruzkoak bide ziren *koraza* terminoa hartu zutenak, bistan denez. Holakoetan gertatu ohi denez, metonimiaz, materialaren erreferentzia hutsa izan daiteke izendatu berriaren ezaugarria. Koraza berezi baten izenean argi ikus dezakegun bezala: “**Branka-burdiña** (B-b), codaste, coraza de hierro que tiene la lancha por delante, para afianzar la quilla” (Azkue). Hemen *branka* osagaia zehaztapen espaziala baino ez da, korazari berari *burdina* esaten baitzaio. Armen eta hainbat arma zehatzen metonimia ere bada burdina, ezpatatik pistolara.

Honelako jatorri bat onartzeko aurkezten zaigun lehendabiziko arazoa motonimiaren zentzua da. Aipatutakoetan, logikoa eta ohikoa denez, orokorra, materiala kasu honetan, objektu zehatza izendatzeko baliatzen da. Metalaren izena metal horretaz eginiko objektu batetik hartzea ez da ohikoa, metala objektuaren aurretikoa baita, besteak beste. Alde horretatik ez dirudi protoformarako hautagai aproposegia. Badira holakoak ere, ordea. Paperak papiroz egindako orrietatik hartzen du izena. Metaletara etorrita, kobreak, latinaren bidez jakina, jatorriari kasu eginik, Txipre irlaren izenetik hartzen du berea. Euskaraz, metal berari *tupiki*, *topinki* esan izan zaio, *tupin* ‘hiru hankako lapikotxo’ hitzetik, metal horretaz eginak zirelako. Eta arrazoi berberarengatik ‘burdinurtu, burdina karbonodun’ esanahia ere batu zuen. Brontzeari, aldiz, *txilinki* (Azkue *apud* Altube), txilin edo ezkilatxoen materiala delako. Pushkariovak (1998), iturririk aipatu gabe, *kanpaiki* ‘brontze’ gaineratzen dio zerrendatxoari. Esan beharrik ez dago, autore honek tupikiari ematen dion azalpena, bere laneko gehientsuenak bezalaxe, elukubrazio zoroa eta hitz jario hutsa dela. Ingelesez, ildo beretik, *bell-metal* ‘hard bronze’ dugu, kanpaiak egiteko brontze aleazio bat (Buchanan 1903: 16).

Tupiki, *txilinki*, *kanpaiki* lexiak *-ki* sufixuaren bitartez sorturiko eratorriak dira, *koraza* ere eratorria den bezala. Euskarak, alabaina, hitz konposaketarako joera handia duen hizkuntza izanik, ingelesaren pareko *bell-metal* edo gorago aipaturiko *branka-burdina* ereduen bidetik, inongo sufixurik gabeko hitzak balia ditzake metonimia iturri.

Brunnia, *brinie*, *brynia, byrne*... dugu ingeles zaharrean, *brunja* goi alemanera zaharrean... ‘corselet’ edo ‘cuirass’; *brunie*, *bruine* frantses zaharrean. *Burnia* izango genuke euskaraz zuzenik, arazo fonetikorik gabe, azaldutako metonimia lagun. Ondoren, *burnina*, *txakolia* > *txakolina* eredu, eta hortik sudurkarien disimilizazioz *burdina*. Hitzaz arduratu direnek aurreikusitakoa dugu, gainerako esplikazio handien beharrik ez, beraz.

Maileguaren balizko geografia eta zergatia aipatuak ditugu. Objektuaren motibazioa azaltzea falta da, ordea. Jose Antonio Azpiazuri entzun berri diogunez, Bizkaiko Gerrikaitzen egiten ziren burdinezko korazak Europara erruz esportatzen ziren. Ez dugu bestelako datu edo argudiorik korazen garrantzia eta hortaz maileguaren metonimiaren arrakasta eta bideragarritasuna agerian jarriko lituzkeenik.

6.2. HANS. *BURNING* 'GORI' > EUSK. *BURNIN*

Animaliak, baita zigor moduan pertsonak ere, burdin goriz markatzeko burdinezko erramintari *burning (branding) iron* deritzo ingelesez, *burn* (*brennian*, *brinnan*...) 'erre' aditzetik sortua. Goian proposatuaren antzeko metonimia batez *burning (iron)* > *burnin* izan genezake. Euskarazko forma zaharren *-a* bokala azalpenik gabe geratuko litzateke bide honetatik. Ez dirudi, gainera, erraminta honek berebiziko garrantzia har zezakeenik. Bere horretan utzi behar dugun bide itxia dirudi honek, beraz.

6.3. HANS. *BURDINNIA* 'ZAMA, KARGAMENTUA' > EUSK. *BURDINA*

Bati baino gehiagori pasatuko zitzaizkion inoiz burutik ingelesezko *burden* 'astun' eta gure *burdin* metal astunaren arteko antza eta harreman semantiko ez oso urrunekoa.

Goian esan dugu tradizionalki gogortasuna dela burdinaren ezaugarri bereizgarria eta ez astuntasuna, berau berunari baitagokio. *Burden*, ordea, 'zama, karga, kargamentu' da jatorriz eta *burthinnia* du etimoa.

Gatozen, bada, hizkuntza detailetara. Hitzaren espektro semantikoa bitxia du hitz honek. Jatorriz, 'eramana, eramaten dena' > 'kargamentu' > 'karga, zama' > 'zama handiko, astun'. Eramaten dena, kargamentua edo zama, umegai bat izan daiteke, sabelean eramana jakina. Horregatik esaten da animalia bat *kargatuta* dagoela edo emakumea *grávida* gaztelania formalean. *Embarazada* ere ez dabilkio oso urruti, sabeleko zama traba bat baita. *Birth* ingelesa jatorri berekoa da.

Koraza baten irudia.

Zentzuaren hedaduraz "a feudal obligation, a payment or service to one's feudal lord" (MED) ere bada eta burdinatan ordaindutako zerga irudika dezakegu, horixe baitzen gure *reja* famatua, kasurako. Bestalde, 'importance, significance; also, meaning, import' (MED), gaztelaniazko *quitar hierro a un asunto* esapidea gogora dakarkiguna. Esapidea oso iradokitzaile eta tengarria da baina ingeleseraz *burden*-ek 'burdin' zentzua ere hartu zuela pentsatu beharko genuke. Horren aztarnarik, haatik, ez dugu inon topatu. Gaztelanian 'importancia' > 'peso' > 'hierro' lerradura modu independente batean eman dela ondorioztatu beharko genuke. Tentazioak tentazio, bide honek euskararako ez digu balio. Nolanahi ere, denak lagun zezakeen ordezkapena errazten.

Kontuak kontu, sinpleena *iron burden* > *burden* 'burdin kargamentu' > *burden* 'burdin' metonimia postulatzea da. Gorago esan dugun bezala, komunikazio zailtasunetik sorturiko gaizkiulertzeak ere lagundu zezakeen prozesuan. Burdin kargamentu bat erreferitzeko, *kargamentu* soila baliatu dezakegu testuinguruak hala baimentzen duenean edo *burdina* soila:



Burdina gai oso ohikoa genuen, merkatari euskaldunen salgairik behinena menturaz, Europarekiko komertzio harremanetan, Jose Antonio Azpiazuk detaile handiz seinalatu berri digun bezala.

Dena laburbiltzeko, hau ez baita zehaztapen linguistiko teknikoetan murgiltzeko lekua, formari dagokionez, zuzenena eta argiena Douglas R. Harperek dakarrena hitzez hitz ekartzea dugu argiena.

> "a load, that which is borne or carried," Old English *byrðen* "a load, weight, charge, duty;" also "a child;" from Proto-Germanic **burthinjo-* "that which is borne" (source also of Old Norse *byrðr*, Old Saxon burthinnia, German bürde, Gothic baurþei), from PIE root **bher-* (1) "to carry," also "to bear children."

Detaile fonetiko interesgarria ere badakarkigu konpilatzaileak *-th-* > *-d-* aldaketa (*burthinnia* > *burdinnia*) XII. mendearen hasieran hasi zen. Gutxitan izaten dugun *post quem* muga argigarria.

Burdinia-tik *burdiña* izango genuke zuzenean eta **ardano* > arno *hitzean* gertatu bezalaxe, *burdinia* > *burnia*, bigarren silaba galduta. Gainerako ondoko garapenak erraz esplikagarriak eta ezagunak zaizkigu euskararen barruan.

7. SINTESIA ETA *DESIDERATUM*A

Kasu estudio baterako lerro nagusia batzuk aurkeztu ditugu. Proposaturiko marko geografiko-historikoa gutxi landua da baina emankorra gerta daiteke, bai burdingintzaren jatorriaren misterioa argitzen laguntzeko, bai euskararen historiari beste ate bat zabaltzeko.

Oraingoa abiapuntua baino ez da izan. Filologo eta historialarien arteko topaketa honek fruitu oparoak eman ditzakeelakoan gaude. Piztutako argia itzal ez dadin, hurrengoa buruan daukagu, lehengaiak eta erregaiak olan bertan. ■

8. BIBLIOGRAFIA

AGUD, Manuel (1981): "A propósito de BURDIN(A) 'hierro'", *ASJU* 15, 105-120.

AGUD, Manuel & TOVAR, Antonio (1990): "Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca VII", *ASJU* 24 (1), 111-202.

AZKUE, Resurrección María de (1905): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao &Paris.

AZKUNE, Iñaki (1915): "Zestoako burdinoletako euskal terminologia (1519-1544)", *BAP* 71 (1-2), 217-231.

AZPIAZU, Jose Antonio (2023): "Euskal burdingintza historikoa Europako kontestuan", *Txinpartak* 49

BÄHR, Gerard (1926): "Sobre el nombre del plomo en vascuence", *RIEV* 17, 20-21.

FAULKES, Anthony (ed.) (2007): *A New Introduction to Old Norse – Part II: Glossary and Index of names*, 4. ed, University College London: Viking Society for Northern Research.

BOUDA, Karl (1948): "Baskisch und Kaukasisch", *Zeitschrift für Phonetique und Allgemeine Sprachwissenschaft* 2, 182-202, 336-352.

—— (1954): "Beiträge zur Erforschung des baskischen Wortschatzes", *BAP* 10 (1): 3-37.

BUCHANAN, John F. (1903): *Foundry nomenclature. The Moulder's Pcket Dictionary*, London & New York.

CAMPIÓN, Arturo (1899): "Celtas, íberos y euskaros. Cap. V", *Euskal Erria* 40, 193-199 *et passim*.

CASTRO GUISASOLA, F. (1944): *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*, Madrid.

COROMINES, Joan (1980-1991): *Diccionano Crítico Etimológico de la Lengua Castellana*, Madrid: Editorial Gredos.

DAUZAT, Albert (1989): *Dictionnaire étymologique des noms de famille et prénoms de France*, Larousse.

DAUZAT, Albert & ROSTAING, Charles ([1963] 1979): *Dictionnaire des noms de lieux en France*, Larousse.

DÍEZ DE SALAZAR, Luis Miguel (1983): *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*, 2 vol. Donostia: Haramburu.

ELVIRA; Javier (1998): *El cambio analógico*, Madrid: Gredos.

—— (2015): *Lingüistica histórica y cambio gramatical*, Madrid: Síntesis.

ETCHAMENDY, Arnaud *et al*. (2018): *L'origine de la langue basque*, L'Harmattan.

FITA, Fidel (1879): *Discursos leídos ante la Real Academia de la Historia*, Madrid.

GABELENTZ, Georg von der (1894): *Die Verwandtschaft des Baskischen mit den Berebersprachen Nord-Africas*, Braunschweig.

—— (1901): *Die sprachwissenschaft; ihre aufgaben, methoden und bisherigen ergebnisse*, 2. ed., Leipzig.

GÁRATE, Justo (1951): "Interpretación de la toponimia vasca. Casos de aféresis y de síncopa, *Eusko Jakintza* 5, 45-56.

GIACOMINO (1891): "Delle relazioni tra il basco e l'antico egizio", *Estrato del Rendiconti del R. Istituto Lombardo*. Serie II, vol. XV, Milan.

GOIKOETXEA, Néstor de (1984): "Toponimia euskara", *Kobie (Serie Etnografía)* 1, 79-141.

GOROSTIAGA, Juan de (1951): "Los nombres vasco-ibéricos de los metales. Nueva contribución al estudio de la civilización ibérica. Estudio de paleontología lingüística", *Eusko Jakintz*a 5, 82-86.

HOLMER, Nils (1950): "Las relaciones vasco-celtas desde el punto de vista lingüístico", *BAP* 6 (4): 399-415.

HUBSCHMID, Johannes (1966): "Die asko-/usko-Suffixe und das Problem des Ligurischen", *Revue Internationale d'Onomastique* 18 (1), 35-72.

HUMBOLDT, Wilhelm von (1879): *Los primitivos habitantes de España: Investigaciones con el auxilio de la lengua vasca*, Madrid.

—— (1935): "Examen de las investigaciones sobre los aborígenes de España", *RIEV* 26: 499-552.

IZAGUIRRE, Cándido (1967): "Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU* 1, 45-97.

KNÖRR, Henrike (2000): "Justo Garate euskalari", in *Justo Garate*, Eusko-Ikaskuntza, colección Lankidetzan, 87-95.

LAFON, René (1952): "Sur une étymologie basque du nom *Burdigala*", *Revue Histoire de Bordeaux et du département de la Gironde,* II, 1, 307-310.

—— (1959): "Sur les noms du vin, du fromage et du lait en Basque", *BAP* 15 (2), 107-111.

LAKARRA, Joseba (1994): "Euskal hiztegigintzaren historiarako: III. Urteren gramatikako hiztegia", *ASJU* 28 (3), 885-914.

—— (1995): "Reconstructin the Pre-proto-basque Root", in J.I. Hualde, J. A. Lakkara & R. L. Trask (ed.), *Towards a History of Basque Language*, Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins, 189-206

—— (1998): "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.

—— (2003): “Hacia un nuevo paradigma etimológico vasco: Forma canónica, filología y reconstrucción”, *ASJU* 37 (1), 261-391.

—— (2006): “Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica”, *Oihenart* 21, 229-322.

LAKARRA, Joseba & MANTEROLA, Julen (2016): “Los estudios etimológicos vascos”, in Mariano Quirós *et al*. (eds.): *Etimología e historia en el léxico del español. Estudios ofrecidos a José Antonio Pascual* (Magister bonus et sapiens), Iberoamericana | Vervuert.

LARRAMENDI, Manuel ([1756] 1882): *Corografía o Descripción General de la M. N y M. L Provincia de Guipúzcoa*, Barcelona.

LEWIS, T. Charlton & SHORT, Charles (1891): *Harpers' Latin Dictionary. A New Latin Dictionary*, New York: Harper & Brothers Publishers | Oxford: Clarendon Press.

MITXELENA, Antton Mari (2020): *Goizueta inguruko burdinolak= Ferrerías alrededor de Goizueta : itxurak, datuak, dokumentuak eta hiztegia = imágenes, datos, documentos y léxico*.

MITXELENA, Koldo (1950): “Notas etimológicas vascas”, *Emerita* 18, 467-481.

—— ([1953] 1955): *Apellidos Vascos*, 2. ed., San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

—— (1977): *Fonética Histórica Vasca*, 2. ed. Donostia: Diputación de Gipuzkoa | Seminario Julio de Urquijo.

—— (1987-2005): *Diccionario General Vasco = Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao: Euskaltzaindia.

MOGUEL, Juan Antonio de (1881): *El Doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado maisu Juan*, Durango.

PELLEGRINI, Giovan Battista et al. (1990): *Dizionario di Toponomastica. Storia e significato dei nomi geografici italiani*, Torino: Unione Tipografico-Editrice Torinese.

POLLONI, Antonio (1966): *Toponimia romagnola*, Firenze: L. S. Olschki.

PUSHKARIOVA, S. F. (1988): “Primario y secundario en los nombres vascos de los metales”, *FLV* 79, 417-428.

REGUERO, Urtzi (2012): “Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik”, *ASJU* 46 (2), 63-160.

SÁNCHEZ GONZÁLEZ DE HERRERO, M. Nieves (1985): *El habla y la toponimia de La Puebla de Arganzón y el Condado de Treviño*,

SCHUCHARDT, Hugo (1913): “Baskisch-Hamitisch Wortvergleichungen”, *RIEV* 7 (3), 289-340.

SEALHOM, Charles H. (1974): *The Kelts and the Vikings*, New York: Philosophical Library.

SCHUHMACHER, W. Wilfried (1995): “Two more Uhlenbeck memories (an more Basque parallels)”, *FLV* 65, 421-430

TIEFENBACH, Heinrich (2010): *Altsächsisches Handworterbuch | A Concise Old Saxon Dictionary*, De Gruyter.

TORP, Alf (1919): *Nynorsk Etymologisk Ordbok*, Kristiania: H. Aschehoug & O. (W. Nygaard).

TRASK, R. Larry (1997): *The History of Basque*, New York: Routledge.

—— (2008): *Etymological Dictionary of Basque*, University of Sussex.

TROMBETTI, Alfredo (1925): *Le origini della lingua basca*, Estratto dalle Memorie della R. Accademia delle Scienze dell'Istituto di Bologna.

UGARTE, Jose Luis (2014): “Zepadiak eta toponimia | Los escoriales y la toponimia”, in M. Urteaga & J. L. Ugarte, *Erdi Aroko Burdin Arkeologia. Legazpi (Gipuzkoa) barrutiko zepadiak*, *Boletín Arkeolan* 17, 129-138.

—— (2023): “Leku-izenak mendiko burdinolen inguruetan”, *Txinpartak* 49

UHLENBECK, C. Cornelius (1903): *Beiträge zu einer vergleichenden lautlehre der baskischen dialekte*, Amsterdam: Johannes Müller.

UNAMUNO, Miguel de (1884): *Crítica sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*,

URIARTE, Bittor & ALLIKA, Irune (2007): *Bermeoko Toponimia*, Bermeoko udala.

URTEAGA, Mertxe (2002): “Glosario”, *Tratado De Metalurgia De Las Comisiones (segundas) De La R.S.V.A.P.*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 219-235.

VAN EYS, Willem Jan (1873): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris: Maisonneuve | Londres: Williams & Norgate.

VENNEMANN, Theo (2003): *Europa Vasconica-Europa Semitica. Part I*, Berlin & New York: Mouton de Gruyter.

VIDAL, Joan C. (2012): “El aquitano como lengua céltica (o vascones en Aquitania)”, *Nouvelle Revue d'Onomastique* 54, 129-175.

VINCENT, Auguste (1928): “Noms de cours d'eau diminutifs de noms de lieux [Spécialement dans le domaine français]”, *Revue Belge de Philologie et d'Histoire* 7 (1), 21-47.

VRIES, Jan de (1977): *Altnordisches Etymologisches Worterbuch*, 2. ed., Leiden: E. J. Brill.

WÖLFEL, Dominik Josef (1955): *Eurafrikanische Wortschichten als Kulturschichten*, Universidad de Salamanca.

ZUAZO, Koldo (2017): *Mendebaldeko euskara*, Elkar.

INTERNET

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehhe&task=home&Itemid=1193&lang=eu

Middle English Compendium (MED)
https://quod.lib.umich.edu/m/middle-english-dictionary

Online Etymological Dictionary (Douglas R. Harper)
https://www.etymonline.com/

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu-ES

LEKU-IZENAK MENDIKO BURDINOLEN INGURUETAN

Jose Luis Ugarte

Legazpiko meatze-barrutia deskribatzen den 1335. urteko agiri batean hiru, edo lau akaso, burdinola-mota aipatzen dira:

- ferrerías masuqueras
- [ferrerías] de maço de agua
- [ferrerías] de omes
- otros

Hauxe da testu osoa: *Que avemos ferrerías masuqueras e otras de maço de agua e de omes nos e otros en Necaburu e en Legazpia e en otros logares que labran la vena de Necaburu e de Hayzpuru e de Çamora e de Ocannu e de Barbaria*[1]...

Gainera, Goierriko leku-izen esanguratsuak ere zerrendatzen dira:

- *Necaburu* leku-izena bitan aipatzen da[2].
- *Legazpia*, *Hayzpuru*, *Çamora* (>1401, *Çavarain*), *Ocannu* (transkrizpio akatsa dirudi, berez *Otannu*, 1483an dokumentatzen den bezala) eta *Barbaria* izenak ere aipatzen dira, gaur egun ezagunak ingurumari horretan.

Mertxe Urteaga arkeologoak, pasarte horri erreparatuta, burdinola-mota desberdinak deskribatu zituen 1996. urteko artikulu batean (*Siderurgia medieval en Gipuzkoa. Haizeolas, ferrerías masuqueras y ferrerías mazonas*[3]). Haren ustez, "ferrería masuquera" izenekoetan burdina lortzea zen helburu eta, gerora, "ferrería mayor" izenez ezagutu ziren burdinolekin parekatu zituen. "Ferrería de maço de agua" izenekoetan, berriz, haren ustez burdina ijeztea edo laminatzea zen helburu eta, gerora, "ferrería menor" edo "ferrería tiradera" izenez ezagutu zirenen parekotzat jotzen zituen. "Ferrería de omes", azkenik, mendiko burdinola ez-hidraulikotzat jo zituen. Ondorio horietara heltzeko Arrasate eta Hernaniko burdingintzari erreferentzia egiten dioten agiri zaharretan oinarritu zen.

Esan beharra dago, dena den, "ferrería masuquera" 1290. urteko Segurako beste agiri batean ere aipatzen dela, era honetan: *E por les faser más bien e más merçed, tengo por bien que las ferrerías que son en Legazpia masuqueras que están en yermo que los fazen robos los malos omes e los robadores, que vengan más cerca de la villa de Segura que las poblen porque sean más abondadas e más en salvo…* (1290; Diaz de Salazar 1985: 12). Baina pasarte horretan ez dago argi hor adierazten diren "ferrería masuquera" izeneko burdinolak "ferrería de omes" izenekoetatik desberdinak zirenik. Gure iritzian, gero azalduko dugun bezala, "ferrería masuquera" terminoa oso generikoa da eta, besterik gabe, 'burdinola' adiera dauka.

Auzi hori alde batera utzita, lan honetan 1335. urteko agirian aipatzen diren hiru (edo lau) burdinola-mota horietatik bakarrean fijatuko gara, "ferrería de omes" delakoetan. Eta mendiko burdinola ez-hidrauliko deituko diegu hemendik aurrera, historian zehar ezagutu diren gainerako burdinola-motetatik bereizteko[4].

• Mendiko burdinola ez-hidraulikoak

Mendi inguruetan burdinolen aztarnak nabarmenak izaten dira, eskoria edo zepa pila handiak egon ohi direlako haiek egondako lekuetan. Prozesu metalurgikoaren ondoren geratzen diren hondakinak iza-

[1] Díez de Salazar, L. M., 1985. Colección dipl. del concejo de Segura (Guip.), Tomo I (1290-1400), Fuentes Doc. del PV 6, Eusko Ikask., Donostia: 24.

[2] Badirudi, lehenengoak eremu zabal bat izendatzen duela, Gabiria, Mutiloa eta Zeraingo goiburuak hartzen dituena. Eremu horretan 75 burdinola-hondakindegi topatu dira azken 30 urteetan. Bigarrenak, "la vena de Necaburu" izenak, esan liteke Mutiloako udalerrian dagoen Troi-Ollargan meatzegunea erreferitzen duela, meatze-gune historikoa hori izan delako. Esan beharra dago Necaburu izena ondorengo mendeetan Lecaburu (1547) eta Lencaburu (1577, 1597, 1622, 1766…) bilakatu dela. Gaur egun ez da erabiltzen edo, akaso, kutsatze fenomenoz itxuraldatutako *Bentaburu* izan liteke.

[3] Actas de las I Jornadas sobre Minería y Tecnología en la Edad Media Peninsular: [León 26 al 29 de septiembre de 1995, Colegiata de San Isidoro de León].

[4] Burdinola-mota honez gain, burdinola hidraulikoak ditugu, ibaietakoak eta goi-ibilguetan kokatutakoak, azken hauek gutxi ikertuak.

Mendiko eta ibaietako zepak (JLU)

ten dira. Legazpin aztarnategi horiei “zepadia” esaten zaie eta ahozko hizkeran bizirik dagoen izena da, inguruko herrietan ez bezala.

Eskoria edo zepa horien kanpoko aldea iluna, distiratsua eta kordoiez eratutakoa izan ohi da; kanpora begira ez dagoen aldea, berriz, zimurtsua. Gure egin dugu, horrela, Julia Simon ikertzaile katalan zenak erabilitako deskribapena[5].

Arkeolanek 2014. urtean argitaratu zuen liburuan[6] Legazpiko meatze-barrutian (Legazpi, Gabiria, Mutiloa, Zerain, Segura eta Zegamako udalerriak hartzen dituen 19 kilometro karratuko eremuan) 124 hondakindegiren berri ematen zen, baita haien deskribapen zehatza egin ere[7]. Aitortu behar da horrelako zepadi-dentsitatea duten alderdiak bakanak direla Euskal Herrian[8].

Kontuan hartu behar da, bestalde, mendiko burdinola ez-hidraulikoak meatzeetatik oso gertu eraikitzen zirela, aztarnek salatzen dutenez. Eta arrazoi sendoa zegoen horretarako, modu horretan material astuna garraiatzearen arazoa (mea garraiatzearen arazoa, alegia) minimizatzen baitzen. Ez hemen bakarrik, Europako beste hainbat lekutan ere berdin gertatzen zen (Vincent Serneelseek 1997. urtean argitaratutako *La archéologie de l’industrie du fer* artikuluan irakur daitekeenez[9]). Hori dela eta, meatze-barrutiek eta mendiko burdinola ez-hidraulikoen kokaguneek bat egiten dute gehienetan.

Arestian adierazitakoa garrantzitsua da konturatzeko mendiko burdinola ez-hidraulikoen inguruetako toponimian meatzaritzarekin zerikusia duten hainbat termino ere azaldu litezkeela. Dena dela, artikulu honetan ikerketa-eremutik kanpo utziko ditugu.

● Zepadi-eremuetako toponimia

Zepadi-eremuetako toponimian burdin-metalurgiarekin zerikusia duten terminoak topatu ohi dira, normala den bezala. Legazpi barrutiko meatze-barrutian bi motakoak topatu ditugu: prozesu metalurgikoan geratzen diren hondakinei erreferentzia egiten dietenak; eta burdinolei erreferentzia egiten dietenak.

[5] “En el caso de haber colado fuera del horno, la superficie superior, siempre oscura y lustrosa, es lisa o formando cordones (chorretones), según el grado de viscosidad; mientras que la cara inferior es rugosa, porque es réplica de las sinuosidades del suelo donde solidificó” (Simón 1997: 218).

[6] Ugarte, J.L. eta Urteaga, M., 2014, *Erdi Aroko burdin arkeologia. Legazpi (Gipuzkoa) barrutiko meatzeak.* Arqueología *del hierro medieval. Los escoriales del distrito de Legazpi (Gipuzkoa)*, Arkeolan 17.

[7] Gaur egun sei gehiago ezagutzen ditugu, guztira 130. Aitortu behar da, dena dela, 130 zepadi horietatik 6 desberdinak direla tipologiari eta kokaguneari erreparatuta, eta litekeena dela mendiko burdinola ez-hidraulikoak ez izatea.

[8] Iparraldeko Arrosa inguruan eta Bizkaiko Ezkerraldean ditugu, halaber, zepadi-dentsitate handiko lekuak.

[9] Les matériaux qui sont produits aux différentes étapes de la chaîne opératoire doivent être transportés d’un atelier à l’autre e pour finir, jusqu’aux consommateurs. Ce sont toujours les mines qui fournissent les minerais et doc le choix de leurs emplacements échappe en bonne partie à l’homme. Minimiser les transports des matériaux pesants a été un souci constant pendant le périodes anciennes. Pour cette raison, le minerai est généralement concentré a proximité immédiate de la mine. Pour le lavage, il faut pouvoir disposer de ressources en eau suffisantes. Dans la mesure où les bas fourneaux sont des installations relativement petites et autonomes, les ateliers de réduction seront volontiers placés à proximité des mines (Serneels 1997: 316).



Legazpi-barrutiko burdinolak: mendikoak, goi-ibilguetakoak eta ibaietakoak.

Hauek dira guk, ustez, topatu ditugunak:

- Burdingintzako hondakinei erreferentzia egiteko: “zepa”, “zirar”, “zamora”, “legar”, “eskoria”.
- Metalurgia-tailerra adierazteko: “masuka”, “malluka”, “makatza”, “baso”, “aizara”, “ol(e)a”.

Hurrengo ataletan termino bakoitza banan-banan azalduko dugu.

> Zepa

“Zepa” eta “zepadi” Legazpin bizirik dauden hitzak dira eskoria eta eskoria-pila adierazteko. Izan ere, zepa oso ugaria da, bai mendian, bai ibai ondoetan.

Horren adierazle da Legazpira bizi izatera etorri zen Inazio Retegi leitzarrak bizibidea hortik atera zuela urte batzuetan (1950 edo 1960. hamarkadetan). Kamioneta alokatu, mendira edo ibai ertzetara joan, goraino kargatu eskuz eta, ondoren, Errenteriako fundizio batera eramaten zuen saltzeko asmoz. Legazpiko baserritarrek ere ondo ezagutu eta sufritu zuten ugaritasun hori, soroetako zepa-harriak oztopo handia izan ohi zirelako laiatu eta goldatzeko garaian.

Legazpi-barrutiko toponimian ugaria da. *Zepadi* izeneko hiru leku desberdin ezagutzen ditugu, Legazpin, Zerainen eta Gabirian, eta *Zepategi* izeneko beste bat, Legazpin[10].

Esan behar da XIX. mendea baino lehenagoko agirietan ez dela jaso. Zaharrenak 1815. urtekoak dira. Ez dirudi, hortaz, hitz zahar-zaharra denik gure inguruan.

Goierritik kanpoko toponimoetan ere ikusi dugu, eta suposatzen dugu erreferitzen dituzten lekuetan zepak egongo direla, baina ez dugu konprobatu: *Zepamendi*, Dima-Zeanuri; *Zepamendi*, Goiain; *Zepalekua*, Dima; *Zepadi*, Hernani…

> Zirar

“Zirar” terminoa ere ugaria da Goierri Garaiko lekuizenetan ‘zepa’ adierarekin, eta konstatazio hori egiteko obserbazioan oinarritu gara. Ziurtatu dezakegu, hala, Idiazabalgo eta Legazpiko *Masukazirardi* izeneko lekuetan, Zeraingo *Zirardi* eta *Zirardipeatza* lekuetan eta Mutiloako *Zearbide* eta *Zearmuñoaldea* lekuetan eskoria-pilak daudela.

Mutiloako toponimoen kasuan esan daiteke kutsatze fenomenoa gertatu bide dela, alegia, jatorrizko “zi-

[10] Artikulu honetan aipatuko diren toponimoak, bai eta haien ahozko aldaerak eta aldaera dokumentalak, oraindik argitaratu ez den toponimia datubase batetik atera dira. Bi iturri ditu oinarrian, urteetan informatzaile askori egindako elkarrizketak eta artxiboetan egindako hustuketa dokumentalak.

rar” forma “zear” bilakatu bide dela denborarekin, lehen esanahia galtzean.

Gure mugetatik kanpo ere ugariak dira “zirar” osagaia izan dezaketen leku-izenak (Abadiñon, Urrunagan, Legution, Asparrenan…) eta gehienak gainera meatze-barruti ezagunen ondoan daude, baina ez dugu konprobatzerik izan eskoria-pilak dauden lekuak diren ala ez: *Ziertzia*, Abadiño; *Zierzubi*, Urrunaga; *Ziraolatza*, Legutio; *Zirauntza*, Asparrena…

> Zamora

Zamora izeneko bi lekutan eskoria-pilak daudela segurua da: Legazpi-Mutiloa-Zerain udalerrien artean dagoen *Zamora* lekuan (*Zabarain* modura ere dokumentatzen da eta gaur egun *Zaroain* eta *Zarabain* ahoskatzen da); eta Irungo *Zamora* baserri inguruan (200 metrora eskoria-pilak ezagutzen dira).

Nuarbeko *Zamao* baserria (*Zamora* jatorriz) *Olaetxea* izeneko burdinola zaharretik 200 metrora dago gutxi gorabehera eta, horregatik, garai batean inguruan zepak egotea oso litekeena da. Gaur egun, hala ere, ez dugu topatu.

Zamora izeneko beste hainbat lekutan ere zepa-pilak egotea ez da baztertu behar, erreka ondoan daudelako eta inguruan burdinolaren bat egon zitekeelako (Amurrio, Ormaiztegi), burdingintzak tradizio handia izan duelako (Markina-Xemein), meatze-barrutiak ondoan dituelako (Legutio)…

“Zamora” terminoaren atzean “zirar” eta “mora” hitzak egon litezkeela iruditzen zaigu, “harmora” terminoan “harri” eta “mora” ditugun bezala, ‘pila’ adierarekin[11].

> Legar

Ez dugu inon irakurri “legar” terminoak ‘eskoria’ adiera duenik, baina toponimiak hori erakusten du behin eta berriro. Gabiria eta Zeraingo *Legorburu* izeneko lekuek oso garbi, aspalditik “legor” azaltzen bada ere, eta ez “legar”. Biek baserri banari egiten diete erreferentzia eta biak zepadi handien aldamenean daude. Bata zepadiaren gainean eta bestea zepadiaren azpian. Ez dirudi kasualitatea denik. Toponimoaren “-buru” osagaiak bi kasuetan ‘muino’ edo ‘pila’ adiera izan beharko lukeela ematen du, eta ez “leku garaia”. Akaso, “muru” hitzean du jatorria.

Oiartzungo eta Irungo *Legartxipia* eta *Legarrea* izeneko parajeak zepadiak inbentariatu diren inguruneetan daude, eta oso litekeena da jatorria hori izatea.

Zeraingo *Larraondo*, Elduaingo *Lardi* eta Aramaioko *Larrerre* izeneko lekuak ere zepadietatik gertu samar daude eta pentsa liteke leku-izen horietan “legar” terminoa (denborarekin “lar” bilakatu dena) egon litekeela. Toponimian “lahar” eta “larre” terminoak ere ohikoak izaten direnez, tentuz hartu beharreko hipotesia da.

> Eskoria

“Eskoria” duen leku-izenik ez dugu topatu Goierri Garaian. Ez dakigu inoiz erabili denik ere.

Hemendik kanpora, ordea, hainbat lekutan azaltzen dela ematen du: Leintzen, Zeberion, Barakaldon… Ikusi egin behar erreferitzen dituzten lekuetan burdinolak egon diren ala ez. Ematen du baietz, baina ez mendietakoak, hidraulikoak baizik: *Eskoriabekoa*, Zeberio (ibai ondoan); *Escoriaça*, 1381, Leintz; *Eskauritza*, Barakaldo (ibai ondoan)…

> Masuka

Hondakinak designatzeko terminoen ondoren, burdinolak izendatzeko terminoetara pasako gara.

“Masuka” hitza berez ez da euskal hiztegietan jasotzen, baina toponimian utzitako aztarnengatik badakigu garai batean erabili egin zela. Are gehiago, iruditzen zaigu ‘burdinola’ adierazteko termino zaharra izan litekeela.

Alde batetik, Euskal Herriko agiri zaharretan burdinolak designatzeko hitz eta esapideen artean erabili izan da, “ferrería”, “herrería”, “ferrería tiradera”, “martinete”, “ferrería de martinete”, “ferrería mazona“ terminoekin batera. Hortxe ditugu “ferrería masuquera“[12] eta “masuquera“.

Bestetik, antzeko forma duten hitzak (“machucu”, “machuco”, “mazu”, “mazo”…) dokumentatuta daude Iberiar Penintsulako mendebaldean[13].

[11] “Armora. Opino que este nombre (de arri-mora) no significa otra cosa que nuestro «Steinhaufen», montón de piedra siendo mora variante de muru, murru, mor(ko), mor(do). Azkue trae (h) armora = muro (de Lar. Ax.)” (Bähr, G., 1931, *RIEV* 22-1: 144).

[12] Gure iritzian “ferrería masuquera” esapidean ‘burdinola’ adiera bitan errepikatzen da, baina horrekin ez dugu esan nahi esapide hori erabili ez denik inoiz, konbentzioz, burdinola-mota jakin bat adierazteko.

[13] Balboa de Paz, J.A., 2016, “Ferrerías y machucos en el noroeste de España en los siglos XVI al XIX”, *Oppidum. Cuadernos de investigación 12*, Universidad de Segovia.

Hortaz, ez dirudi oso aldrebesa denik pentsatzea gurean ere “masuka” erabili izan zela.

Guk leku-izen ugaritan ikusi dugu:

- *Masucaolea* (1426) > *Maxokola*, Legazpi. Gaur egun desagertutako baserri baten izena. Ibaiaren ondoan zegoen eta badakigu burdinola izan zela. Bitxia da “masuka” eta “olea” apelatiboez osatuta egotea, biek ‘burdinola’ adiera dutelako, gure ustez.
- *Masucaçirardy* (1483, Legazpi). Mendian dago, 700 bat metrotara. Gaur egun, inguru horri *Zepadi* esaten zaio.
- *Masukazirardi* > *Masuka*, Idiazabal. Erreka txiki baten ondoan dagoen baserriari esaten zaio. Etxetik behera zepadi bat dago, eta pentsa liteke bertan zegoen burdinola uraren indarrez ibili zela.
- *Maskulain*, Zegama. Barbarimendiaren magalean dagoen paraje baten izena. Leku horretatik errekatxo bat igarotzen da eta zepadi bat ere topatu dugu.
- *Basakaundi*, Mutiloa. Troi errekaren ondoan dagoen eremu baten izena. Nire ustez, izen horren atzean “masuka” ezkutatzen da. Izan ere, bertan zepadi bat behintzat badago eta *Barrenola* izeneko etxea ere oso gertu dago.
- *Río Masoga*, Errioxa. Ojacastroko erreka baten izena da. Erreka ondoan eta Amunartia izeneko herrixkatik gertu zepadi handi bat dago. Pentsa liteke, hortaz, “masoga” hitza “masuca” hitzaren gaztelaniazko bilakaera dela.
- *Masuketa*, Oiartzun. Oiartzungo 2017ko mapa toponimikoan *Masuketa* izena adierazten den lekuan ez dago zepadirik. Oso leku malkartsua da, gainera, desegokia burdinolentzat. Haranaren barrenean, aldiz, *Masuketa* izena adierazten den lekutik behera, hainbat zepadi daude eta pentsa liteke higadura bat gertatu dela, toponimoa ondo kokatuta badago behintzat.
- Aramaioko *Masukoleta* ez daukagu ondo kokatuta, baina badakigu izen hori erabiltzen den mendian zepadi bat gutxienez badagoela. Legazpiko *Masukaolea* izenaren oso antzekoa da.

Gure alderditik kanpoko beste hauetan ere aukera handiak daude, gure iritzian, burdingintzarekin lotutako aztarnak topatzeko: *Las Masuqueras* (Barakaldo); *Musacola* (1475, Arrasate); *Makuso*, (Oiartzun, *molino de Macuso*, 1499); *Basakaitz* (Irun).

> Malluka

“Malluka” terminoa behin besterik ez dugu ikusi ikertutako eremuan, Zeraingo *Malluketa* izeneko leku-izenean, hain zuzen ere. Hapax baten aurren gaude, beraz. Baina, kasualitatez, inguru horretan lau burdinola ezagutzen ditugu, eta ematen du haiekin zerikusia izan dezakeela.

“Masuka” hitza “mazo” hitzetik eratorria dirudien bezala, “malluka” hitzak “mallu”-tik datorrela ematen du.

> Makatza

Makatza edo *Makatzaga* izeneko hainbat parajeetan mendiko burdinolak daudela egiaztatu ahal izan dugu (Legazpi eta Irungo *Makatzaga* baserri inguruetan; Aiako *Makatzagatxiki* baserri inguruan…). Hori dela eta, iruditzen zaigu historiaren momenturen batean (Erdi Aroan beharko luke, Legazpiko *Macaçaga*, esaterako, 1532. urtean dokumentatzen baita) “mazuka” edo “matzuka” hitzak “makatza” hitzarekin ordezkatu zirela, ohikoa den kutsatze-fenomenoagatik. Dena den, hipotesi hutsa da eta ez dago, inondik inora, frogatuta.

> Baso

“Baso” osagaia duten hainbat parajeetan ere zepadiak daude, eta ez gutxi, Legazpiko *Basaundi* parajean, Aztiriko *Basoleor* parajean, Araiako *Uribaso* parajean, Zerainbo *Basazabal* parajean etab.

Normala ere bada, hein batean, burdina egiten zen paraje asko gaur egun baso direlako, baina batzuetan iruditzen zaigu atzean ez ote dagoen “mazo” edo “maso” hitzik, Iberiar Penintsulako mendebaldeko lexikoan gorde den adierarekin (ikus Balboa 2016).

> Aizara

“Aizara” terminoa Legazpi eta Gabiriko udalerrien artean dagoen *Aizaleku* mendiaren izen zaharrean topatu dugu: *Aiçaracue* (1483).

Mendi horren magalean dozenatik gora burdinola-arrasto topatu dira eta irudi du, horregatik, atzean ‘burdinola’ adiera egon litekeela. Kasualitatea ere izan liteke, baina ikusten da “ei(h)ara” (errota, alegia) hitzaren amaiera berbera duela. Ezin jakin jatorri berbereko terminoa den.

Mendiko burdinolak topatu diren paraje gehiagotan ere badugu “aiza” osagaia: *Aizagain*, Oiartzun eta

Legazpiko Maxokola baserri desagertua. 1426an, Masucaolea (Bähr familiaren funtsa)

Aizate, Berastegi-Elduain. Egia da oso lekukotza gutxi direla, eta zalantzazkoak.

Bestetik, ez dugu ahaztu behar Manuel Laborde ikerlariak “haizeola” hitza jaso zuela Zerainen ‘mendiko burdinola’ adierarekin.

> Ola

Amaitzeko, bi hitz “ola” terminoaren gainean.

Mendian “ola” apelatiboa duten leku-izenak ugariak badira ere, eta Legazpiko meatze-barrutian ere bai, esan liteke ez dietela burdinolei erreferentzia zuzena egiten, nahiz eta inguruan zepadiak egon: *sel de Ançuolaras*, 1433, Legazpi (2 zepadi); *monte de Tenuola*, 1483, Legazpi (4 zepadi); *sel de Estubiolaça*, 1547, Legazpi (ez dago zepadirik); *Arrola*, 1542, Zerain (3 zepadi); *Ansolaras-goitia*, 1608, Legazpi (4 zepadi); *Gorostola*, 1615, Zerain (zepadi bat); *Olachipi*, 1842, Zerain (hiru zepadi)…

Esan liteke goiko “ola” horiek guztiek ‘etxola’ edo ‘aterpe’ adiera dutela eta ez ‘burdinola’, Euskal Herrian zehar “ola” amaiera duten leku-izen askok eta askok bezala.

Ibai ertzetako “ola”-dun eraikin-izenak, berriz, desberdinak dirudite, garbi samar dagoelako bertan zeuden burdinola hidraulikoei egiten dietela erreferentzia. Uste dugu, horregatik, azken “ola” horiek jatorri desberdinekoak direla. Legazpiko meatze-barrutian bi ditugu: *Aizpeolea*, Zerainen, eta *Barrenola*, Mutiloan.

• Laburpen modura

Behin honaino iritsita, laburpen modura esango dut toponimoek informazio asko gordetzen dutela bere baitan, baina horiek azaleratzeko lan asko egin behar dela. Uzta ez da berehalakoan jasotzen. Lehenengo, toponimiaren beraren legeak ezagutu behar dira: zer izendatzen duen eta zer ez, inguru jakin batean zer espero litekeen eta zer ez, bilakaera fonetikoaren nondik norakoak zeintzuk diren, tradizio anitzetako geruzak desberdintzen, kutsatze fenomenoak... Bigarrenik, toponimoek erreferitzen duten ingurunea ezagutu behar da, ahalik eta alderdi gehien hartuta: geografia, historia, arkeologia, geologia, ekonomia, mitologia.. Artikulu honetarako, esaterako, zepadien kokaguneak ezagutzea erabakiorra izan da ondorio batzuk ateratzeko. Hirugarrenik, oso lagungarria da ikerketa-eremutik kanpoko alderdi eta eskualdeetan zer pasatzen den jakitea, fenomeno asko eta asko errepikatu egiten direlako han eta hemen.

Azkenik, Legazpi-barrutiko zepadien eremuko toponimian identifikatutako, edo ustez identifikatutako, terminoen inguruan esan behar dugu, ez baitugu inor engainatu nahi, bi multzo bereizi behar direla: nahikoa segurutzat jo litezkeenak (“zepa”, “zirar”, “legar”, “eskoria”, “masuka” eta “ola”) eta lan-hipotesitzat hartu behar direnak (“zamora”, “malluka”, “makatza”, “baso” eta “aizara”).■

NAFARROAKO BURDINGINTZA ETA TOKI IZENAK

Malen Lizarraga

1. SARRERA

2022ko apirilean ospatutako “Onomastika eta Burdina” jardunaldien harira sortutako lana da ondorengoa. Batetik, Nafarroako burdingintzaren berrikustea egin da Behe Erdi Arotik hasi eta XVI. menderaino; eta, bestetik, toki izenek edo toponimiak ikerketa historikoetan izan dezaketen garrantziaz mintzatu da, eta, horretarako zenbait adibide azaldu dira. Burdingintzak eta nekazal jarduerek Nafarroa iparraldeko lurraldea ustiatzeko modua arautu zuten mendeetan zehar. Burdingintza aipatzen denean izaera anitzeko jarduera multzoa da deskribatzen dena: ikazkintza, meatzaritza, garraioa, merkataritza, e.a. Aldaketa eta ustiaketa horiek ikertzerakoan toponimiak berebiziko garrantzia du, eta tokien identifikazioaz haratago doan laguntza eskaintzen dio ikerlariari: iturri historikoa bilakatzen da.

Nafarroako burdingintza ikertzen duten berariazko lanak urriak dira, bai historikoak eta baita arkeologikoak ere, azken horien kasuan ia ez baitago adibiderik. Ikerketa guzi horiek, gainera, burdingintza hidraulikoaren ingurukoak dira; hau da, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban egin dituzten ikerketa eta lantalde zenbaiten antzera, Nafarroan ez dago bertako haizeolak ikertu eta katalogatu dituen proiekturik. Burdinarekin lotura duten ikerketetan, ziurrenik, ugarienak XVII eta XVIII. mendeetan martxan jarri ziren arma fabriken ingurukoak dira. Hala nola Asura eta Iturbidekoak Eratsunen, Eugikoa Esteribarren eta Orbaizetako arma fabrika Aezkoan. Azken bi horietan, gainera, esku hartze arkeologikoak ere egin dira, eta, beraz, bibliografia ere ugariagoa da[1]. Lantegi horiek, ordea, koroaren behar armamentistikoak asetzera bideraturiko produkzioa zuten, eta *asiento* deritzon sistemaren bitartez funtzionatzen zuten orokorrean. Hau da, burdinola hidraulikoetatik bestelakoak ziren azken xedeari erreparatuz gero.

Nafarroako burdingintza historikoa sakonean aztertu duena Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle den Iñigo Mugeta dugu: Behe Erdi Aroko Nafarroako burdinolen fiskalitatea, produkzioa eta nondik-norakoak ikertu ditu[2]. Badaude, hala ere, bestelako aldizkako ikerlanak ere[3], baina horiek, sarritan, zabalagoak diren gaietan aipatzen dituzte burdinolak eta burdinaren produkzioa. J.M. Lacarrak eta F. Idoatek Nafarroako Historia eta haren ekonomia bezain gai zabalean deskribatzen dituzte olak[4];

---

[1] Beste hainbaten artean: González-Enciso, A. (2013). Asentistas y fabricantes: el abastecimiento de armas y municiones al Estado en los siglos XVII y XVIII. *Studia Historica. Historia Moderna,* 35, 269-303; González-Enciso, A. (2020). La fundición de Eugui en el reinado de Carlos II. *Espacio, Tiempo y forma. Serie IV Historia Moderna,* 33, 117-138; Puche, O. eta Espí, J.A. (2005). Un caso singular de patrimonio histórico minerometalúrgico: la fábrica de armas de Orbaiceta, Navarra, España (1784-1873). *In* O. Puche eta M. Ayazagüena (koord.), *Minería y metalurgia históricas en el sudoeste europeo,* 433-476; Sánchez-Delgado, A.C. (2001). La Real Fábrica de Orbaiceta (Navarra). Arqueología industrial y campos de trabajo, 1986-1991. *Trabajos de Arqueología Navarra,* 15, 269-295; Rabanai, A. (1987). *Las Reales Fábricas de Eugui y Orbaiceta.* Iruñea: Vianako Printzea Erakundea.

[2] Mugeta, I. (2005). Minería cuproargentífera en el reino de Navarra (siglo XIV). *Príncipe de Viana*, 235, 405-428; Mugeta, I. (2008). La botiga del hierro. Fiscalidad y producción industrial en Navarra (1362-1404). *Anuario de Estudios Medievales AEM*, 38/2, 533-584; Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización en Navarra: La frontera de malhechores (1321-1335). *Huarte de San Juan*, 16, 9-58; Mugeta, I. (2010b). El comercio de hierro entre Navarra y Aragón (1349-1387). *In* E. Ramírez & S. Salicrú i Lluch, *Cataluña y Navarra en la Baja Edad Media*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 165-224; Mugeta, I. (2013). Les territoires de la sidérurgie médiévale au Pays Basque et en Navarre. *In* C. Verna & L. Hilaire-Pérez, *Les industries rurales dans l'Europe médiévale et moderne*. Tolouse: Presses universitaires du Mirail, 63-76; Mugeta, I. (2019). Las ferrerías de Anizlarrea (siglos XIII-XVI). *In* Aranzadi Zientzia Elkartea, *Artikutza. Natura eta Historia*. Donostia: Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza , 90-111.

[3] Alberdi, J.I. (1994). Aproximación al estudio de las ferrerías navarras en la Edad Media. *III. Congreso General de Historia de Navarra* (bertan aurkeztua) Iruñea; Zudaire, E. (1979). Ferrerías del Real Monasterio de Urdax. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 31, 125-177; Mitxelena, A.M. (2020). *Goizueta eta inguruko burdinolak. Itxura, datuak, dokumentuak eta hiztegia,* autoeditatua; Erdozain, P. eta Mikelarena, F. (2002). Siderurgia tradicional y comunidad campesina. La gestión de las ferrerías municipales de Lesaka y Etxalar en 1750-1850. *Vasconia,* 32, 491-515.

[4] Idoate, F. (1960). Notas para el estudio de la economía navarra y su contribución a la Hacienda Real (1500-1650). *Príncipe de Viana,* 21, 77-129; Idoate, F. (1997). *Rincones de la Historia de Navarra.* Iruñea: Nafarroako Gobernua; Lacarra, J.M. (1975). *Historia del reino de Navarra en la Edad Media*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa; Caro-Baroja, J. (1971). *Etnografía Histórica de Navarra.* Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa.

eskualdekako azterketa historikoetan ere agertzen dira horien inguruko istorioak[5]; baita muga-harremanak aztertzen dituzten lanetan ere[6].

Gainontzeko euskal lurraldeetan gertatzen den legez, burdinolen historia luzea da, baina, batez ere, Erdi Aroaren amaieran jasoko dugu informazio gehien. Horiek Pirinioen luzapenetan aurkituko ditugu, kantauriar isurialdeko lurretan. Batetik, baso eta uraren ugaritasuna, eta, bestetik, minerala lortzeko erraztasunagatik -tokikoa, Bortzirietako Mazizoari lotutako aztarnategietatik eta gipuzkoar eta lapurtar portuetan barrena Somorrostrotik ekarria (batez ere, XVI. mendetik aurrera)-.

2. NAFARROAKO BURDINGINTZA

Nafarroako burdingintzak lotura zuzena izan zuen gainontzeko euskal lurraldeetan garatu zen industriarekin, eta esan genezake ezin dela ulertu Gipuzkoarekin zuen harremana kontutan hartu gabe. Halaber, Nafarroan lehenengo erreferentziak XIII. mende amaieran aurkituko ditugu. 1280ko Kontuetako liburuan "*ferreras"* hitza aipatu zuten lehenengoz -10 libra ordaintzen zizkieten koroari, eta egungo Doneztebe inguruan kokatzen ziren-. 1284an, "*mineriis ferri"* izendatutakoek 14 libra eta 2 sueldo ordaintzen zizkieten erregeari. Eta, 1290ean, Doneztebetik Araitz-ko bailarara zabaldu ziren erreferentziak: kasu horretan, 10 libera eta 4 sueldo ordaintzen zituzten "*lezta de las minas de hierro"*-engatik. I. Mugetak dio, hala ere, lehenengo erreferentzia horien lausotasuna dela eta, ezin dugula ziurtatu zuzenean burdinolen inguruan ari ote zirenik, baina bai, gutxienez, burdingintza edo meatzaritzari buruz. XIV. mendearen lehenengo erdialdean erreferentziak ez ziren ugariak, eta zergak ordaintzen zituzten burdinolak Leitza, Basaburua eta Doneztebe inguruan kokatu ziren. 1314ean, lehenengoz, "*ferrería"*(burdinola) hitza agertu zen dokumentu batean, "*el tributo a pagar de las ferrerías del rey"* zehazki. 1321ean, Leitza inguruko burdinolen lehenengo aipua dago, eta bertan ziotena da burdinolak hutsik zeudela gipuzkoarren erasoen beldur zirelako. 1339an, lehenengo burdinola izenez aipatu zuten: Lesakako Bereau. Eta 4 urte geroago, 1343an, Leitzan jada hainbat burdinola kontatu zituzten: Errezuma eta La Medranakoak martxan, eta Urtokoa hutsik zegoen bere langileen pobreziagatik[7]. Hemen kontutan hartzekoa izanen da Nafarroako burdinola gehienak mugako tokietan kokatzen zirela. Hau da, sarritan mugako liskarretan kaltetuak burdinolak berak izaten ziren[8].

XIV. mendearen lehenengo erdialdera hurbiltzen garen heinean, dokumentazioa eta erreferentziak ugaritu egin ziren, eta, paraleloki, koroaren interesa. Gainontzeko euskal lurraldeetan ez bezala, Nafarroan ez zegoen Burdinolen Forurik: 1328an, Oiartzun eta Irun-Uranzuko burdinolek lortu zuten forua; 1338an, Gipuzkoa osora zabaldu zen; eta, 1440an, Bizkaiko burdinolek ere eskuratu zuten[9]. Badirudi Nafarroako Foru Nagusiak soilik meatzaritzaren inguruko erreferentziaren bat jasotzen zuela, baina ez zen haratago joaten[10]; eta, gainera, ez dago nafar burdinolen forurik egon zenaren zantzurik[11].

XIV. mendean zehar, burdin produkzioaren gaineko koroaren interesa handitu egin zen; Evreuxeko Karlos II.ak (1349-1387) zentralizazio saiakera bat egin zuen, eta burdinolen gaineko kontrola indartu. Hori egiteko zenbait pausu eman zituen. Batetik, Bera, Lesaka eta Anizlarrearen (egungo Goizueta eta Arano) gaineko eragina areagotzen saiatu zen. 1369tik aurrera administrazio errealak lehenengoz erregistratu zituen eremu horretako burdinolak (jakina bada ere, ziurrenik, lehenagotik martxan zeudela); eta, 1376an Luzaidekoak ere erregistratu zituen: La Reclusa eta Bordel izenekoak[12].

[5] Jiménez de Aberasturi, J. C. (1980). Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa. *Príncipe de Viana*, *41*(160), 263-410; Miranda, F. (1993). *Roncesvalles. Trayectoria patrimonial (Siglos XII-XIX)*. Iruñea: Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Saila.

[6] Orella, J.L., Sain, P.J. eta Anchón, J.A. (1987). *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los s. XIII y XV: relaciones, intereses y delimitaciones de la frontera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea; Aragón, A. (2015). Comercio, transporte y confilctividad en la frontera entre Guipúzcoa y Navarra durante la primera mitad del siglo XVI. *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 48, 19-55.

[7] Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización… *op. cit.* 13-16.

[8] Jiménez de Aberasturi, J. C. (1980). Aproximación a la historia… *op. cit.* 321 eta Pescador, A. (2019). Artikutza/Anizlarrea. Historia y documentación medieval. *In* Aranzadi Zientzia Elkartea, *Artikutza. Natura eta Historia*. Donostia: Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza, 44-65.

[9] Díez de Salazar, L.M. (1989). Fueros de ferrerías de Cantabria, Vizcaya, Alava y Guipuzcoa. *Documentos para la Historia del Derecho Español,* 59, 597-632.

[10] Aberdi, J.I. (1994). Aproximación al estudio… *op. cit.* 6: "en el reino de Navarra los yacimientos de mineral son, en principio, de propiedad real, y su explotación constituye una regalía", "a excepción de las minas situadas en finca de infanzón, que son de propiedad de infanzón".

[11] Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización… *op. cit.* 17.

[12] Mugeta, I. (2008). La botiga del hierro … *op. cit.* 536-540.; Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización… *op. cit.* 17.

Bestetik, "*lezta de las ferrerías"* delako karga fiskala ezarri zuen. Horren arabera ola bakoitzak *lezta* izenez ezaguna zen zerga bat ordaindu beharko zion erregeari, zerga finkoa zena (urtekoa), baina nahiko apala[13]. 1376. urte hasieran, burdinaren botiga ezarri zuen ("*la botiga del hierro"*), biltegi modukoa zena (1376-1404). Eta urte bereko martxoaren 1ean, Sancho el Mayer izendatu zuen burdinaren produkzioa eta erosketak kontrolatuko zituen komisario gisa. Nabarreriako Txapitelean kokaturik zegoen biltegi hori, eta arduradunek ezarritako prezioan burdinola guztien produkzioa jasotzen zuen.

Botiga hori martxan jartzearekin zenbait neurri ezarri zituzten. Monopolioa koroak kontrolatu nahi zuen, eta horretarako burdinola guziek beren produkzioa Iruñera bideratu beharko zuten. Burdinaren esportazioa eta salmenta debekatu zituzten; hau da, botigatik kanpoko trukeak debekaturik egonen ziren, eta soilik Sancho el Mayerren baimenarekin egin ahalko ziren. Arau horiek betetzen ez zituztenek kintal bakoitzeko 10 liberako isuna izanen zuten; debekatuta egonen zen olagizonei zorpetzearen ondorioz epaiketak eta bahiketak egitea; burdinolen hartzekodunen nomina bat ezarriko zuten; eta Sancho el Mayerrek kontrolatuko zuen hori guzia[14].

Badirudi monopolio horrekin erregeak merkatarien gestio kaxkarra hobetu nahi izan zuela. Izan ere, Nafarroako burdingintzan merkatariek izugarrizko garrantzia zuten, horiek baitziren produkzioari aurre egin ahal izateko olagizonei dirua aurreratzen zietenak[15].

Botigaren kudeaketak etengabeko aldaketak izan zituen, monopolioaren mantentzea ez baitzen erraza izan. Izatez azaldu berri dugun bezala funtzionatuko zuen; errealitatea, ordea, bestelakoa zen. Izan ere, burdinaren monopolioaren erdigunea Iruñean jarri zuten, baina burdinola ia guziak erreinuaren ipar isurialdean zeuden, eta horien ekoizpena kantauriar portuetara bideratzen zuten. Hori zela eta, Iruñeraino joatea ekiditeko, Bera eta Lesakan laster botiga edo biltegi propioak sortu zituzten. Bortzirietako burdinolez gain, Doneztebe ingurukoak eta Anizlarreakoak ere horra bideratzen hasi ziren ekoizpena. Luzaiden ere antzekoa gertatu zen: Donibane-Garazitik zuzenean Frantziara bideratzen zuten ekoizpena, eta bertan ere biltegi bat sortu zuten. Azkenik, Iruñera badirudi Leitza-Areso ingurukoak joaten zirela, eta bitartekariak Larraun, Ultzama eta Irurtzun inguruko zamalariak izaten omen ziren. Hala eta guztiz ere, botiga berri horiek erregeak izendatutako administrari batek kontrolatzen zituen[16].

Aldaketak-aldaketa, badirudi botigek 1404. urteraino iraun zutela. Konposizio fiskalak bi urtetik behin hitzartzen zituzten olagizonek koroaren bitartekariekin, eta XV. mende erdialdera arte mantendu zuten ohitura hori. Nafarroan, XIV. mendetik XV. mende hasiera arte, burdinolen produkzioa monarkiaren kontrolpean egon zen beraz. Errege-erreginak ziren errentak, muga eskubideak, zergak eta produktuen komertzializazioa kontrolatzen zutenak. Burdinolak ere, garai horretan eta Nafarroako Erreinuaren konkista arte, koroak zuzenean emandako lizentzien bitartez eraikitzen ziren. Nabarmentzekoa da jauntxoek oso presentzia urria izan zutela burdinola nafarren jabetzan. Soilik Zabaleta eta Altzatetarrak nabarmendu ziren burdinolen jabegoan, baina horiek burdinola pare bat edo hiru kontrolatu zituzten soilik. Badirudi olagizonak jatorri xumekoak zirela, gehienetan bertako biztanleak eta askotan Gipuzkoatik etorriak[17]. Nafarroa ipar-mendebaldean ohikoa izan zen gipuzkoarrak burdinolen jabe eta maizter izatea, baina baita lapurtarrak Urdazubin eta baxenafartarrak Luzaiden ere.

Aipatutako lizentziak koroak zuzenean norbanako bati edo bikote bati emandako baimenak ziren. Aitortza horien bitartez koroaren lurretan burdinola bat eta beharrezkoak ziren gainontzeko instalazioak egiteko baimena jasotzen zuten, baita ingurunea aprobetxatzeko eta lehengaiak lortzeko askatasuna ere. Oso lizentzia lausoak ziren ordea, ez baitzuten lur horien mugak zein ziren azaltzen[18].

> *Karlos, por la gratia de dios, rey de Navarra […] damos et otorgamos […] por la presentes a Miguel Ezquer de Lessaqua licencia, autoridat et poder de fazer et hedificar de nuevo una ferrería en el término de Leyça, llamado Yvero, con autoridat franqueza et libertad de tomar minas et fazer carbón en nuestros yermos et montes tanto quanto a la dicha ferreria necesario sea et con todas sus entradas et salidas así et en la forma et manera que nuestras otras ferrerías lo han…*[19]

[13] Mugeta, I. (2008). La botiga del hierro … *op. cit* 535.

[14] Ibídem 545.

[15] Ikusi Alberdi J.I. (1994). Aproximación al estudio… *op. cit.* 8-12.

[16] Mugeta, I. (2008). La botiga del hierro … *op. cit.* 547-548.

[17] Ibidem 549-550.

[18] Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización… *op. cit.* 17.

[19] Nafarroako Artxibo Orokorra (NAO), Comptos_Dokumentuak (CO_Dok.), kaj. 58, n. 67. Leitzako Ibero ola eraiki eta inguruko mendietan ikatza egin eta minerala aurkitzeko lizentzia. Ez dira mendiak zein diren aipatzen; horregatik nabarmentzen da lizentzien lausotasuna.

XVI. mendera hurbiltzen garen heinean, ordea, udalek hartu zuten ardura hori, eta, orduan bai, muga zehatz batzuk ezarri zitzaizkien burdinola bakoitzari, eta horien baitan soilik eskuratu zitzaketen lehengaiak. Lurraldearen eta baliabideen gaineko kontrola ezartze aldera, mugak zehaztu zituzten. Beraz, laburbilduz esan genezake, XV. mendearen erdialdera arte burdinolak ez zirela jauntxoen eskuetan egon, baizik eta bertako eta Gipuzkoatik etorritakoen ardurapean. Hortik aurrera, eta olen inguruko interesa are gehiago handitu zen heinean, berriz, burges txiki eta merkatari familia eta baita zenbait jauntxo ere nabarmendu ziren olen jabegoan, eta zenbaitek bat baino gehiago bereganatu zituzten[20].

1513an, Medina del Campon, Fernando Aragoikoak, Nafarroako errege berri bezala, Rodrigo Etxarri merkataria izendatu zuen Iruñea eta Mendialdeko Merindadeko zerga biltzaile. Etxarrik burdinolen zerrenda bat osatu zuen, eta, bertan, martxan edo suntsiturik zeunden burdinolak bildu zituen. Halaber, horiek zenbateko lezta ordaintzen zuten eta ea zerga barkamenik bazuten ere idatzi zuen[21]. Oso ohikoa bilakatu zen Nafarroako Erreinuan olagizonek burdinola berregin eta konpontzeko gastuei aurre egiteko zergen barkamena eskuratzea. Esanguratsua da 1513an zerrendatutako 77 instalazioetatik erdiak suntsiturik zeudela -badakigu, hala ere, horietako batzuk urte luzez edo hamarkada luzez egon zirela geldirik-. Nafarroako errege-erreginek emanda aurkitu dugun azkenengo baimena 1512an sinatutako 1521eko kopia bat da: Joan eta Katalinak baimena ematen zioten Errenteriako Martin Isastiri Leitzako Eleuna burdinola berregiteko:

> *Fazemos saber cómo por partes de Martin de Isasti, vezino de la villa de Renteria, […] nos ha seydo referido e dado a entender diciendo que él tiene y possede y le pertenesce haver tener y poseer huna ferrería clamada Eleuna, situada en los términos de Leyça, que afruenta de la huna parte con las meneras de Seuchola y de la otra parte con las meneras de Astarita y de la otra parte con el término de Anizlarrea. La qual dicha ferrería por con la de los malos tiempos y esterilidat que ha obido, ha seydo y está dirruyda y podrida, y agora el dito esponient se quiere disponer que rehedifiquar y obrar de nuevo la dicha ferrería, suplicándonos […] hazer gratia y mercet al dicho suplicant de todo lo que montara quoarteres y alcabala, lezta e imposición que le bendería en la dicha ferrería asy de trigo, vino, cebada como de fierro…*[22]

XVI. mendean sartzearekin eta konkistaren ondotik, pixkanaka, burdingintzak bultzada berri bat jaso zuen. Garai horretan ola berriak eraiki eta zaharrak eraberritu zituzten. Eta ohikoa zenez, zenbaitek berregiteei aurre egiteko zergen barkamenak jaso zituzten -XV. mendean zehar ere barkamen asko eman ziren-. 1512an Martin Isastik bezala, 1539an, esaterako, Bernaldino Hualde Bakedano tafallar merkatariak Olazarra (Goizueta) ola berregiteko 30 urtez zerga barkamena eskuratu zuen Cañeteko Markesa zen Erregeordearen eskuetatik. Goizuetako taularen arduradunak ekoitzitako burdinaren zergak eskatu zizkien, ordea, Bakedano eta haren administratzaile Juanes Aranori, eta horrek sortutako auzian honela zioen lekuko batek:

> *…a visto que donde están situadas las ferrerías d'este reyno es tierra montañosa y fragosa, que no se coge pan ni vino y que toda la gente de aquella tierra se mantiene en las dichas ferrería. Y por causa de la mucha contratación que hay del yerro suele haber mucho dinero en este reyno, Y ha visto que también se proveen otras provincias fuera de este reyno del yerro que se hace en este reyno, y que trae cada ferrería de provecho con la costa que se hace cerca de mil ducados, a cuya causa sabe este testigo que viene mucho provecho al reino en que haya muchas ferrerías…*[23]

Gisa honetako arrazoibideak ohikoak ziren Aro Berrian zehar. Koroaren aurrean egiten ziren aldarrikapen hainbatetan erabiltzen zen tonu beldurgarri hori. Guztietan egoera ezkor eta zailak deskribatzen ziren, ingurune horietako jendearen zailtasunak azaltzeko[24]. Bakedanok zioen Nafarroako burdinolak martxan zeudela, eta horiek berregiteko ausardia izan zutela, soilik, koroak ematen zituen barkame-

[20] Mugeta, I. (2019). Las ferrerías de… *op. cit.* 101; Aragón, A. (2015). Comercio, transporte y… *op. cit.* 43.

[21] NAO, CO_Registros (Reg.), s.1, n. 541-2.

[22] NAO, CO_Dok., kaj. 168, n. 12.

[23] NAO, AAEE (Auzitegi Errealak), 159069 prozesua (p.).

[24] Aragón, A. (2014). «...Faltar y ausentarse con esto los naturales de esta provinc ia y quedar despoblada y hierma, sin defensa alguna...» discursos de frontera en Gipuzkoa durante la Edad Moderna. *In* J. Agirreazkuenaga & E. J. Alonso (ed.), Estatu-Nazioen Baitako Nazioak: Naziogintza Kulturala Eta Politikoa, Gaur Egungo Europan, Barcelona: Editorial Base, 401-410, 405.

nekin gastuei aurren egin zezaketelako[25]. 1558an, Leitzako Astibia burdinolako Migel Gorritik, Iñurrista olako Juan Lopez Errezuma kapitainak eta Errezuma olako Katalina Errezumak ere eskaera bera egin zuten. Arrazoibideak antzekoak izen ziren. Gorritik zioen minerala eta ikatza urrutitik ekarri beharra zituela; garaiko gerren ondorioz burdinaren prezioa asko jaitsi zela ia etekinik atera gabe, eta, hortaz, azkenengo 6 urteetan burdinola martxan izatearen zioa hori ez desegitea izan zela[26].

Inguruko lurraldeetan bezala, XVI. mendearen lehen erdialdera hurbiltzearekin olatxoak eraikitzen hasi ziren, eta, zentzu horretan ezberdintasun gutxi nabaritzen dira, esaterako, Gipuzkoarekin. Kontzejuek burdinolak eraiki eta erosi zituzten udal-ola bilakatzeko: 1535erako Lesakako Erkaztia udal-ola zen[27]; igantziarrek, 1547an, Arangaitzeko ola eraiki zuten[28]; Zubietako herriak Hernauton Goizuetarekin batera Urkidiko ola eraiki zuen 1551ean[29]; Aresoko Olaberria 1567an ere udal-ola zen[30], eta, 1591an, Ibiur olatxoa eraiki zuten Joan Soroeta abadearen laguntzarekin[31]; Leitzako kontzejuak 1573an erosi zion Urto ola Antonio Elizalderen alargun Isabel Ezkurrari[32]; Matxarin ola Beran; Etxarlasa eta Jasola olak Etxalarren; Igereta Arantzan; Beheko Berrizaun Igantzin; e.a. XVI. mendearen erdialdean hasi ziren udal olak eskuratzen eta eraikitzen, eta hurrengo mendeetan ere horrekin jarraitu zuten. Baliabideetarako sarrera zuzenena zuten udal-olek. Batetik, horniketa bermatuta zuten, errenta kontratuak ikatza egiteko basoak barne hartzen zituelako, eta, bestetik, prezio ezin hobeetan eskuratzen zuten hori[33]. Sarri mineral karga zehaztuak edo meategien gaineko eskubideak ere sartzen ziren errenta kontratuetan. Leitzako Urto olak, esaterako, Irusoko meategien ustiaketa bermatua zuen[34].

Zenbait jauntxok ere burdinolak eraiki zituzten, eta merkataritzan parte hartzen hasi ziren -Ezkurrako jauna esaterako[35]-. Gipuzkoarren presentzia are handiagoa bilakatu zen. Eta, azkenik, genoar erako aurrerakuntzak iritsi zirela ere esatera ausartzen gara; 1542an, Anton Ansorena merkatari beratarrak Inzola eta Okurunbe burdinolak berregiteko tratua lortu zuen eta horretarako Foix-eko konderritik 8 maisu genoatar ekarri baitzituen[36].

Mende berean nabarmendu dezakegun beste aldaketa 1535eko Konposizioa izanen da. Erregeordea zen Cañeteko Markesaren ordezkari bezala Diego Hurtado de Mendoza bisitariak eta burdinoletako nagusiek sinatutako konposizioa izan zen. Azaldu berri dugun Karlos II.aren aldaketa fiskalen ildoa jarraituz, XVI. mendeko adibidea izanen da. Konposizio horren arabera burdinolek produzitutako guzia deklaratu beharra zuten eta kintal bakoitzeko 6 marabedi ordaindu beharko zituzten 4 hilabetetik behin. Hau da, aurretik ordaintzen zituzten *alcabala, quartel* eta *lezta* beharrean, soilik ekoitzitako kintal bakoitzeko 6 marabedi ordainduko zituzten tauletan. Gainera askatasuna izanen zuten ekoizpena Gipuzkoa, Frantzia, Biarno eta Guyenara zergarik ordaindu gabe eramateko. Burdinolen ordezkariek, halaber, zehazki nabarmendu zuten Iruñea eta gainontzeko herrietan ezingo zitzaiela alkabalarik eskatu[37]. Dokumentu asko dira konposizio hori aipatzen eta erreproduzitzen dutenak, XVI. mendean zehar horren inguruan sortutako auziak ere errepikatu egin baitziren.

1537an, Pedro Santxez Alkaiagak, Hondarribiako artilleria eta munizio maiordomo zenak, Endarlatsa (Lesaka) burdinolak ordaindu beharra zituen eskubideen barkamena eskatu zuen; 1535eko konposizioaren araberako zergak ez ordaintzea, alegia. Bere aburuz olak gorabehera asko zituen. Lapurdi eta Gipuzkoaren mugan zegoen, eta lehengaiak ez zituen Lesakan eskuratzen: Frantziatik ikatza eta egurra, eta Gipuzkoatik minerala. Gaztela, Nafarroa eta Frantziaren arteko borrokarik gertatuz gero ezin zuten lanik egin; langileak beldur ziren

[25] NAO, AAEE, 159069 p.

[26] NAO, AAEE, 86617 eta 96886 p.

[27] NAO, AAEE, 10369 p.

[28] NAO, AAEE, 130477/319535 p.

[29] NAO, notaria (not.) Doneztebe, Pablo Esaiz, 17402(2).

[30] NAO, not. Leitza, Martin Leiza, 16240(3).

[31] NAO, not. Leitza, Juan Soroa, 16239(2).

[32] LeitzaUA (Leitzako Udal Artxiboa), paper-sorta 2 (ps.), karpeta 2 (k.).

[33] Aragón, A. (2012). Las ferrerías guipuzcoanas ante la crisis del siglo XVII. *Cuadernos de Historia Moderna,* 37, 73-102, 83.

[34] NAO, not. Leitza, Martin Leiza, 16240(5).

[35] NAO, not. Doneztebe, Pablo Esaiz, 17398/2.

[36] NAO, AAEE, 86883 p.

[37] LesakaUA (Lesakako Udal Artxiboa), 110 Liburua (lib.).

frantziarren erasoez. Garai horietan ere Frantziatik lortzen zituzten lehengaiak ez ziren iristen, eta Bidasoa ibaiaren emaria handitzen zenean ezin zuten ola martxan jarri -ohikoa omen zen gainera-. Halaber, Alkaiagak koroari egin zizkion zerbitzuak goraipatzen zituen: Napolitik Sizilia eta Bidasoaraino. Hondarribiaren setioan suntsitu omen zizkioten artean etxea eta burdinola, eta 4 urte behar izan zituen azken hori berriro martxan jartzeko. 1.000 kintal inguru ekoizteko gai omen zen Endarlatsa, eta, beraz, 6.000 marabedi ordaindu beharra zituen urtean. Aurka erreinuko fiskala eta ondare arduraduna zuen (*Patrimonial*), Obando lizentziatua. Horren aburuz Alkaiagaren ola Nafarroako hoberena zen; astean 40 kintal ekoizteko gai zen, eta urtean 2.000 kintalera irits zitekeen. Hau da, 12.000 marabedi urteko ordaintzea tokatzen zitzaion, eta erregearen gastuak handiak ziren eta jasotzen zituen zergak urriak[38].

Lesakako udalak erreinuko kondestablearekin ere hainbat arazo izan zituen eraiki berri zuten Erkaztia udal olaren harira. 1542an, Luis Beamontek burdinola exekutatu nahi zuen azken 4 urteetako kuartelak ordaindu ez zituelako. Lesakarrek, ordea, 1534 inguruan eraikitako olak 1535eko konposizioa sinatu zutenen antzera ordaintzen zuela zioten. Gainera, burdinola ez zuen inork balioztatu oraino, eta, beraz, zer ordaindu beharra zuten zehazteko ere eskatzen zuten. 1546an, auziarekin jarraitu zuten beste prozesu batean. Azkenean, 1535-1537 bitarteko zorrak kondestableari ordaintzera zigortu zuten udala, baina olagizonek aurka egin zioten. Hainbat arrazoi eman zituzten, artean, kondestableak ez zuela burdinolen gaineko inolako eskubiderik. Ordaindutako zergak erregeari ordaindu zizkioten beti, eta horietatik zerbait jasotzen bazuen kondestableak, erregearen bitartez zen. Kintaleko 6 marabedi ordaintzearekin zerga guziak betetzen ziren; horiek tauletako administrariei ordaintzen zitzaizkien, eta kondestableak horiengandik jasotzen zuen bere zatia. Bukatzeko, olagizonek azken abisu bat egiten zuten:

> *…porque aviendo mis partes cumplido, por su parte vuestra magestad es hobligado de guardar y cumplir por la suya. Y el contrato no ha de claudicar que por una parte se cumpla y por la otra no. Y en caso que vuestra magestad no quesiere guardar y cumplir el dicho contrato por su parte tampoco mis partes serian hobligados guardarlo por la suya*[39].

1547an, badirudi Bortzirietako eta Goizuetako burdinolek kondestablearekin zituzten arazoak aitzaki hartuta ordaintzeari utzi ziotela, Beamonten aldeko sententziei erantzunez. Konposizioarekin sinatu zutenaren aurka, kondestableari ordaintzera zigortu zituzten, eta, beraz, tauletan ordaindu zutenaren proportziozko zatia kondestableari emateko edo itzultzeko eskatzen zuten[40].

Gisa horretako auziak XVI. mende guztian zehar errepikatu ziren, aktoreak aldatzen baziren ere. 1547an, Goizuetako kontzejuak bere eskumenean zeuden burdinolen alkabalaren inguruko txostena egin zuen. Aranola, Arranbide, Urdallue, Helama, Goizarin, Alduntzin, Zibola eta Olazarreta (aurretik Oarrin bezala ezagutua) ziren horiek, eta zortzi eta hamabi florin bitarte ordaintzen zuen bakoitzak. 1535eko konposizioaren ondoren, ordea, Goizuetako herriak ordaindu beharreko alkabalatik kendu beharra zen burdinolen proportzioa[41].

3. TOKI IZENAK ETA BURDINGINTZAREN IKERKETA:

Toponimia iturri historiko gisa erabili da ondorengo ikerketa kasuen lanketan, talde jakin batek bere ingurunearekiko duen hautematearen adierazpen bezala ulertuta. Kasuak-kasu, landa komunitatean gertatu diren aldaketa ekonomiko eta sozialen islatzat ere har daiteke; izan ere, toponimiak iturri idatzietatik datorren informazioarekin alderatuz gero, datu historiko kualitatiboak eman ditzake: ustiatze tokiak, sistemak, lur bereganatze erak, e.a.[42]. Era berean, toponimiaren bidez tokiko biztanleentzat zein leku ziren garrantzitsuak edo esanguratsuak ikus daiteke, eta nola antolatzen zuten ingurunea: komunikabide, habitat, aprobetxamendu eta baliabideen multzoa, alegia[43]. Adibide zenbaiten bitartez Nafarroako burdinolen ingurunearen ustiaketa aztertu da, batez ere, XVI. mendeko kasuak erabiliz.

[38] Aragón, A. (2015). Comercio, transporte *op. cit.* 43; NAO, AAEE, 334 p.

[39] NAO, AAEE, 64700 p.

[40] NAO, AAEE, 9081 p.

[41] NAO_ CO_Papeles Sueltos (PS)., s.1., leg.21, n.15.

[42] Fernández de Mier, M. (2006). La toponimia como fuente para la historia rural: la territorialidad de la aldea feudal, *Territorio, Sociedad y Poder,* 1, 35-52, 41.

[43] Riesco, P. (2010-1). Nombres en el paisaje: la toponimia, fuente de conocimiento y aprecio del territorio, *Cuadernos Geográficos,* 46, 7-34, 8.

Eta horretarako berariazko garrantzia duten dokumentu historikoak izan dira oinarria: hala nola burdinolen mugei buruzkoak, meategien inguruko auziak edota basoaren ustiapenaren harira sortutakoak.

Etxalartar eta beratarren arteko auzia

1520an, Etxalar eta Berako auzotarrek auzitara jo zuten Etxalarko zenbait mendiren erabilera zela eta. Ia mende lehenago, 1428ko uztailaren 7an, Karlos printzeak pribilegio bat onartu zien Berako zenbait olagizoni; liskarrak omen zituzten Erreinuko Patrimoniala (*Patrimonial del Rey*), Etxalarko herria eta Berako olagizonen artean. Eta pribilegioak ondorengo mendien ustiaketa baimentzen zien:

> *...desde la bustaliza llamada Oreynibe, entre la piedra o peña de Lakain y desde allí hasta la otra bustaliza de Gorosurreta y de allí a la borda de Maritupe Echola, y de allí hacia abajo al sel de Ozcariz y de allí hacia abajo al manzanal de Ozcariz y después al riachuelo de Ozcariz Lasa e de allí al río grande de Bidasoa tomando la parte de Bera…*
>
> *…empezando desde la bustaliza de Oreinbe hasta la bustaliza de Gorosurreta, y de allí tirando por el monte a la borda llamada de Maritinche, y de ahí tirando hacia abajo hasta llegar en una endercera llamada Echola y de ahí hacia bajo por la valle hasta llegar al Ozcariz y de ahí hasta llegar en el gran río de Bidasoa. Que son todas las endreceras hacia la tierra de Bera*[44].

Beratarrei mendi horietan ordaindu gabe ikatza egin eta egurra ateratzeko eskubidea aitortzen zitzaien, eta salbuespena lizarra zen –debekaturik zuten moztea–. Pribilegio hori, Leonor printzesak berretsi omen zuen, eta, 1490 inguruan, adostasun berri batetara iritsi ziren bi herriak. Alde banatatik 10 gizon aukeratu zituzten horretarako, eta beratarrei Etxalarko mendiak ustiatzeko baimena berriz onartu zitzaien. Hortik aurrera, ordea, karga bakoitzeko 5 jakes edo 7 kornadu t'erdi ordaindu beharko zituzten, eta, lizarraz gain, gorostia moztea ere debekatuta zuten. 1520ra hurbiltzearekin liskarrak berriro piztu ziren. Etxalartarrek beren eskumeneko mendien erabilera eta jabetza aldarrikatzen zuten, baita horiek saltzeko zuten eskubidea ere. Ziotenez, azkeneko 30 urteetan ohikoa izan zen mendiak saltzea, eta beratarrek horietan eskubiderik izan bazuten, erosi egin zituztelako izan zen. Gainera, basoa 15 urtetik behin berritzen omen zen, eta orduan saltzen zuten. Beratarrek, aurka, Altzate eta Bera artean bost burdinola zeudela zioten, eta Etxalarko mendirik gabe ezin zutela biziraun. Pribilegioari esker ikatza eta egurra egin eta Bidasoa ibaitik ateratzen zuten. Ezinbesteko baliabidea zen; baso hori gabe ekoizteari utzi beharko zioten. Ondorioz, erregea bera ere kaltetua izanen zen; burdinolek ezinen zuten lanik egin, eta koroak ezinen zituen zergak jaso –aurretik aipatutako tonu beldurgarriaren antzeko arrazoibidea–. Etxalartik ez bazen, gainera, Frantziatik ekarriko zuten ikatza, eta, beraz, aberastasuna ere atzerriko erreinuetara eramanen zuten. Mahai gainean jartzen zuten azkeneko arrazoia Urtubia, Sanper eta beste hainbat etxeren artean izandako liskarrak izan ziren. Azken 15 urtetan ez omen zuten Etxalarko mendietan egur eta ikatzik egin erasoen beldur zirelako. Epaia 1526an eman zuten: beratarrek ez zuten eskubiderik Etxalarko mendietan; horien baimena beharko zuten espreski. Mendiak saldu nahi bazituzten, ordea, erosteko lehentasuna Berako olagizonena izanen zen. Osinola olako Miguel Agerre, Joanes Garmendia, Pedro Migel Rodrigo Izardi; Semeola olako Joangope Rexe, Petri Zelai, Martin Inobi eta Joanes Mitxelena; Olaberria olako Martin Sanz Arostegi, Joan Pena, Migel Pena, Joanes Markabia, Joangope Telletxea, Joan Ezponda, Tomas Benga, Martin Mitxelena, Mitxel Kaso eta Joanetxe Alkaiaga; eta, azkenik, Okurunbe olako Joan Perez Garmendia, Martin Perez Hualde eta Joanes Bikuina ziren hitzarmenean sartuta zeudenak.

Bera eta Etxalarren arteko auzian aipatutako mugen irudikapenetik ikus daiteke eztabaidagai ziren mendien nondik-norakoa. XV eta XVI. mendeen artean, Etxalarren bi burdinola zeuden zenbaturik; Beran, ordea, 10 inguru –jakinik denek batera ez zutela funtzionatu–[45], eta hitzarmenean lau aipatzen ziren: Osinola, Semeola, Olaberria eta Okurunbe. Auziak aditzera ematen duenez, Berako mugetatik at baliabideak bilatzea beharrezko zuten olagizonek. Ohikoa zen Berako burdinolek alboko herrietatik eskuratzea ikatza; esaterako, Lapurdiko Saratik[46]. Badirudi basoaren gaineko presioa areagotzen ari zela burdinolen energia kontsumoaren ondorioz. Hasiera batean, 1428an, hitzarmen baten bitartez adostutakoa, konponezina bilakatu zen XVI. mendera hur-

[44] NAO, AAEE, 248853 p. Dokumentu bereko bi aipamen mugatutako mendien inguruan.

[45] Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización…*op. cit.* 57. J.C. Jiménez de Aberasturik, 1426ean, Beran 5 burdinola martxan zeudela dio: Olaberria, Marzedia, Semea, Inzola eta Garmendia. Jiménez de Aberasturi, J. C. (1980). Aproximación a la historia… *op. cit.* 320.

[46] NAO, AAEE, 86883 p.



Hitzarmenean aipatutako mendien ustezko irudikapena. Iturria: norberak egina

biltzearekin. Ziur asko baliabideen eskasia antzematen hasi ziren, eta kontzejuen aldetik basoaren gaineko kontrola bermatzea kontu garrantzitsua bilakatu zen. Kontzejuen instituzionalizazioa gertatzen ari zen eta basoaren kudeaketa geroz eta estuagoa zen[47]. Auzian Etxalartarrek ere horrela adierazten zuten. Azken 30 urtetan burdinola hainbati saldu zioten mendia hala Etxarlasa olakoei (Etxalar) nola Bereau olakoei (Lesaka)[48]. Hitzarmena sinatu baino 10 urte lehenago Aranoko herriak ere antzeko arazoak izan zituen Arranbideko olarekin. 1415ean hasitako auziak Aranotarrek *Arano* mendian burdinolari ikatza egiteko jarritako trabak azaltzen ditu. Mendiaren jabetzaz gain, ikazkinek basoa soilduko zutenaren beldurra adierazten zuen Aranoko herriak; eta, kontra, Arranbide olako Juan Lopez Legarrak burdinolek ikatza inguruan egiteko zuten eskubidea aldarrikatzen zuen[49]. Berriro ere burdinolaren eta kontzejuaren arteko talka gertatu zen, eta esan liteke hurrengo mendeetan liskarren arrazoi nagusia errepikatu egin zela: basoaren ustiaketa.

Ezkurrako meategiak, burdinolak eta Ezkurrako jauna

Ezkurrako Ollin eta Erkaztia burdinolak XVI. mende hasieran suntsiturik zeuden gerraren ondorioz. 1533an, Ezkurrako kontzejuak berregin eta martxan jartzeko ahalegina egin zuen, eta horretarako hainbat hitzarmen sinatu zituen. Horietako bat kontzejua, Sanzol Huitzi eta Joanes Ezkurraren artekoa izan zen, zeinaren arabera Ollingo burdinola berreginen zuten Ezkurrako jaunaren laguntzarekin[50]. 1514 inguruan, Juan Karantz eta Otxoa Zumarristak Erkazti berregiteko antzeko baimena jaso zuten, eta burdinola martxan zegoen bitartean urteko 10 florin ordaindu beharko zituzten. Era berean, 70 ardi, 12 zerri eta 24 idi edo zamabere izateko eskubidea ere bazuten[51]. Ollin ez bezala, 1533ko hitzarmenaren ondoren Erkaztia ez zuten berritu. Badirudi kontzejuak interesa zuela olak berregiteko; ziotenez burdinaren ekoizpenak sortzen zituen ogibideak herritarren sostengua ziren.

Arazoak Ezkurrako Idokorri meategien ustiaketak sortu zituen. Bertako burdinolak geldirik egotea-

[47] Zabalza, A. (2004). Del concejo al municipio: la propiedad comunal en la Navarra Moderna, *Iura Vasconiae,* 1, 224.

[48] NAO, AAEE, 248853 p.

[49] Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización…*op. cit.* 34-37.

[50] NAO, AAEE, 562 p.

[51] NAO, AAEE, 318239 p.



Ezkurrako herriak osatutako hitzarmenen arabera baliabideen ustiaketa mugen irudikapena

rekin meategien erabilera Eratsungo Zumarrista burdinolari utzi zitzaion, herriari kanon bat ordaintzearen truke. Ollingo burdinola martxan jartzearekin, ordea, erabilerak aldatu egin ziren, eta Juan Martinez Ezkurra Ezkurrako jaunak ere interes bereziak azaldu zituen meategien probetxua eskuratzeko. Hasiera batean, badirudi Ezkurrako jauna zuen influentziaz baliatu zela ustiaketen kontrolean zatia izateko. 1543an, ordea, burdinola berri bat eraikitzeko baimena jaso zuen: burdinola nagusia eta bi olatxo. Lehengaiak ziurtatzen ari zela ikusten da beraz. Batetik, Loza-ko burdinolak eraikitzerako Idokorriko meategietan parte hartzea ziurtatuta zuen, eta, bestetik, kontzejuak zenbait mendiren ustiaketa eman zioten –Ollin olari egin antzera–. Burdinola berria *Loza Arana* izeneko tokian eraiki beharko zuen, bi errekak batzen ziren puntuan. Erreketako ura desbideratu beharra bazuen anteparara eramateko, baimena zuen inguruko lurrak bereganatzeko. Herri lurrak baziren, salbu zen, baina pribatuak izanik, zegokiena ordaindu beharko zuen. Ikatza *Arcazpeas* eta *Basacayza* mendietan egin zezakeen:

> *Item lo libran para hacer carbón para las dos herreri´as en los montes comunes de Arcazpeas y Basacayça que lindan de una parte con Eratsun y de la otra con Beruete y Leyça y con la endrecera de Yzurmugarrieta y por el rió que llega hasta la ferreriá que se edificará, para carbón*[52].

Ezkurrako jaunarekin sinatutako hitzarmenean Ezkurrako herriak auzotarrentzat gordeko zituen mendiak ere zehazten ziren:

> *Item los de Ezcurra se reservan para ellos los montes de Oyarçabala, Urquidia, Alçarreta, Malo, Leguisuar y comenzando desde el rió de Ycorçu hasta las mugas de Eratsun y hasta lo alto en la montaña de Ezcurra Mendia*[53].

8 florin ziren burdinolen eta mendien erabilearen ordainetan ordaindu beharrekoak, eta 6 urtez ordaintzeari uzten bazion, herriak bereganatuko zuen ola. Ezkurrako herriak egin antzera, Eratsungoak ere hitzarmena sinarazi zion Juan Martinez Ezkurrari. Izan ere, eraiki nahi zuen bigarren olatxoa besteen alboan izanik ere, Eratsungo mugetan zegoen. Burdinola txikia eta hirin errota altxatzeko baimena eman zioten, *Ituren* izeneko tokian *Loça* eta *Çaipide* zubien artean[54]. Oso baimen eta erregela antzekoak ziren bi hitzarmenetakoak, baina azken horretan urteko 2 dukat ordaindu beharko zituen Ezkurra jaunak.

[52] NAO, Not. Doneztebe, Pablo Esaiz 17398(2).

[53] *Ibidem.*

[54] NAO, AAEE, 158878 p.

Meategien inguruko ustiaketak sortutako liskarrak 1545ean amaitu ziren. Olllin eta Ezkurrako jaunaren burdinolentzat gordeko ziren horiek:

...por evitar y apartar los tales escándalos, discordias y diferencias, por mejor servir a dios y por que entre las dichas partes aya paz, concordia y buen humor, dijeron las dichas partes y cada uno de ellos que todas las meneras y mena que de presenta hay y las meneras y mena que adelante en todos los tiempos a venir obiere en la dicha tierra y Idocorri dentro de la parte y endrecera que abajo irá amojonado, señalado y limitado haya de ser y será oara agora y para/ siempre [...]comenzando desde el río de Arangayza que divide los términos de la villa de Leyza y del dicho lugar de Ezcurra hacia arriba como corta el monte hayal llamado Anioaundia a Ezquidibiegui como corta a Ydoyaga el vertiente hacia Ezcurra y de hay a la peña de Ezcarain por la esquina hasta encontrar con los términos del lugar de Erasun y el vertiente que cae hacia la herreri´ade Zumarrizta y hasta la presa de ella y Asurarana y desde la dicha presa hacia arriba como corta hasta subir en el sel de Beosoro, el de Ynsoty desde ay a la parte llamada Aquerregueta al salto que llaman Ujancieta hasta bajar al dicho rió de Arangayza [...] gozar y aprovechar en todos tiempo a venir las dichas partes y sus sucesores obientes causa de ellos a medias igualmente. Es a saber Joanes de Ezcurra, Joanes de Gastealopez y Joanes de Ostatua [...] para la dicha herreri´ade Ollin y[...] Joan Martinez de Ezcurra pueda e haya de disponer de toda la mena que a el copiere para su herreri´ao herreriás[55]*...*

Aipatutako hitzarmen eta kontzesio ezberdinek erakusten dute herri lurren mugak ongi zehaztuta zeudela eta horien ustiaketa antolatzeko gai zirela. Ezkurrako iparraldea, salbuespenak-salbuespen, Ollinentzat erreserbatzen zen bezala, Idokorriko meategien barrutia bi burdinolek minerala lortzeko mugatuta zegoen. Herriaren inguruko mendiak auzotarren erabilerarako ziren, eta, azkenik, hegoaldekoak Juan Martinez Ezkurra jaunaren burdinolarentzat gorde ziren. Ikusten denez, kontzejuak izan ziren lehengaien kontsumoa handitzen zen heinean eta liskarrak ugaritzearekin lurraldearen gaineko ezagutza osoa erakutsi zutenak. Eta, interesak-interes, hori kudeatu eta kontrolatzeko gai izan ziren.

Sarasaingo ola

Sarasain burdinola (Leitza) XV. mende hasieratik dokumentatuta dago. 1417an, Karlos III.ak baimena eman zien Martin Laskoain eta Juana Andosilla tolosarrei burdinola berri bat eraikitzeko:

A los dictos Martin et Johana avemos dado et otorgado, damos et otorgamos por las presentes licencia, auctoridat et poder aplido de hedificar et fazer de nuebo una ferrería en el dicto término de Sarasayn [...] ayan entrata et sallida por nuestros yermos et montes et non prejudicando a otras ferrerias ayan et puedan fazer mina, carbón, leynna et agoa en nuestros dictos montes et yermos, así en la forma et manera que las otras ferrerías de nuestro reyno han osado et acostumbrado [...] ellos sean tenidos de venir a fazer su abitazion et morada a nuestro reyno [..]. Asi´, mandamos a nuestro amado et fiel thesorero Garciá Lóppiz de Roncesvalles que a presente es, que al qui por tiempo sea et a tales et quales quiere otros oficiales nuestros aquí pertenezcan, que a los dictos Marti´net Johana dexen et consientan hedificar et fazer de nuebo la dicta ferrería en el dicto término de Sarasayn et fazer mina, carbón et leynna et otras cosas quales sean necesarias ayan en nuestros montes et yermos [..] eximiéndolos de quarteles e imposiciones y otras para siete años [56]*...*

Kasu horretan ere erregea izan zen norbanako bati, edo bikote bati, zuzenean lizentzia eman ziona. Burdinolaz gain etxebizitza eraiki, burdin mea aurkitu, ikatza eta egurra egin eta ura erabiltzeko baimena ere lortu zuten. Halaber, eraikuntza berriak sor zitzakeen gastuei aurre egiteko 7 urtetako zerga salbuespena aitortu zitzaien. 4 urte geroago, 1421ean, Kontuen Ganbera izan zen Sarasaingoei Eskibar burdinolaren meategietatik mea ez ateratzeko abisua eman ziena[57]. Eta, 1424ean, Pedro Perez Andosillak 15 urtez zergen beste salbuespen bat lortu zuen Karlos III.aren eskuetatik[58]. Sarasaingo olaren inguruko notizia berriak aurkitzeko, ordea, 1550eraino egin beharra da salto. Zenbait erre-

[55] NAO, Not. Doneztebe, Beltran de Goizueta, 17414(4).

[56] NAO_CO_Dok., kaj. 115, n. 15, 3.

[57] NAO_CO_PS., s.2, leg. 13, n. 13.

[58] NAO_CO_Dok., kaj.123, n.2(1).

ferentzien arabera badirudi bitarte horretan burdinola Iruñeko Kruzat-arrena izan zela[59]. 1513ko Rodrigo Etxarriren zerrendan suntsitua agertzen da[60], eta 1550ean, Leitzako kontzejuak Martin Perez Segura donostiar merkatariari eman zion burdinola berregiteko baimena. 1550eko dokumentuak, 1673an berridatziak[61], Sarasaingo ola berreraikitzeko nondiknorakoak gordetzen zituen. 1417an gertatu antzera, ez zioten soilik burdinola egiteko baimena eman: etxebizitza, baratzea eta errota ere berregin zitzakeen, eta burdinola nagusiaren alboan olatxoa eraikitzeko aukera ere bazuen:

> *…asi´bien declaramos que el dicho Martiń Pérez pueda fragoar, edificar y azer una ferreriá o martinete, fundición de pelota o otro qualquiere edificio que a él bien bisto le fuere con su casa tan grande quanto quisiere y tuviere menester la dicha ferrería junto y apegado a la estolda del sitio de la dicha ferrería de Sarasayn*[62]…

Burdinola produkzio konplexu zabal baten erdia zen soilik, eta, beraz, arduradunak basoa ustiatzeko, ikatza egiteko, minerala bilatzeko eta aziendak ukuiluratzeko baimena ere jasotzen zuen: 24 idi, 80 ardi, 20 ahuntz eta 18 zerri izan zitzakeen Sarasainek. Era berean, burdinolaren erabilera mugetan gelditzen ziren lurrak kontzejuak ezartzen zituen:

> *... puedan cortar y talar, corten y talen pa la dicha ferrería pa fazer carbón y leyna todos los montes que tubiere menester, a saber es començando en la fuente de Yaben, como biene el camino de Urdola hazia la dicha ferreri´ade Sarasayn, todos los montes fuera de los seles y desde la dicha fuente hazia arriba asta Perticaleta y desde allá hasta Echortolla hasta Herroyzta y Areçemalcor y d'alli hasta el sel de Labate y el sel de Mendibil y hasta el sel de Satolar y d'alli a Bellarayn y desde alli a cualquiere en lo más alto del prado y el sel de Urdola, todo comprendido hasta la dicha ferreri´ade Sarasayn ...*

Sarobeak ziren salbuespena. Orokorrean burdinolek ez zuten horietan egurra eta ikatza egiteko baimenik izaten. Sarasainen kasuan, eraikinak kontzeko zura sarobeetan egiteko kontzejuari lizentzia eskatu beharra zen, eta markatutako zuhaitzak soilik erabil zitezkeen; Gorostia moztea baimenduta zegoen, baina haritza eraikuntzarako eta, bereziki, zubiak egiteko gorde beharra zen. Ordainetan Martin Perez Segurak 27 florin eman beharko zizkion Leitzako kontzejuari urtero. 1584ean, hitzarmen berri bat sinatu zuten kontzejuarekin, eta Leitzako abade Fermin Arano goizuetarra zen Sarasainen jabe berria[63]. Perez Seguraren antzeko hitzarmena sinatu zuen, baina bazituen zenbait aldaketa. Burdinola berriro eraiki edo konpondu beharra zenez, abadeak etxe berri bat eta bigarren olatxo bat egiteko baimena eskuratu zuen. 32 idi izan zitzakeen ardi, ahuntz eta zerriekin batera; sarobeak gorde beharko zituen, eta beharrezko lizentziak eskatu; lizarrak ezin ziren ikatza egiteko erabili; sarobeetako gorostiak ezin ziren moztu, soilik kanpoan zeudenak, eta horiek mantentzeko lepatu egin beharko zituzten; eta haritzondoetan ikatza egiten bazen, zenbait zuhaitz zutik utzi beharko ziren beti. Fermin Arano abadeak 9 dukat urteko ordaindu beharko zizkion kontzejuari, eta 1550eko mugez gain, *Ayzaran*, *Erroizta Garaicoa* eta *Erroizta Azpicoa* sarobeak gehitu ziren hitzarmenera.

Dokumentazioak aditzera ematen duenez, XVI. mendetik aurrera ohikoa zen kontzejuek burdinola bakoitzari muga batzuk ezartzea. Orokorrean, burdinolaren inguruko basoetan ikatza eta egurra egin eta animaliak bazkatzeko baimena izaten zen. Ola bakoitzari erreserbatutako mugak ziren, eta, ikusi denez, kontzejuak ezartzen zituen arauak edo erregelak. Horrek esan nahi zuen muga horietan beste burdinola bateko ikazkinek ez zutela eskubiderik, salbuespenak-salbuespen –auzi asko sortu ziren basoaren erabileraren inguruan–. Sarasaingo olari ezarritako mugak, toponimiaren azterketaren eta identifikazioaren bitartez, Leitzako Urdiñola, Eleuna eta Iberoko olei ezarritakoekin parekatu dira, eta errepresentazio horrek erakusten du barrutiak ez zirela gainjartzen:

> *Es a saber principiando desde la endrecera de Larrazubi, de junto a la presa de la herrería de Zibola hiendo por el rio que baxa de Arangarra (¿) a Goyzueta, y de Goyzueta, para la villa de Leyza*

[59] Vázquez de Prada, V. (2015). *Mercaderes navarros en Europa (siglo XVI).* Iruñea: Nafarroako Gobernua, 185; NAO_AAEE_11395 p.

[60] NAO_CO_Reg., s.1, n.541-2.

[61] LeitzaUA, 3 ps., 2 k. (1550); LeitzaUA, 3 ps., 3 k. (1673).

[62] LeitzaUA, 3 ps., 2 k.

[63] LeitzaUA, 3 ps., 9 k.. 1563an, Antonio Elizalde tolosarra zen Sarasaingo jabea. Besteak beste, Leitzako Urto eta Eskibar olen jabegoa ere izan zuen (NAO, Not. Doneztebe, Pablo Esaiz, 17408(2)).



1550/1584ko Sarasaingo mugen eta 1618ko Urdiñola, Eleuna eta Iberoko mugen ustezko irudikapena. Iturria: norberak egina.

hasta la herrería de Ybero y de allí como corta y corre el dicho rio que esta mas abajo de la herrería de Ollin sin llegar a la parte de Goyzueta, y de allí, pararriba como corta el cerro al sel de Galbano y de allí enbajo Ybarrola(¿) al sel de Guerinate(¿) y desde el dicho sel para arriba a Lerrinarte al sel de Satolar para lo alto de Anizabaleta y de allí por el cerro arriba a Baurrin y de allí a Usateguieta tomando el alto de Urepel bajando al sel de Ytola incluyendo dentro el dicho sel, y desde allí baxando por el regacho que ba a la herrería de Eleuna y de allí por el rio abaco a la herrería de Urdinola y de allí como corta este rio asta abajo asta el dicho puesto de Larrazubi y presa de Zibola, de manera que todo lo incluso dentro del dicho circuito, y no más, sean limitaciones de las tres herrerías y fuera de ellas no hagan ni puedan los dichos defendiente leñar ni carbonear ni en los seles que ay dentro de ellas si no es guardando la forma y orden[64]*…*

Kontsultatutako dokumentazioaren azterketa toponimikoaren bidez, burdinolek izango lituzketen mugak ikus daitezke. Auziak errepikakorrak eta elkarren segidakoak ziren, ordea, eta horrek erakusten du ziurrenik muga horiek ez zirela ontzat hartzen edo, gutxienez, erabat errespetatzen. Hala ere, lurraldea eta horren garrantzia ikusteko modu egokiak dira horrelako irudikapenak. ■

BIBLIOGRAFIA

Alberdi, J.I. (1994). Aproximación al estudio de las ferrerías navarras en la Edad Media. *III. Congreso General de Historia de Navarra* (bertan aurkeztua) Iruñea.

Aragón, A. (2012). Las ferrerías guipuzcoanas ante la crisis del siglo XVII. *Cuadernos de Historia Moderna,* 37, 73-102, 83.

Aragón, A. (2014). «...Faltar y ausentarse con esto los naturales de esta provinçia y quedar despoblada y hierma, sin defensa alguna...» discursos de frontera en Gipuzkoa durante la Edad Moderna. *In* J.

Agirreazkuenaga & E. J. Alonso (ed.), Estatu-Nazioen Baitako Nazioak: Naziogintza Kulturala Eta Politikoa, Gaur Egungo Europan, Barcelona: Editorial Base, 401-410, 405.

[64] LeitzaUA, 3 ps., 11 k.: 1619an, Lorentzo Bergara eta Juan Alduntzin Ibero, Urdiñola eta Eleuna olen jabeei ezarritzako mugak (1588 eta 1599ko auzien jarraipena).

Aragón, A. (2015). Comercio, transporte y confilctividad en la frontera entre Guipúzcoa y Navarra durante la primera mitad del siglo XVI. *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 48, 19-55.

Caro-Baroja, J. (1971). *Etnografía Histórica de Navarra.* Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa.

Díez de Salazar, L.M. (1989). Fueros de ferrerías de Cantabria, Vizcaya, Alava y Guipuzcoa. *Documentos para la Historia del Derecho Español,* 59, 597-632.

Erdozain, P. eta Mikelarena, F. (2002). Siderurgia tradicional y comunidad campesina. La gestión de las ferrerías municipales de Lesaka y Etxalar en 1750-1850. *Vasconia,* 32, 491-515.

Fernández de Mier, M. (2006). La toponimia como fuente para la historia rural: la territorialidad de la aldea feudal, *Territorio, Sociedad y Poder,* 1, 35-52, 41.

González-Enciso, A. (2013). Asentistas y fabricantes: el abastecimiento de armas y municiones al Estado en los siglos XVII y XVIII. *Studia Historica. Historia Moderna,* 35, 269-303.

González-Enciso, A. (2020). La fundición de Eugui en el reinado de Carlos II. *Espacio, Tiempo y forma. Serie IV Historia Moderna,* 33, 117-138.

Idoate, F. (1960). Notas para el estudio de la economía navarra y su contribución a la Hacienda Real (1500-1650). *Príncipe de Viana,* 21, 77-129.

Idoate, F. (1997). *Rincones de la Historia de Navarra.* Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Jiménez de Aberasturi, J. C. (1980). Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa. *Príncipe de Viana*, *41*(160), 263-410.

Lacarra, J.M. (1975). *Historia del reino de Navarra en la Edad Media*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa.

Miranda, F. (1993). *Roncesvalles. Trayectoria patrimonial (Siglos XII-XIX)*. Iruñea: Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Saila.

Mitxelena, A.M. (2020). *Goizueta eta inguruko burdinolak. Itxura, datuak, dokumentuak eta hiztegia,* autoeditatua.

Mugeta, I. (2005). Minería cuproargentífera en el reino de Navarra (siglo XIV). *Príncipe de Viana*, 235, 405-428.

Mugeta, I. (2008). La botiga del hierro. Fiscalidad y producción industrial en Navarra (1362-1404). *Anuario de Estudios Medievales AEM*, 38/2, 533-584.

Mugeta, I. (2010a). La primera industrialización en Navarra: La frontera de malhechores (1321-1335). *Huarte de San Juan*, 16, 9-58.

Mugeta, I. (2010b). El comercio de hierro entre Navarra y Aragón (1349-1387). *In* E. Ramírez & S. Salicrú i Lluch, *Cataluña y Navarra en la Baja Edad Media*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 165-224.

Mugeta, I. (2013). Les territoires de la sidérurgie médiévale au Pays Basque et en Navarre. *In* C. Verna & L. Hilaire-Pérez, *Les industries rurales dans l'Europe médiévale et moderne*. Tolouse: Presses universitaires du Mirail, 63-76.

Mugeta, I. (2019). Las ferrerías de Anizlarrea (siglos XIII-XVI). *In* Aranzadi Zientzia Elkartea, *Artikutza. Natura eta Historia*. Donostia: Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza , 90-111.

Orella, J.L., Sain, P.J. eta Anchón, J.A. (1987). *Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los s. XIII y XV: relaciones, intereses y delimitaciones de la frontera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Pescador, A. (2019). Artikutza/Anizlarrea. Historia y documentación medieval. *In* Aranzadi Zientzia Elkartea, *Artikutza. Natura eta Historia*. Donostia: Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza, 44-65.

Puche, O. eta Espí, J.A. (2005). Un caso singular de patrimonio histórico minerometalúrgico: la fábrica de armas de Orbaiceta, Navarra, España (1784-1873). *In* O. Puche eta M. Ayazagüena (koord.), *Minería y metalurgia históricas en el sudoeste europeo,* 433-476.

Rabanai, A. (1987). *Las Reales Fábricas de Eugui y Orbaiceta.* Iruñea: Vianako Printzea Erakundea.

Riesco, P. (2010-1). Nombres en el paisaje: la toponimia, fuente de conocimiento y aprecio del territorio, *Cuadernos Geográficos,* 46, 7-34, 8.

Sánchez-Delgado, A.C. (2001). La Real Fábrica de Orbaiceta (Navarra). Arqueología industrial y campos de trabajo, 1986-1991. *Trabajos de Arqueología Navarra,* 15, 269-295.

Vázquez de Prada, V. (2015). Mercaderes navarros en Europa (siglo XVI). Iruñea: Nafarroako Gobernua .

Zabalza, A. (2004). Del concejo al municipio: la propiedad comunal en la Navarra Moderna, *Iura Vasconiae,* 1, 224.

Zudaire, E. (1979). Ferrerías del Real Monasterio de Urdax. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 31, 125-177.

Kolaborazioak
Colaboraciones

KIMU BERRI:
Inork agindu gabeko auzolan ederra

Felix Ibargutxi

“2022an berrogei urte bete dira guraso batzuek Lakiola gaineko Kimu Berri aterpea egin zutela, haurrek naturarekin harreman sendoagoa izan zezaten”

2022an 40 urte bete dira Lakiola aldeko Kimu Berri aterpea inauguratu zela. 1982ko urriaren 24an izan zen inaugurazio-festa. Aurretik, zenbait hilabetetan zehar, jo eta ke jardunak ziren ikastolako zenbait guraso eta baita bestelako gizonezko batzuk, eraikin hura egiteko. Batzuek igeltsero-lana egin zuten, beste batzuek harriak garraiatu, izan zen arotz-eta iturgin-lana egin zuenik ere. Auzolanaren etsenplu garbia.

Legazpiko ikastolak Kimu Berri zuen izena orduan. Geroago aldatu zioten deitura, egungo Haztegi ipintzeko. Orduko guraso talde baten ekimena izan zen aterpea eraikitzea. Hasiak ziren haurrekin mendi-irteerak egiten eta, umeek naturarekin lotura estuagoa izan zezaten, aterpetxe moduko eraikina egitea pentsatu zuten. Lakiola gainean dagoen Ardanbideta izeneko paraje laua jo zuten begiz eta jabeari eskatu zioten.

Lursail haren jabea, eta Lakiolabekoa baserriarena, Agustin Agirre zen, oso gizon ezaguna, Urretxuko alkate izandakoa. 25 urterako utzi zien lursaila.

Ekimena eta ekintza gurasoena izan zen. Ikastolak, erakunde gisa, ez zuen parte hartu. Dirua lortzeko, guraso horiek paper eta kartoi bilketari ekin zioten. Hainbat asteburutan, herriko zenbait kamioi hartuta, besteak beste Basaberena, dendaz denda-eta ibili ziren, batutakoa gero herriko paper-fabrikan entregatzen zutelarik. Eraikitze-lanetarako, material asko Moyuak Oñatin zeukan almazen batetik hartu ziren, eta Legazpira ezkondutako Jesus Olaizola urretxuarrak eramaten zituen kamioian Ardanbidetaraino. Moyuako enplegatua baitzen Olaizola. Beste material batzuk, Luis Sukia Muruaren bidez eskuratu ziren; gizon hau orduan etxeak egiten ari baitzen Laubide aldean.

Armando Martinez izan zen lantegi horretan gehien saiatuenetako bat, eta bere testigantza jaso dugu. Orain Galizian bizi da, Vigo aldean. Adierazi digunez, igandeetan egiten zituzten mendi-irteerak ikastolako umeekin. “Aukeratu genuen Ardanbideta, besteak beste ikusi genuelako han harrizko pareta luzea zegoela, eta harri hura aprobetxatu genezakeela”. Traktoreak bilatu zituzten harriak kargatzeko eta, asteburu denak horretan emanda, jo eta su jardun zuten gurasoek. “Ez zegoen talde finkorik, batzuetan dozena bat lagun biltzen ginen, beste batzuetan gehiago”. Lantegi horretan, Armandorekin batera, Jose Egaña nabarmendu zen, besteak beste. “Gu biok aste barruan ere joaten ginen batzuetan. Ordu asko sartu genituen, emaztea ia-ia banandu zitzaidan”, esan digu umoretsu.

Eraikina bi solairukoa da. Behekoak harrizko paretak ditu, goikoa paretak blokeekin egin ziren. Behin, Jesus Olaizola bloke horiek garraiatzen ari zela, pistatik atera zitzaion kamioia eta ez atzera ez aurrera gelditu. Egizabalgo Santi Zabaleta azaldu zen eta honen kamiora pasa zuten zamaren parte handi bat. Halaxe, Olaizolak atera ahal izan zuen bere kamioia. Teilatuko lanak Laubideko igeltsero galiziar batek egin zituen, Alfredo izenekoak.

Obraren ardura teknikoa, Francisco Javier Elorza arkitekto legazpiarrak hartu zuen bere gain. “Gero haserretu egin zitzaigun, goiko pisuaren diseinua ez genuelako errespetatu eta bertan bizitza jarri genuelako. Esan zigun oker gura ‘konpontzeko’ aterpe

2009. urteko erromeria-egunean (JLU).

aurreko portxea egiteko, ez zegoen aurreneko proiektuan, egin genuen eta bakea", esan digu Armando Martinezek.

Jende askok jardun zuen lanean. Paper bilketan gogotik egin zuen lan Julian Perez de Albenizek, adibidez. Jesus Mari Garmendia zenak ere (Garmendia Haundiak) lan asko egin zuen eta Añorgako fabrikara joan zen porlana modu onean inguratu nahian. Garmendiaren seme Rubenek esan diguna: "Nik orduan hemezortzi urte nituen. Gogoan dut aita nola ibili zen, lehenengo egun haietan, lursaila neurtzen, Txispirekin batera".

Urtatzagarako Manuel Aztiria zena askotan azaldu zen Ardanbidetara han eta hemen laguntzera. "Antzuolatik ere etortzen ziren batzuk laguntzera. Herrian jende askok lagundu zigun, Gurrutxaga tabernan ardo-garrafoiak eman zizkiguten, Intxausti harakinak ere eman zigun generoa…", dio Armando Martinezek.

Aipatu beharreko beste izen batzuk: Cesareo de la Presa (era askotako lanak egin zituen) eta Jose Luis Mantxola (Kutxako enplegatua izan eta dirukontuez arduratu zen). Arsuaga erlojeroak ere behar du aipamena; beronek aurkitu zuen ura, 'zahori'-lana eginez, eta goi-aldeko iturburu hartatik hartu zen likido preziatua, gero aterpe ondoko depositua betetzeko.

Bukatu ziren eraikitze lanak eta 1982ko urriaren 24an izan inaugurazioa. Atarian, 'Aita Juanjok' (Juan Jose Lizartzak) meza eman zuen. Orduko argazkietan ikus daitekeenez, Agustin Belokik bertsotan egin zuen elizkizunaren barruan.

1990ean aldaketa handia gertatu zen Ardanbidetako aterpetxean: lehengo zesio edo lagapena salerosketa bihurtu zen: lursail hau Legazpiko Udalari saldu zion Agustin Agirrek. 1.055 area eta, prezioa, 8 milioi pezeta. Artean Prontxio Larrañaga zegoen alkate. Salerosketa agirian azaltzen diren muganteak: iparraldean, Jose Ugalde; hegoaldean, Agirre Azurmenditar anai-arrebak, Zenon Irizar (Zabalotegi) eta Agustin Ibarguren (Lakiolaaundi); ekialdean, Urretxu-Zumarragako Ugaldetarren herederoak; mendebaldean, Agustin Ibarguren.

2010ean Kimu Berri kultur elkartea sortu zen, zenbait pertsonak osatua eta, tartean, Izadi Zaleak elkarteko lagun batzuk. Cesareo de la Presa dugu hasierako lantalde hartako pertsona bakarra orain elkartean dagoena. Aterpea eta lursaila Udalarenak dira, baina talde honek gobernatzen du. Garai hartan obra handia egin zen eraikinean, eta sukaldea

Garmendia, Olaizola, Errasti, Mujika eta Egaña (Armando Martinezen funtsa, AMF).

Blokeak kargatzen (AMF).

Aterpearen orubea (Julian Auzmendi).

“Garmendia haundie” (Izadi Zaleak).

Paretak egiten (Julian Auzmendi).

Teilatua egiten (Izadi Zaleak).

Aterpea ia amaituta (Izadi Zaleak).

Inaugurazio egunean (AMF).

Inaugurazio eguneko mezan Juanjo Lizartza abadea (ikastolako irakasle izana) eta Agustin Beloki bertsolaria kantuan (AMF).

eta komunak berritu. Egun 41 lagun dira elkarteko kide. Ikastolako ikasturtea bukatutakoan batzarra egin ohi du elkarteak eta orduan, zozketa bidez, erabakitzen da lagun bakoitza zein igandetan arduratuko da aterpean salda emateaz bertatik pasa nahi duten guztiei.

Behin lapurreta gertatu zen. Lagun batzuk, elkarren gainean jarrita, teilatura igo ziren, eta hango leihoa puskatuta, barrutik koltxoi batzuk eraman zituzten. Hura izan zen aterpetxearen inguruko albiste txar bakarra.

Esanda bezala, haurren mendi-irteerak zirela-eta egin zen aterpetxea 1982an. Aspaldi bukatu ziren umeekiko irteera horiek, eta orain, aterpetxearen eginkizun ohikoena zera da, parean tokatzen diren mendizaleei salda ematea.

Paraje honen historia

Lakiolaetxeberriko Blas Kortazarrek paraje hura larre-toki huts ezagutu zuen, eta buelta guztian harrizko pareta. Gero, pareta horietako harri gehienak, aterpetxea egiteko erabiliko ziren. Aspaldi, Lakiolabeko maizterren ardiak larratzen ziren hor. Gero, Juan Antonio Esnaolaren familiak alde egin zuenean, Lakiolaaundiko Ibargurendarrak hasi ziren harutza ardiak bidaltzen.

Orain Udalak egindako txabola hori dagoen tokian, garai batean eillor txikiagoa zegoen, bere eskorta zeukana; eta, aterpetxera ematen duen aldean, txabolaordea zegoen, kamaina zeukana.

Larre-toki eta zelai izan zen hogeigarren mendean zehar, baina horren aurretik pagadia zen, parte batean behintzat. Horko jabeak Lakiolabeko Agirretarrak izan ziren eta izan dira duela gutxi arte, baina ez beti: 1879an, Lakiolabeko Jose Joaquin Agirre Mantxolak (Legazpi, 1841-1911) horko pagadia erosi zion Francisca Agirre Mendizabal izeneko alargun bati. Lursail handia zen, 1.068 areakoa, 106.800 metro koadro, beraz; eta Antzuolako partean zegoen. Franciscak aitarengandik (Jose Maria Agirre Azpilleta) jasoa zuen lursail hori herentzian.

1945ean, Lakiolabeko jabea zen baina Urretxun bizi zen Jose Agustin Agirre Iturbek (Lakiola, 1873, Agustinen aita) Lakiolaaundiko Agustin Ibarguren Pagolari utzi zion Ardanbidetako larreen eta txabolaren erabilpena. Urtean 250 pezeta ordaindu beharko zuen honek, eta baita ere Lakiolabeko sail guztien garoa aprobetxatzeko eskubidea eman zitzaion, salbuespen batekin: Kantera-azpiko saila.

Pasalekua izan da betidanik

Oraindik hainbeste urte ez dela, jendea oinez joaten zen herri batetik bestera. Batzuetan bide erosoerosoa izango zuten, laua, erreka edo ibai-ertzen batetik; beste batzuetan mendiak zeharkatu beharko zituzten, eta jeneralean, ahal zela, alferrikako aldaparik gabe eta tontorrik zapaldu gabe egingo zuten.

Ardanbideta pasaleku oso garrantzitsua izan zen. Erreparatu diezaiogun toki-izenari. ‘Ardo’ esateko hitz zaharra ‘ardano’ zen, eta ‘ardanbideta’-k adierazten digu ardoa garraiatzen zen parajea zela hura. Aspaldiko garaietan, eta baita gure guraso eta aitona-amonen garaian ere, hortik pasatzen zen Urola eta Debako arroak lotzen zituen bideetako bat. Alegia, Oñati eta Arantzazura joan nahi zuen azpeitiarra hortik pasako zen; eta baita Zumarragara edo Azkoitira joan nahi zuen oñatiarra ere.

Zehatzago esanda, duela 50 urte Oñatiko baserritar asko pasatzen zen Ardanbidetatik Zumarraga aldera; batzuk, beren generoa saltzeko, adibidez azokan, eta beste batzuk trena hartzeko; tren-geltokiak bat baino gehiago ziren Zumarragan, gainera.

Adibidez, 1933an Oñatiko Koixkargaraikoan jaiotako Bixenta Aiastui Aiastuik azaldu digunez, “Eltzikorta baserriko Julian Erostegi (1911) oso zen Zumarragara mendiz joatekoa, askotan denbora-pasa, aparteko eginkizunik gabe”. Eta Bixenta bera ere, gaztetan, nahiko sarri joan ohi zen Zumarragara lehengusina bati bisita egitera.

Lakiolaetxeberriko Blas Kortazarrek kontatu diguna: “Zumarragako feriara joaten ziren Oñati aldeko baserrietako emakumeak, asto gainean: Eltzikortakoak, Korosokoak, Lizargaratekoak… Orduan igandean zen azoka. Askotan ikusi nuen Korosoko Ermeregil (Igartua abizenekoa), hura astero pasatzen zen. Gero, 3rak edo 3:30ak aldera, atzera Zumarragatik gora azaltzen ziren emakumeak, baina orduan asto gainean”. Blasek dioenez, oñatiar horiek, goizean, Ardanbidetatik pasa ostean, Lakiolaetxeberri ondo-ondotik pasatzen ziren, garakaldetik, handik Otsazuloetara, eta Mendiarasgoiko aldera azaldu. Otsazuloeta “terreno laua” da, laugunetxo bat.

Mendiaraspeko Pepita Etxeberriak (1930ko hamarkadan jaioa) gogoan du nola santalutzitan “Oñatimendiko” lagun asko pasatzen ziren bere baserritik. Haiek Otsazuloetatik zetozen, “gure goiko txabola aldetik, baina Mendiarasgoikotik pasa gabe. Santalutzitan, haietako asko behorrak saltzera edo erostera etortzen ziren”. Zaldia ere erosiko zuten batzuetan, Oñatimendikoek zaldia edukitzen baitzuten soziedadean, gero medikuak erabil zezan. Udaberri hasieran ere Oñatimendiko baserritar asko azaltzen ziren Otsazuloetatik behera Mendiaraspera, astoarekin arkumeak hartuta; Zumarragako harakinei saltzeko, edo tren-geltokira joateko, gero Ordiziaraino egiteko.

Mendiarasgoikoko Antonio Aztiriak dioenez (hau, berriz, Urtatzagarakoan jaioa), batik bat trenera joateagatik azaltzen ziren oñatiarrak. Eta kontuan hartu behar da hiru tren-geltoki zeudela garai batean Zumarragan. “Otsazuloetako zabalera azaltzen ziren, eta han bi bide hartu daitezke. Bata hartu ezkero, Lekuonako txabola, Bentatxo eta Zurrantegira joango ziren; baina gehienak Mendiaspera jaisten ziren, eta horretarako ezker aldera hartzen zuten, eta gero Galdosko sailetatik behera joaten ziren”.

Lakiolaetxeberriko Blas Kortazar bera ere behin baino gehiagotan joan zen etxeko behia hartuta Oñati aldeko baserri haietara: Duruanera, Askazubira, Eltzikorta, Sarramendi, Lizargaratera… Haietan zezena egoten baitzen, Diputazioarena. Dirudienez, urte batetik bestera baserriz aldatzen zuten zezena. Orduan ez zegoen behi pinttorik (frisoirik); suizak izaten ziren, edo ‘herri-behiak’ (gorriztak).

Gainera, duela laurogei urte ere erromeri tokia izan zen Ardanbideta. Lakiolaaundiko Mª Luisa Ibargurenek esan digunez, berak hamahiru urte zituela behintzat egin zen. Aldi gehiagotan ere egingo zen. Putxuniketan jolasten omen ziren. Irimo eta Basaldeko neskak agertzen ziren, Kaminpeko Maria, Mendiarasgoikoko Ines… Pedro Ezkibeletak ahoko soinua jotzen omen zuen, oso ondo.

Promesa egindakoen bidea

Nondik zen “Oñatimendikoen” bide hau? (edo, alderantziz, Lakiola aldetik Oñatira joateko bidea?) Pentsatzekoa denez, orduko ibiltariak praktikoak ziren eta ez zuten alferrikako aldaparik igo nahi. Arrolamendiko tontorrik zapaldu gabe ibiliko ziren. Blas Kortazarrek gogoan du oraindik nondik zen Ardanbidetatik gora Oñatiko Koroso baserrirantz zihoan bidea. Hona bere azalpena: “Lakiolaaundiko txabola pasata, eskuinaldera, Antzuolako lursailetara, eta pasatu behar da lausoniana dagoen bide batetik, gero abeto sail batetik, eta, halaxe, Korosoko bi txaboletaraino; aspalditik daude erorita”.

Izan ere, Ardanbidetatik gora Lakiolaandiko eillorra dago. Handik goraxeago, historiaurreko tumulua pasata, Motxa(re)n Eskorta dugu, aspaldiko eillor baten aurriak, hondakinak. Eta metro gutxi batzuk gora eginda, eskuinetara jotzen da. Antzuolabaso hasten da han. Zehar-zehar doa bidea, aldaparik gabe, Argilekuraino. Lehen zatian pista dago, eta Korosoko txabolen inguru horretan bide zaharra zapalduko dugu, ertzean harlauzez hornitua.

Agustin Agirre (Ardanbidetako nagusia) bere hiru alabekin: Miren, Eguzkiñe eta Nekane (Familiak emana).

Lakiolaaundiko Mª Luisa Ibargurenek azaldu digunez, bera gazte zela Orioko bi mutilek bere etxean pasa zuten gaua. Promesa egina zeukaten Arantzazura joango zirela erromes, oinez, eta horretan ari ziren. Mutil haietako bat behintzat Itxaspe baserrikoa zen. “Hainbeste ibili zirenez, lo egin eta hurrengo goizean ezin zuten pausorik jo. Esan genien joateko Eguzkitzako etxabola aldera, eta handik Arantzazu ikusiko zutela”, dio Maria Luisak.

Argitu ahal izan dugu aspaldiko gertaera hura. Protagonista nagusia Joxe Antonio Irastorza Zabala dugu. Oriotarra zen, Itxaspe baserrikoa, eta bertako ‘Virgen Carmeli’ baporean ari zen lanean. Artean 19 urte zituen. 1952ko apirilaren 22an, lanak bukatuta bazihoan ontzia portura, eta horretarako Orioko barra pasa behar, toki malapartatua, hainbat ontzik une larriak bizitutako lekua. Han zela, baporea irauli egin zen eta bost marinel itota hil. Bi marinel bodegan ari ziren lanean eta hantxe preso gelditu. Horietako bat, Joxe Antonio Irastorza. Kanpotik, aizkora hartuta, lortu zuten zuloa egitea, eta Joxe bizirik atera zuten; beste laguna hil berria zegoen. Estutasun hartan zeudela, promesa egina zioten Arantzazuko Amabirjinari: haraino joango zirela oinez eta hankahutsik.

Iñaki Iturain oriotar historialariak 2016ko ‘Itsas memoria’ aldizkariko ‘Una mirada al mar y a sus historias desde Orio’ artikuluan dioenez, Joxek lau hilabete eman zituen ospitalean eta, handik irtendakoan, promesa betetzeari ekin zion: Oriotik abiatuta, Zumarragaraino iritsi zen, baina handik aurrera ezin segi, oinak txikituta zituen eta. Frantziskotar batek esan zion nahikoa zuela, horrekin betea zuela promesa. Baina Joxe Antoniok ez zuen etsi. Haren7 alaba Anak esan digunez, batzuetan anaia Joxe Marik lagunduta, beste batzuetan anaia Juan Joxeren konpainian egin zituen beste ahalegin batzuk eta azkenean bai, lortu zuen Arantzazuraino oinutsik heltzea, oinak odoletan zituela.

Familia horretan berebiziko jaiera zegoen Arantzazuko Amabirjinarenganako. Joxe Mari Irastorza eta bere anaia Juan Joxe urtero joaten ziren Arantzura oinez, Joxe Antoniorena gertatu baino lehen. “Bi anaiok harrobian egiten zuten lana eta harria puskatzeko lehergailua jartzen ari zirenean lehertu egin zitzaien. Juan Joxek bixta galdu zuen eta Joxe Marik zauriak zituen buruan. Istripua gertatu ostean promesa egin zuten urtero, ahal zutenean behintzat, Arantzazura joateko. Gero gertatu zen nire aitarena eta jarraitu zuten bai nire aitarekin, eta baita bestela ere Arantzazuko bidea egiten”, adierazi digu Joxe Antonioren alaba Anak.

Joxe Antonio, beste bi anaiak baino gazteagoa zen, eta beste ama baten seme. Bera Irastorza Zabala

zen; Joxe eta Joxemari, berriz, Irastorza Aizpurua.

Baina, dirudienez, Luisa Ibargurenek esandakoa aintzat hartzen badugu, Lakiolara azaldutako mutil haiek ez zuten egun hartan Ardanbideta zapaldu, eta beheragotik, beti Legazpiko partetik, egin zuten Oñati aldera.

‘Erratzu’ artzainaren topalekua

Bestalde, Kimu Berri ondoko etxabolan jende askok egiten zuen lo, Lakiolaandiko Mª Luisa Ibargurenek adierazi digunez. Eta Lakiolaetxeberriko Blas Kortazarrek esana: Urretxun bazen ‘Erratzu’ esaten zioten ardi-tratante bat, Xixilio Gisasola, ardi zaharrak erosten zituena Arrolamendiz bestaldeko Sarramendi eta inguruko baserrietan. Lehenbizi, egiten zuen ardiak erosi eta markatu. Jartzen zuen entregatzeko egun bat, eta tokia Ardanbidetako etxabola izaten zen. Halaxe, esandako egunean baserri haietakoak Ardanbidetara joaten ziren beren ardiekin, eta han tratantea edukitzen zuten zain. Sarramendi baserriko Mielanjel Kortabarria bera ere eginda dago lan hori, “eta zeharbidetik ibiltzen ginen, Arrolamendiko tontorretik pasatu gabe”. Gero Xixilio horrek oinez eramaten zuen artaldea behera aldera.

Erratzugoikoa baserrian jaioa zen Xixilio Gisasola, Santa Barbarako ermitatik gertu, baina Urretxuko Labeaga kalean bizi zen, Isabel taberna-jatetxetik gertu. Haren aita, Gegorio, izan zen ardiekin etengabeko tratuan ibiltzen zena, baina Xixilio ere aritzen zen. Biloba Ignazio Galdonak adierazi digunez, Xixilio asko aritzen zen arkume-narruak erosi eta saltzen, eta Urbiatik gaztak ekartzen zituen, Otsaurteraino trenez joanda.

1930eko hamarkada bukaera aldera, Gregorio Gisasolak Urasandi baserria erosi zuen Zumarragan, oso-oso hondatua zegoelarik, eta guztiz berritu, gero maizterrak bizi izan zirelarik bertan.

Mielanjel Kortabarria oñatiarrak esana baita ere: Santalutzitara behor eta moxal asko eramaten ziren Aurrekomenditik, zeharbidetik joanda Ardanbidetara, eta handik Zumarragaraino. Mielanjelen aitak, Gregorio Kortabarriak, esan ohi zuen: “Bakerik handiena, behorrak kendutakoan”. Hori 1950. urte aldera izan omen zen. Izan ere, neguan, edurra-eta egiten zuenean, behorrak oso behera jaisten ziren, Antzuola aldera, eta hango lur-jabeek animaliak ‘bahitu’ eta gobernatzen zituzten. Aurrekomendiko jabeak bila azaltzen zirenean, egun haietako mantenua ordaindu behar izaten zuten, atzera behorrak eramango bazituzten.

Ardanbidetatik Zumarraga aldera joateko beste bide bat, Kurutzeko Zabalera joanda. Inguru hartan, Lakiolaetxeberri gaineko tontorrean, Hirupagota dago, garai batean hiru pago baitzeuden, eta orain bakarra. Hara joaten da urtero Blas Kortazar, buelta batzuk ematen dio arbolari eta gero, bost minutuz edo, besarkada ematen, energia ematen omen dio eta.■

(Eskuinetik ezkerrera) Ignacio Arakama, Luis Osinalde, Bittor Mujika, Julian Errasti, Jose Antonio Durán, Josetxo Manjón, Ignacio Oria eta Armando Martínez.

LA IGUALDAD DE LA MUJER EN EL MONTAÑISMO VASCO

Antxon Iturriza

Las reivindicaciones de las mujeres

exigiendo un tratamiento igualitario con respecto a los hombres, ni son de hoy ni se circunscriben a los ámbitos laborales o a las relaciones personales. El terreno del deporte no ha sido una excepción en la manifestación permanente de los deseos femeninos de paridad en el trato.

En el caso del montañismo, estas demandas ya se habían manifestado antes del nacimiento de nuestros clubes en otros países de mayor tradición alpina como en Inglaterra, donde en 1907 se fundó el Ladies Alpine Club y, un año más tarde, el Ladies Schottish Climbing Club en Escocia, en ambos casos por divergencias o discriminaciones suscitadas en el seno de agrupaciones a las que pertenecían, dominadas por criterios masculinos. Por las mismas razones surgieron en California en 1914 el Alpine Womens Club y en 1918 en Suiza el Schweizensche Frauen Alpen Club.

En Euskal Herria, no puede hablarse en épocas previas a la guerra civil de movimientos feministas dentro de los clubes de montaña, pero sí de requerimientos en demanda de equidad en el trato.

La primera conquista de las damas alpinas vascas tuvo que ser la de alcanzar la categoría de socias de su club. En algunas entidades, como el histórico Deportivo de Bilbao, las mujeres participaban en las excursiones, incluso se organizó en 1923 un concurso específico de seis cumbres para “señoras o señoritas que estén unidas en parentesco de primer grado con los socios y vayan acompañadas de estos”, pero no podían llegar a ser socias.

El Bilbao Alpino club fue el primero que desde el mismo momento de su fundación, en 1924, admitió a mujeres como miembros de pleno derecho, eximiéndolas del pago de una peseta que se pagaba como cuota. Otros clubes relevantes como el Deportivo Eibar, si bien desde sus inicios las chicas formaron parte habitual de las excursiones, no abrió la admisión de socias de número hasta 1933, al igual que haría el Deportivo Fortuna de Donostia, en ambos casos al calor de los vientos liberalizadores que soplaban en tiempos de la república.

Raimunda Royo, primera mujer vasca que completó en 1930 el concurso de Cien Montes, entre Andrés Espinosa y Antxon Bandrés (Archivo A. Bandrés)

No obstante, aunque en detalles puntuales, las mujeres ya habían hecho oír sus reclamaciones en tiempos anteriores. Cuando el 1926 se encargaron las primeras insignias de la recién nacida Federación Vasco Navarra de Alpinismo, las montañeras bilbaínas elevaron su protesta solicitando que “habiendo visto las bonitas insignias que los señores federados ostentan en sus solapas, también nosotras, las mujeres federadas, queremos tener el honor de llevarlas, por lo que rogamos hagan también una serie con imperdible”. La demanda fue atendida y en el siguiente pedido se incluyó una partida de insignias adaptables a las damas.

Patrulla femenina
en la marcha del Fortuna
de 1942
(Archivo C.D. Fortuna)

